

Lauaxeta

**AZALPENAK
ETA BESTE
1932**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Azalpenak eta beste 1932*, Esteban Urkiaga
Lauaxeta (Agurtzane Mallonaren edizioa). Euskal
Editoreen Elkarte, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00221.htm>

JAUN ANDIJA...

Gabonetako loterijak urten eutson Joseba eritxon geure erriko bateri. Dirutxu orreikaz, ibilketat bat egin biar ebela ta urten ziran emakumia ta bera. Pozik juan ziran uri batzuk ikusten, ezkonbarrijak bailitzan.

Zelako poza igaro eben Joseba ta bere emaztiak, aberatzen antzera! Nork uste ez areik, dirudunak ez ziranik? Ene bada, ta emakumiaren arrotasuna etzan gero edozelakua be!

Madrid be ikertau eben. «Puerta del Sol» deritxon tokijan egon ziran luzero yente gustijai begira. Jatetxe ederren baten egon ziran eta margotokijak ikusi ebezan. Baita Cibelesen iturrija be. Bein Madridera juan ezkeruan iturrija ikusi barik etorriko ziran ba.

Geure Josebak txokor galanta erabillan abuan, amerikano bat bailitzan. Loterijan urten eutsoena askorik be etzan, baña arein arrotasunak ez eukon neurririk. Dagonian bon-bon, eztagonian egon. Orixe egiten eben senar-emazte areik. Gerokua albuhan itxi ta barre egiten eben.

Bilbaora atzera etorteko orduba be eldu zan. Tamal andijagaz baña itxi eben uri andija. Bultzijan ez eben txartelik txarrena artu, onena baño. Euren onduan etorran beste emakumetxu bat be. Liraña tan benetan. Arekin izketan asi ziran, «txitxi-putxu».

— Eta nora dua ba-edo?

— Bilbaora nua...

— Orduban toki batera guaz. Alkarrekin juango gara ederto. Poztuten gara zeurekin bide au egitiagaz.

— Bibuliña joten dot bai? eta Bilbaoko gixon batzuk dei-egin dauste ara juateko. Pozik nua uri aretako ereslarijak entzute andikuak dozuz eta.

— Eztira ixango ba. Neu be ereslarijen batzarrekua nozu.

— Urte askotarako. Gura dozuna eukiko dozu. Eztaukozu neuri azaldutia baño zer egitia gurako zeunken. Urlia, neure laguna da. Beste jaun a neure adizkide begikua da. Eztaukozu ba zetan ardurarik artu arazu onetzaz.

— Eskerrak emoten dautzudaz, orrelako laguntza zeugan idio dodalako. Iñor eztot ezau-

tuten uri aretan, eta onela toki ezaun baten sartuko naz zeure bitartez.

Ixillean etorran Josebaren emaztiak be andiki antza artu gura ebalako-edo, agua zabaldu eban. Bere senarraren goralbenak etziran makalak be! Yente punterenguan laguna zan. Sinfonican ziran gorengoan adizkide ona zan. Bai-ba, areikaz ibilteko diru aña be baeukon eta...

Bide gustijen besterik ez eben erabilli euren anditasuna ta arritasuna baño. Bibuliña joten ebanak, gustija ziñistu eutsoen, ez eukon zegaitik ziñistu ez be.

Musika arazoetzaz be zelako izketak egiten ebezan gero. Joseba etzan Sinfonicako morroi bat baño. Arein barriketak ostera, bateko Ravel, besteko Wagner, onako Litz, arako Puicini. Ikertuta etorran bilbuliñista a.

Ereslari ospatubenatzaz itz-egiten eutson gixon arek. Emaztiak be baekin ederto berba egiten gauza orretzaz.

Eldu ziran ba Bilbaoko geltokira. Urruntxutik ikusi ebezan geltokijan Sinfonicako jaun batzuk. Bai-ba, entzute andiko bibulin-jotzalia etorran eta arrera ona egin gura eutsoen.

Bultzitik beratu ziranian, agur ikeragarriak ziran. Josebak beste gustijai, neskatil aren aurkespena egin eutsoen.

Azkenean baña belbillera sartzeko orduba eldu zanean, geure Joseba ospatsubari beste jaun batek esan eutson:

— Onen bibuliña ekarri egixu. Zeure kontura. Autsik ezdagijela gero euki. Eta bijarko Filarmónica aurrian eukiko dozu amarretarako.

Bibulin-jotzaliak goitik-beraño begiratu eutson Josebari. Onen emaztiak barriz piperra baño gorrijago zala, ikeragarritzko adikuna egin eutson jaun areri. Euren andikixun gustijak une aretan jausi ziran!

EUZKO-ARAUDIJA

Barriro emen daukogu Euzko-Araudijetzako eztabaida. Alde batetik ezkertarrak eta bestetik eskumatarrak. Batez be eskumatarrok dira bildugarri. Uste ixan dabe abertzaliak euren alde jarriko zirala, España orretan bakalduna ipinteko, baña gaur uste ori guzurtu dautsoegulakoedo, asarre bixijan dagoz geure aurka.

Erkala edo errepublikea etorri zanian, abertzaliak iskilluz josita egozalakuan, geuregana etorri ziran. Bakaldunaren gudari urtengo gintzazalako itxaropena eukoen, eta labankeri asko ziran geuretzat.

Euzko-Araudija maite ebelako, ez, baña abertzaliak atzipetuteko asmoz, pozik geure adizkide euren buruba agertuten eben. Eskumatarren laguntasuna ta alkartasuna lortu biar zala iñoen, ez uskurtza edo euzko-araudija maite ebezalako, gai orrei bide zirala, euren aldera geu eruan gura gebazalako baño.

Abertzaliak etziran ez eurekin alkartu ezta ezkertarren aurka jarri be. Beti geure elburura

giñoyazala, esan genduban. Bide-lagun egin gura yakuna, eztoigu albora jaurtiko. Bakalduntarrak uste eben euren adizkide ta kideko gintzazala, gaur osterera erkaltzaliak garala igarri dabenian, gorroto bixija agertuten dauskube. Erkaltzaliak bagara, baña ez Españako erkaltzaliak, beste mota batekuak bai osterera.

Itxaropen bat lurperatu yakonaren gorrotua darabille orain bakaldarrok. Euzko-Araudijak ez eutsoen ardura andirik emoten len, eta orain gitxijago. Euren ixilpeko elburuba baztertuta ikusten dabenian, geure aurka jarten dira. Benetakuk baziran euren antziñako uskurtz-itzak eta alkartasuna abotsak, gaur be geurekin ibilliko leitikez.

Uskurtzak ardurarik eztautsoelako barriz, «El Pueblo Vasco» izparringijan zirika datorz eta Pradera aita-santubak «La Voz de Guipúzcoa»-n idazten dau. Olako izparringi baten katolikutzat bere buruba daukonak zelan idatzi ete leike? Uskurtzak ardurarik eztautsolako emoten, ezker-tarren zein eskumatarren izparringijak ixan, geure aurka egiteko gustijak dira onak.

Barregarriak dira gixon oneik. Ezkertarren aurka itz-egiten dabe ta orduba danian ezkerta-rrakin alkartuten dira, ta onein izparringiak ontzat artzen dabez katolikuben aurka egiteko. Egun oneitan entzun dogu Gil Roblesen aurka dagozala bakaldarrak, gixon argi orrek esan dau ba, Españako Lagijen aurka egin biar dala, baña erkalaren alde. Au dala ta asarratu yakoz beste gustijak. Lagijak txarrak badira barriztu biar dira, bakaldarrak barriz lurperatu erkala gura leukie.

Gil Roblesen aurka jagi diranak, geure aurka be jagiko dira, aldakuntza andijagua dagolako abertzalien eta orren bitartez. Ez Euzko-araudirik eta ez Españako lagirik, ezer be eztabe gura euren erregia baño.

Edo gustija edo ezer ez diñoenak, begijak itxita daroez. Abertzaliak gara benetan gustija eskatuten dogunak. Fuerutzale agertuten dira orreik, gaurko egunean baña len ixil egoten ziran bakalduna nausi zanian. Abertzaliak dira gustija eskatuten dabenak, geure fuerubak erri azkiaren lagijak ziralako.

Ulertu gura eztabenari ezin buruban sartuko dautsogu ezertxu be. Aspaldi luze onetan dabiltz

orreik zoztorrak idoro gurarik abertzaletasunari alde batetik, besterik osterera erkalaria. Erkala etsai ta geure laguntzat euki gabez alditxu batean, baña gaur erkala ta abertzaliak euren etsai dirala ikusi dabe. Ez gauza bategaitik, bi bardiñak eztiranakaitik baño.

32-I-12

IDAZLIENTZAT

Euzko-idazlien arte, eztabaida asko sortu-erazi dauz liburu batek. Euzkera barrija, egiten dabiltzazala, idazle batzuk. Egija ete? Gai onek garrantzija dauko, batez be gaurkoan idazten dabenentzat.

Gustijak bide-onetik ibilli gura geunke, baña bide ori, txarra edo ona dan, ezin jakin ba. Gustijak ago bat eztaukogu.

Bere kezka agertu darua, «Larreko» idazlari-maxubak. Beste batek idatziko baleuz, aren lerruak, ardurarik ez. Baña «Larreko»ren itzak auzartu biar. Euzkera ulertu ezin? Nondik gaitz ori? Erdera-antza idazten ete dogulako? Euzkel-idazle zarren jarraille ez gabiltz, entzuten dogu. Yente xea nausi euzkerea ikasteko. Baña yente xeak zelan erabilliko leukez, gai barrijak? Orain-gua aurrez-aurre daukogu, ez atzokua. Zarren jarraikitzaile, ixan gura gustijok.

Arein, antziñako arein bularretan ugatza edanak gaituzu, baña ondo azijak bai ete? Gaurko idazlien idazkera dala ta, eztabaida barik, zer-

edo-zer jakin gura dogu. Euzkel-idazle onenen saillan diranak, mintza bediz, «Larreko» jaunak diñuan elegaz.

Niretzako bere arrikada batzuk ixan dira, euzkera barrija egiten ari nazalako. Zarrik ez barririk eztago niretzako, gustija euzkera baizik ez. Idazkera, eztozu euzkerarenera, bakotzaren idea-ispillu baño.

Gomutan dot, Españako literatura, txirua zan aldijetan, zer jazo zan. Granada eta Fray Luis de Leon idazten asi ziranetan, erdera motza zan, landu-eza. Lateraz jakin bai, idazle oneik, eta bide-barrijetatik ari ziran. Beste batzuk ots-atzetik. Ikera, arritu baitziran aren auzarkuntzagaz. Erderaz ez, latera dozube idazkera ori.

Egunean erdera ez ete, arein idazkera? Bai eta klasiko dozuz. Erderaren ugatzik gozoena, arein liburubetan. Aldakuntza auxe ixan dala. Erriko erdera erabilten dabe beste errijetako idazlarijak? Ezdot uste yente xearen izketa darabilela. Nova sint betera, zarra barri bediz. Zarrai jarraitu, baña barrijak ixan bediz gogoyak. Azala daroe bardiña, mamiña ez.

Bildur gara, orain «Larreko»ren itzak entzuki. Itzal daukijo idazle orreri ta belarri-zur gagoz. Gaizki baguazi, atzera eginen dogu. Asmo bat artuba naz. Agertuko? Olerkijetan sekulan geyago egin ez. Euzkerea galduteko ixan ezker, oraingoan lanok, egin ez, eta kitu.

Aiko-maiko, eztabaida asko ixanen dira, onetzaz. Goiko mallan dagozan idazliak ots-egin biar. Ni ari naz, atia zabaldu dot eta etorri bediz gauza barririk daukoenak.

32-I-17

JOSULAUNAK

Erkalak eztauz gura josulaunak eta kanpora jaurti dauz. Euren etxiak eta ikas-etxiak kendu dautsoez, lapurretan egin eta eskuratu baebezan-edo. Orain ezin bixi ixango dira alkarrekin, etxe baten barruban, josulaunak.

Gastiak atzerriratu dira, zarrak emen geratuko dira, baña zakabanatuta. Kalte andija ixaten da bixitza au, lekaide batentzat. Erkaldarrak artu daben erabaki onen zegaitija, jakin gura geunke. Zegaitik deuseztu dabez lekaide oneik? Noren aurka egin dabe? Zeintzu dira egin dabezan gaizkabidiak? Nortzubei kendu dautsoez ogasunik?

Erabaki garrantzitsu batek, bere zegaitija agertubazoten dau. Erriyak eskatuten dau orainguan be, baña alperrik. Ixildu gaitez an eta geure tamala agertubazo josulaunei.

Euzkotarrak zer ikusirik ez pageunke josulau-netzaz be, geure samiña agertuko geunke, erabaki oribaño okerrik ezin dalako ikusi. Baña euz-

kuak zer ikusi andijak daukoguz lekaide oneitzaz.

Loyolatar Iñaki geure endakua ixan zan. Aren ixatia zabaldu dabe beti josulaunak eta geure aberri onen ixena barreyatu dabe. Josulaunak ixan dira beti elexaren gudari ausartubenak eta amaikatxu gaste ta zar ziñismenean azi dabez. Orain lan andi orren ordeztaxe egiten dautse. Kistoren aldeztan-egin dabenak jasarpent euren lepo-gain daukoe. Bai-ba onetan igarten yakoe benetako kistarrai. Geure irakasliak be jasarpent gorrijak eruan euzan ezkerot, bere jarraitzaliak eztira ixango itzal geyagozt begiratubak.

Poztu dira kistarren etsayak. Egun gitxi dira oraindik Donostian argitalduten dan izparringi zikin batek euren aurka esan ebezanak. Lapurrak eta lotsabakuak bailiran, josulaunen aurka idatzi eban Abeitua deritxon batek.

Poztu dira etsai zitalok, eurek gura dabena egiteko, orain azke dagozt eta. Len arresi batenantzot idoroten ixan dabez josulaunak. Jakintzaz eta onoinenez, gustijen buru ibilli diralako.

Urrun juan biarrik eztaukogu, berton Bilbaon ikusten dogulako zer egin dabe irakastola nausi

bi daukoez, ainbeste gasteri ikastaruak emote-ko. Koldobikatarren bazkunean barriz millaka gastiak dagoz. Antxe alkarren arteko itzala ta kistartasuna ikasi dabe gastiak.

Gorroto andija euki biar olako erabaki bat artzeko. Gaizkiñak be euren aldezkaja daukoe, onei osteria orixe be etzakoe itzi. Azkatasunaren ixenean olako erabakijak artzen dabezanai, kas-tigu andija jarriko geunkijoe. Oñaze ordu oneitan eurekin gagoz. Al dogun eran lagunduko dautso-egu ta geure barruko samintasunez agurrik samurrena egiten dautsoegu. Laster barriro geure Euzkadi onetara etorriko al dira, Loyolako deunaren babespean egon daitezana.

Ludi gustijan lan baño egiten eztaben onei. Mixijolarijak eurrez bidalduten dabezan onei, Ira-kastola nausijak, jakintza bidiak eta kistartasuna zabalduten aleginduten diran onei, iñoiz baño samurkijago geure agurra ta laguntza.

31-I-27

BUSKENTZA

Mungia aldera gixon asko etorten da igandietan, abere-peri edo azoka andija ixaten dalako. Baserritarrak pozik ibilten dira an, abererik erosiko ez padabe be. Jo ona ta jo ara, goxalde gustijan dabiltz, gero eguberdijan bazkaritxu ona jateko be.

Derioko baserriko jaunak be etorri gura ixan eban, baña andreak gogor egin eutson eta larri eguan, zer egin ezekijela. «Askok eta askok» esaten eutsen oneri.

— Ara ba, Tomasa, erregalutxu ori bat ekarriko dautzut Mungiatik juaten izten badaustazu.

— Erregalutxuba? Ekarriko daustazu gero?

— Bayetz ba, gauza on bat ekarriko dautzut!

— Olan bada zuaz.

Bernardinoren pozak perira juateko! Laster arkandora barrija yantzi eban. Barrija paparretik baño etzan gero? beste atalak zarrak ziralako. Zapata eder batzuk sartu oñetan eta tripi trapa Artebakarra ganetik eldu zan Mungiaira.

Goxetik urten zan etxetik eta andreagaz euki euzan eztabaidak ziralako-edo gozaldtu be ez eban egin. Gose zan bai? eta ardandegi batera sartu zan zeozertxu jateko asmoetan.

Salda-garbija artu eban baita basutxu bete arda be. Bestala eguan gero, egon be. Onetan sukaldera be eldu zan, ango barri ikusteko edo. Lapiko barruban bol-bol buskentza ikusi eban, buzkentzetan be ederra.

«Auxe bai dokala, erregalu ederra neure Tomasarentzat. Begi argija egingo dautso one-xeri» esan eta rasta sartu eban kolkora.

— Bueno Josepa, urrengorarte. Banua orain, mesea be eztot entzun eta.

— Agur ba etorri gura dozunean.

Kolkuan pustilla andijak atara eutsozan bus-kentzak. Elexara sarta zapean kiskaldute eukon kolko gustija. An jarri zan txoko baten eta mezea entzuten eguan. Onetan igon zan pulpitura abade jauna eta asi zan itzaldija egiten.

Ezkon-deyak irakurri euzan, baita asteko jayak be agertubazo. «Barikuban bigilija dozube gero, kistarrok», esan eutson argi-argi. Itxi

euzan bere liburutxubak eta itzaldija asi eban. Lapurretak gomutara ekarri euzan.

— Gaurko egunean askok eta askok larri andijak euki dabez lapurretan egiten dabelako. Bai kistarrak askok eta askok ostu ostian esku-tau gura dabe euren txarto egiña.

— Madarikatuba, iñuan geure Bernardiñok; nondik barrabas ete daki onek neure lapurreta onen barrija ba?

— Bai kistar zintzuak, askok eta askok euren eskuba luzetuten dabe ta iñorena eruan etxerako.

— Galduba naz, oraintxe. Abade onek jakin dabe egin dodana ta. Beste bein esaten badok ba...

— Askok eta askok esan dodan legetxe, ostuten dabe ta gero gorde arren ostu dabena, barruba erreten eukiten dabe. Kiskalduten yakoe barruba, baña ori dala ta be eztabe...

— Zer eztabe —zarata egin eban geure gaxuak—, or daukozu ta jan egixu.

Jaurti eutson buskentza pulpitura ta arinka kanpora urten zan. Abade jauna ikeratu zan an ikusi banagaz, baña ezin jakin al ixan eban egija.

Geure Bernardiñok oster a lepoko galantak artu euzan bere emaztiak emon eutsonagaz.

— Neuri burle, ezta? erregalu ederra non dakarzu ba?

—Aiztu egin yat.

32-II-2

GARBI-GARBI

Mundakan lukainkak egiten euzan emakume batek, baña txarritona usaña eukon eta iñok be ez eutsozan erosi nai ixaten. Bateko katuben aragijagaz egiten euzala, besteko txakurkumia-kaz, beti eukozan etxian lukainka pillo ederrak saldu eziñik.

Emakume orreri min andija egiten eutson, bera loya zala entzutiak.

— Orainguan garbi-garbi egin biar dodaz ba, iñuan. Bestaldeko Iñaziri dei egin eutson eta agertu be bai bere ustia.

— Ara ba auxe ta auxe pentsau dot bai? eta sekulako lukainka ederrak egin biar yodanaz.

— Poztuten nona, aspaldijon eure kontra yabiltzana asko be asko itz-egiten eta oso loya azala edo-ta.

— Badakiñat nor izan don ori zabaldu yona... baña atarpetan badona eskubetan etzana oztzik ixango. Lotsagalduko emakume peste ok! Senarrak be laga yona ganorabako bat dona ta!

— Olakorik iñoren kontra ez egiña esan ba. Garbi egixana eure lukaintza orreik eta batzuk bidaldu egijozana areri.

Il eban txarrija ba geure Klote emakume onek. Polito odola batu eban balde garbijan eta auzokuak ikeratu ziren edurra lakoxe zapija erabillako sorbaldan.

Bestaldeko andratxubak alkarreri iñotsen:

— Ikus dona orren garbikuzija? Orainguan lukainka garbijak egingo yozana...

— Ikeratu non bere ardurea ikustian. Jaungoikorako be ez ninduban ziñistuko orren garbija zalakorik!

Olakoxe erakutsi ederra emon eban ezkerokanpuan, pozik sartu zan ba Klote bere etxian. An be milla arduraz ibilli zan urria baxen garbigustija eukola. Txikertu euzan gijarrak, balde zabal batera jaurti ta lukainkak egiteko eran jarri zan. Etxeko aretorik ederrenean sartu zan.

Baña lanean astekotan, gomutara etorri yakon, garbijen egiteko era, soñutsik ixango zala. Tira ba auxe da benetan gauzak ondo egiteko moduba, esan eban eta soñutsik jarri zan.

Pozik ebillan lukainkak egiten, baña onetan zarata andijak, otsak entzun euzan txaidian, kalian. Emakumak gustija jakin gura dautzube ta arin balkoira urten zan. Atiak zabaldu euzaneko, konturatu zan soñutsik eguala. Arin baño ariña-go atzerantz egin eban.

Atzerantz egitian barriz ez eban gomutan euki balde zabala, eta bertan jausi zan gijerra ganian jezarrita geratu zala. Artu eban golpia igazi yakon eta jaso zan, baña lepua eta atziak gijerraz beterik eukozan.

Asi zan eskubakaz kentzen eta baldera jaurtiten euzala iñuan:

— Garbi egin biar dodazala lukainkak esan dot eta garbi urten biar dabe. Aldi gitxi barru saltzen juan zan zeira ta margo oneko lukainkak irudijen. Nonok erosiko eutsozan-edo...

LAPURRETAN

Erriko gustijak, txarrija ilten ebanetan, odoloste buzkentzak eta urdaya eruaten eutsoezan, jaupari jaunari. Ederto ebillan Pako jauna. Etxeko batek be ez eban geratu nai ixaten, abade jaunari zeozer eruan barik.

— Eta ezer emon dautzu?

— Bai ama, emon daust errosarijo eder bat.

— Ezta gauza txarra be. Nik egija esateko eztautsot bidaldu ordañez baña...

Gorroto andija eukotson abade jaunari elexa-ko-morroyak edo sakristau erkiñak. Berari ez eutson pitintxu bat be emoten, ainbeste erregalu artu ta. Azalera ez eban agertubazoten asarre au, baña barruban ondo gordeta eukon. «Ikusiko dogu ba nor garan. Jaupari onek uste dau iñor be enazala ta beretzat gordetan dauz erregalu gustijak. Enago konporme orregaz, enago eta enago...».

Urte batzubetan ederto ibilli zan, baña betikua etzan eta erritarrik gaiztoenak ezer be ez

eutsoen bidaldu. Min andija artu eban jaupari jaunak ori egin eutsoelako.

«Buruban gustijoi emongo dautzuket ba. Neuk ilgo dot aurten txarririk ederrena. Baña neurerik eztozube jango. Ezta enderirik be». Jau-parijaren itza, ezta itz alperra be ta erosi eban txarririk onena. Errotabarriko txarri gixena uru-nez eta artoz utsik azija. Txarri lodija zan, anka-txu txikerra. Urdai biguna eukiko eban arek, eta koipia naiko.

Erriko arakiñari dei-egin eutson eta iluntze baten il eban txarrija. Gero baña errikuai be erre-galuben orde zezker emon biarko eutsoela ta zer egin be ez ekijan.

«Ezpadautsoet ezer emoten, asarratuko dira. Emoten badautsoet barriz, bape barik geratuko naz. Ija sakristaubak zer esaten daustan, ija...».

Laster etorri zan sakristauba. Elexan eguan ordu aretan, Paduako Andoni deunari argi batzuk piztuten. Itzi alde batera argijak eta arimenak jo euzan. «Onelan enaz barriro elexara etorriko arimenak jo ezkerro gaba dalako».

— Zer aginduten daust ba, abade jauna?

— Ezer be agindu ez. Ualku bat emon biar daustazu...

— Ualku bat neuk? Eta nori gero, abade jaunari? Ez olakorik ezin egin neike.

— Bayetz gixona. Erdu ona. Ara ba txarrija il dot eta orain erritarrai eurek ekarri eustezanen ordañez eruan biarko dautsoet txarri erdi. Zer egin?

— Gauza erreza. Laster esango dautsot zer egin.

— Ija ba. Poztuko naz orrexegaz eta.

— Jauna ba, gau onetan eskei begi atetik, kanpoko atetik eta bijar goxian goxetik barrura sartu. Gero sokorruka asiko da, ostu egin dautsoela txarrija ta. Orrelan uste ixango dabe benetan ostu dautsoela txarrija ta kitu.

— Ezta asmo txarra be. Orixe egongo dot.

Sakristauba juan zaneko, txarrija eskei eban jauparijak atetik. Erriko geyenak ikusi eban txarri ori ta pozik egozan urrengo egunean buskentza edo jasoko ebelakuan, jauparigandik.

Baña geure elexako morroyak barruban eukon asarria kentzeko, gau aretan urten etxetik eta abadiaren txarrija ostu egin eban. Etxian

barik mendijan gorde eban. «Ointxe ordainduko daustazak egiñikuak», esan eta eruan eban txarrija. Jagi zan jauparija goxaldian, baña txarririk ez eban aurkitu atian. Zoratuta eguan, nork ostu ete eutson edo. Arin dei-egin eutson sakristaubari.

— Zer jazoten yako jauna, onen goxetik dei-egiteko?

— Ene bada, ta galduba naz! Txarrija ostu dauste!

— Bai fauna, orixe esan gustijai, orixe! Ostu egin dautsoela.

— Baña benetan da ostu daustena, ostu dauste ta.

— Bayetz ba, ederto daki berorrek ostu dautsoela esaten. Gogor ortxe ekin erriko gustijak ziñistu dagijen. Nik egija dakidan arren, ixilik egongo naz eta. Esan, esan ostu dautsoela.

— Baña gixona, ostu daustela ba benetan.

—Ja ja! Ederto daki komedijak egiten gero, ederto.

Eta geure abade jauna txarri barik geratu zan. Sakristaubak jan euzan urdai ta buzkentza-

kaz loditu euzan bere matraillak. Oidalako zilbo-
ta be bota eban.

32-II-4

ELERTIJA

Bayonan argitaldu dabe ingurrazti bat. Museo ederra dozu un aretan eta «Fascicule» deritxon lenengo atala zabaldu dabe argitara. Euzko-elertija eta ederlanak badaukoe orain non ikasi gauzarik asko.

Ingurrazti orren buruban Philippe Veyrin jaun argijaren ixena dator. Nork eztau ezaututen jaun au euzko gauzetan aurreratuba ixan ezkerro? Dotore yantzija dator idaztiño au eta argazki ta idantzeak politikak dakarz.

Euzko eder lanetzaz zer uste daukon Veyrin jaunak argitalduten dau bere «Generalites» deritxon atalan. Euzkotarrak bere arkitektura, bere elertija eta eresija daukoz, baña beste errijetan be badira laterazko eta eladeko elertijak eta erak. Euzko elertija barik euzko era obeto esana ixango leitikelakuan dago Veyrin jauna.

Lenago auxe, esan euskun Colas jaunak be. Gauza gatxa egiten yakoe onei euzko-elertija edo euzkoetzazko «arte» berezija daguala esatiaz. Egija da benetako elertijak bi edo iru baño

eztirala, beste gustijak arein ugatza edan dabelako andi egin dira ba. Euzkuak ezkara geureko-yegijak ederlanetan. Iñorena erraz ontzat artzen dogu antzera jokatuten dogu. «Imitacion» esango leukie erderaz. Geuriak eztiran ertilarijak be ez ete dira ba kanpuan asetu?

Idaztelisti, Erri-edertija, eleskatza ta abar eztira egun baten sortubak. Baña garrantzi andi-jagua dauko Veyrin jaunak azken aldian diñuanak. Eguneko euzko erri-edertija (arte vasco) geure errijarena barik iñorena dala agertuten dausku. Eztabaida andijak sortuko leukez euskun onek. Lenago be «Juan de la Encina» jaunak auxe esan eban.

Baña laterri batek be-badauko egungo edertirik? Ezetz uste dogu, ludiko elertijarijak nastuta dagozelako. Alkarregandik suna artzen dabelako.

Veyrin jaunak lenengo Fascicule orretan geure eder-lanen iru atal azalduten dauz. Etxekintza, Burnintza eta Antolakuntza. Ikaskixuna laburkiro ta sakonkiro egiña da.

Gaurko euzkuak euren ixatiaren aurka dagozala diño, eta onela ludiko elertijen barrutijan

sartu gura dabiela. Igazidan eundiko azkenetan geure elertija amaitu dalako ustea dager Veyrin'ek.

Elertilarijen lan bakana, erriko eraz egiña. Onetan eztago ziur jaun au. Orain arteko lanak erritarrak egiñak ixanen dira, baña erritar elertilarijai irakutsi egijozubez beste errijetako lanak eta orrelan euren lanak be aurreratuko dabez.

Antziñekoen eta gaurkoen arte aldakuntza andija dago ba Bayonako jaun orren asmoz. Beste batzuk ostera eztabe ori uste ixango. «Etu-des sur l'art Basque» deritxoen orrijaldiak aurre-rakuntza andija egiten dautsoe geure ikaskixu-nai. Egiz gustijak ezin arto geinkez, baña gaya ondo azalduba dala uste dogu. Okerrak badira, batez be errijaren gogua ondo ezautu barik itz-egiten dabelako askok. Idazti orreitan barriz ikasi biar dogu euzkuak geure gauzak zelan ikus-ten dabezan beste batzuk.

Eder-lanetan ago bat ezta ixaten, bakotxa beriak darualako. Zuluaga, Salaberri, Zubiaurre euzko margolarijak eztirala ezin esan. Unamuno, Baroja eta beste idazle batzuk eurek gura ezta be euzkotar agertuten dira, Campion, Etxegarai,

Azkue eta beste idazle askok euzkotarren muina agertzen dabe. Eztira ixanen igazi dan eundiko idazliak baxen bakanak eta tolesgiak baña areik baño idazteko ta euzko ixatia joteko ezten obia daukoe.

Aberria baktokak bere elertija daukola uste dau, baña idazliak emen eta beste toki batzubetan, eurekoyak dira.

Veyrin jaunaren itzak ba oldoztu biar dira. Eztabaidak sortutia gauza ona yaku, gogo onez egiten badira, iñor mindu barik. Gai onetan buru «Juan de la Encina» yaku Bizkayan eta onek ondoen erantzungo leuskijo Veyrin jauna ari.

32-II-7

EZTABAIDA

«Argia» asterokuan idazkitxu bi irakurri baitut «Bide Barriak» dirala ta. «Larreko» idazle askoren maxubarena bata. «Larreko» jaunak berari yagokon erara, argi ta maitekor idatzi eban. Eskerrak egiten dautsodaz egijaren aldetik dabillalako.

Gaurko idazlioan artian erdel usaña darabilgula, egija da. Tamalez erbestetarren izkuntzetan asijak gara. Geure gastaruan egin doguzan ikaste gustijak erderaz. Eta umetan be euzkeraz ikasi bagenduban, baña txikitan itz-batzuk euzkeraz entzun-arren, geyena erderaz baizik ezto-gu egin.

Euzko idazliai jarraitu biar dautsoegu, tinko-tinko, batez be antziñako idazle jatorrai. Onetzaz itzik be ezin egin daikegu, gustijok gagoz asmo onetan eta.

«Larreko» jaun onak ondo daki nora jo biar dan eta bere onubak aintzakotzat artu-biar doguz. Euzkel idazliak azaletik baizik ezto-gu geyenean joten geure elia.

Baña napartar idazle agurgarrijaren oste, beste batek be otsegin dau «Argia»ren orrijetatik. «Euskeldun batek» ixenpetuten da. Nor dan eztakit, euskeldun asko diralako, baña igarriko neuke bere jaubia... Bide barriak eztira idazle orrek uste daben tokijetatik ibilteko. Izkuntza barrija ez, zarra biar dogu. Gaurkua tinkotu daigun antziñako joskeran. Baña tamalez lenguan ondo ibilten dakijenak, eztira agertzen bestiai aginka egiteko baño. Gauza erreza da ixan be bestiak egiten daun lanari akatsak aurkitutia, baña norberak idazti bat argitaltzia ezta orren erreza.

Bide zarrak ezaututen dabezan orreik, ixilik dagoz edo. Ganera neure idaztijetzazkua, oker dago. «Bide-Barriak» baderitxoe, ezta izkuntzagaitik gayagaitik baño. Orain arte erabilli eztiran gayak diralako neure liburuban, ixen ori jarri neban.

«Lauaxeta»ren «bide berriak» (sic) ez det ikusi: Bizkaieraz egon bear du ta nik ez dakit gipuzkoeraz baizik».

Neuk be eztakit bizkayeraz baizik eta ezin idatzi ba gipuzkoraz: Tamala ezta?, erkiko txokotxuban sartuta bixi ixatia!

Eta oraingo olerkijetzaz diñuana, egija ixanen da noski. Ulertu eziñak. «Alaz ere, oiek aipatu ta oiek saritu». Euzkeraz errezean eziñak non gertatzen dira ba? Gai danak olerkijak egiteko, egin bediz, errez edo gaitz. «Ori ez da euzkera txukuntzeko bidea, naspillatzekoa baizik». Baña naikua ezta au esatia. Oraindik zer esan geyago dauko idazliak eta ona zer dirauskun:

«Orregaitik, olerkari batzuek, asko ez al izan arren, zaletasun aundia dutenak eta olerki politak egiten zituztenak, gogaitu ta zapuztu dira: ba uste det oen galera, euskerari ez diotela ordaintzen bide berritik nai dutenak».

Bide berritik duazenak goralduten dabe ba Arresetar Emeteri olerkari aintzagarrija. Bide ertzera jaurti ete zaitugu, Arrese oraingo barrijak? Ez dot uste, olerkari orren liburu bijetan pozik edaten dogulako askok. Enbeitatar Kepa gogaitu ete da, orainguak ezdabelako sarituten? Ez. «Garbi-Nai» olerkari yayua be baztertuten ete dabe barrijak? «Gabirel» eta beste batzuk?

Ez, benetan olerkari diranean, aintzakotzat artzen dabez gustijak.

Sariketan olerki bi ixan dira saritubak: neuria bata, ta bestia «Lixardi»-rena. Euzkera txukuntzeko eztira ixanen, naspillatzekuak baizik. Baña nik eta Lixardik eztaukogu errurik epailliak ontzat artu badabez. Euzkera erreza daukoenak, etziran agertu eta...

Olerkarijak eztira gogaituten bide barrijetatik dabilzazenak dirala ta, euzkuak eztaukoelako olerkarijentzat txalorik baizik. Tamalez asko dira geure artian orrelakuak, baña ezer egiten dabenak be geyago irebasten dabe ixilik egonaz. Izkuntzeari lagunduteko bide gustijak dira onak. Euzkera ondo eztakigunok, aldogun eran idazten dogu. Baña beti, aberrijaren izkuntza dalako ta maite dogulako geure errijaren ezaupide ederra. Nik eztakit gipuzkeraz edo bizkayeraz edo lapurteraz ibilli barik al doguzan mota gustijak ikasi. Euzkeraz beti mintzatu. Batzuk txarto egiten dogu, beste batzuk obeto, banakak ederki. Gorengo mallara igon gura dogu gustijok, baña ezin... Euzkeldunak jayotzetik eta beti euzkotar

artian bixi diranak, eztakije zelako lana egin biar dan geure izkuntza ikasi ta itz-egiteko.

Alegindu bediz ba euzkera zarra ta errikoya daukoenak, idazten eta lan egiten. Euzkera amak baleukoz idazle gustijak argijak eta azkarrak. Aurretik duazenak erakutsiko dauskube ba bidea. Zarrak edo barriak, betorz itxaropen bako mendi onetan galduta gabiltzaz eta.

32-11-9

EUZKO-IRAKASTOLA NAUSIJA

Euzko-irakastola nausija (Universidad) biar dogu, eta gaur oba bijar baño. Geure gastedijak at urten biar dau, ezer ikasiko badau, etxian eztaukolako irakastolarik.

Gurasuak ondo dakije zelako kaltiak yatorkezan semien aldeegite onegaz. Txinditan asko eralgi edo gastauten daben-arren, tamal andijagua eurentzat, semiak alperrik galduta ikustia. Arrotzen oitura txarrakaz galtzen dira ta txikitan etxian ikusiko ekandu onak eta kistartasuna laster baztertuten dabe askok eta askok.

Ganera euzko seme batek, espñatarrak ikasten dabezan gauzak barik beste batzuk ikasi biar dauz. Bere aberrijatzazko arazuak daukaz eta sendagillia ixan, naiz laterija, beti begi aurrian ixan biar dau aberrijaren gaizkundia.

Eztago iñortxu be euzkotarren artian, irakastola nausi ori gura eztabenak. Politikako eztabaidak alde batera itxi biar dira onelako arlo baten. Eta politikea alde baten itxi dabela geyenak uste

dogu. Errijaren onerako dan ezkeru, aleginduten gara lortu arte.

Eztabaida arazo onetan ezin idoro ba. Irakastola nausija gustijok gura dogun ezkeru, baña batzuk mota batekua, bestiak beste erakua leyatuten dabe. Onetan jakintsu diranak, itz-egingo dabe. Españan gaur arte dagozan irakastolak etzakuz atsegin. Gixonaren gogo gustija azten daben ikaskixunai gagoz, ez jakintsu asko egin eta euren arazoetzaz baño ulertuten eztabenai. Amaseigarren eundijan ziran irakastolak benetako jakintza tokijak. Gixonak «humanus» ixan biar dau, bere gogoko leyuak alde gustijetara zabalik daukezala.

Españako irakastoletan dabiltzanak, karrera bat, ogibide bat jakiteko baño eztuaz. Jakintzak ardura barik daukoz. Titulo bat artzen badabe pozik dagoz.

Eta irakasliak be eztau ardurarik artzen euren ikasliak ixan dadixan jakintsubak eta aberrijaren itxaropenak. Beste laterrijetako arazuak erakutsiko dautsoez, baña ez euren aberrijaren ixatia.

Euzkuak baña irakastolan aberrija iragiteko tokija gura dogu. Abertzaletasunatzaz eztot itzik

egiten orain. Aberrija egin gura dogula irakastolan esatian, azaldu gura dogu geure ixate onen sustrayak, edestija, elertija, oiturak eta munduko gauzak ikusteko mota erakutsi biar yakoezela gastiai.

Asko aberrijetzaz itz-egin ezkeru, abertzaletasuna baño eztau ulertuten. Mota askotako abertzaletasunak dagoz. Geure artian bakarrak gaur ixan biar leuke, Aberrijaren gaizkandia lortu nai ixatia. Baña irakastolan beste era batera egin nai dogu aberri ori.

Euzko irakastola nausirako onak ixanen dira kanpoko irakasliak? Onetzaz eztabaida sortu geinke. Jakintza ezta onena, ez bestiarena. Ludi gustijarena dalako jakintza. Baña irakaslerik onenak ekarri biar ete doguz jakintzari baño aditu ezta. Edo obak ixango dira euzkotarrak diran irakasliak? Euzkotarra ixatiak bakarrik eztau onetsiko iñor, ezer ezpadaki. Baña kanpoko jakintsu baten eta bertoko asko dakijan baten artian nori irakasle-alkija emongo?

Onetzaz askok itz-egingo dau. Gaur onetzaz barik irakastolatza dagigun. Gustijok gura dogu, alderdi danak gagoz gai baten. Aurrera ba! Igan-

dian egin zan batzarrak aurrerapen andija egin
eutson zaletasun oneki.

Nora joko dabe orain arazo oneik? Bide one-
tik ete duaz? Edo barrero alkarren ala asiko gara?
(Alkarren ala, edo kontra bardin). Gustijok bada-
kigu geure leyak apurtxu bat estalduten, elduko
gara gura dogun elburura.

32-II-10

LAN-EZA

Lan-eza dala ta asko dabiltz txaide-ziar iñoren kontura bixi gurarik. Benetan dira asko gosez ilten dagozenak, baña alperkerijan bixi gura dabenak geyago dira.

Eskeko legez datorz eta emoten ezpayakoe, asarratuten dira. Batez be arrotzak diran lanbako orreik, uste dabe euzkotarrak jaten emon biar dautsogubela. Ezin jasan daikena, ikusten dogu. Al danian gustijai emon biar yakoe, baña etxe-kuak beti ixan dira lenengo.

— Mesedez ekarri egizu zer edo zertxu jateko be eztaukot-eta.

— Eztaukot zer emonik.

— Euzkua banintz emongo zeustan ezta?

— Eztakit emongo baneutzun edo ez.

— Nik bai, badakit emongo zeustana, baña maketuak garalako zuben emonik ezin artu geinke. Olakoxiak zarie euzkuak. Gosez ilten egon zarie, etorri gara zebei azijera emoten. Geuri eskerrak orain arro zagoze. Ola ederrak dozubez

eta itz-egiten be ez zenduben jakin eta gaur ederto dakixube. Olakoxe esker bakuak zarie ta.

— Esker bakuak bagara edo ez, ezin neurtu neike. Zubei zorrik zetan ordaindu eztaukogula, ondo dakit ostera.

— Zor andijena daukoe euzkuak españarrakin. Basetijai azijera emoten datorrenak eskurik andijena?

— Basatijekana, zelan etorri zintzan ba. Zeure errijan ondo ixan bazara, anguak badira gixonik onenak, argijenak, azikera onekuak, bertan geratutia baño ez zenduban euki. Baña tamalez gosez illik zatorze ona ta jaube ixan gura dozube. Zebek nabaimen basatijakaz zabil-tzeze, bestien aurka, beti nor jango.

— Alperkerija, itxuskerija ta pestekeri gusti-jak baño eztoguz zubekandik ikasi.

— Ganera eskale diranai, euzkua ixan edo ez, emon biar yako.

— Bai emon biar yako, baña gaur jaten emoten dautsodan orrek bijar neure aurka egingo daula badakit, zorakerija ixango leitike. Sugia azi, gero geuri aginka egin dagiskun.

— Arrotza ixan arren, benetan ona ta zintzua bada, pozik emongo dautsogu. Geure erri onen ixatiaren aurka barik aldez egiten badau. Orain arte be ikasija dauko. Asko ixan dira eskian etorri diranak. Jauparijen etxietara, edo andera andikijen atadari elduten ziran, gosez illik, uskurtzaren zaintzaliak bailiran. Gero pixka bat yantzi ta dotore dabilzazenian jauparijak bixirik jateko eran dagoz.

— Orren besterik ezta ixango.

— Bai, egija garratza dan arren esan biar da. Gustijak eztira orrelakuak. Asko onak be badira, baña geyenak...

— Erruba zebek daukozube. Emen separatista baño etzarielako.

— Abertzale gara, geure aberrijaren maitale garalako. Eta aberri orrenganako maitasunak eragiten dausku geure erritarrak maitatu daiguzan. Eurai lagundu biar dautsoegu. Anayak doguz odolez eta ixatez. Geure izkuntza abuan darabille. Bijar ezer eskatuko badautsoegu eurai lagundu biar ba.

— Zebek zer egiten dozube be erki askotan? Zeben anayai lagundu lenengo ta kanpokorik

badago jaurtiten dozubez. Orixe egin gura geuk be, lan eza dalako. Dagonian danentzat dago, baña orain urri dagonian, etxequai begiratu biar. Zubek egiten dozubena ondo egiña bada, geuk egiña be ondo egongo da.

— Bayetz uste dogu. Egija dalakuan nago.

— Egija dala uste badozu, tori laurleko bat.

— Milla esker, baña ezin artu neike. Geure anayak dozuz lenago. Neure anayak dirala diño-enak eta zuben aurka eragiten dauskubenak zer emoten dauskuben ikusten nua.

Aldendu zanian, aldeztu neban eskeko a edo lan bako a etzala uste neban baxen gaiztua. Errurik andijena eztaukoe eurek, beste batzuk baño itxu diran batzuk iñoren zaindari jarri gura dabenak.

32-II-11

LUTELESTIJA

Laster argitalduko dabe euzkeraz lutelesti edo geograpi txukun bat bizkayeraz. Iturriotzdar Pirmin apaiz jaunak egiña dozu. Gauza polita benetan!

Iru malla ixango dauz lutelesti orrek. Lenengo malla yatorku esku artera orain.

Euzkeraz geograpi bat biar zan, baña oraingo onek aurrerapen ederrak dakaz. Antziñako erakusteko-erak aldatubak dira gaurkuan. Argazki edo fotografiakaz itaun-erantzun bitartez poliki-poliki ikaslia aurrera dua.

Egilliaren asmua ona emen:

«Lutelesti edo geograpi au egitian, bada, aurrez-aurrez ixan dodaz euzko-umiak. Oneintzat idazti egoki, atsegin eta garbija egiten zayatu naz.

Ume txikijei okela-zati andirik etxakela emon biar, gixendu artian, eta lenengo mallako lutelesti au argitaratzen dot. Ondoren etorriko dira koskorragoentzat, bigarren eta irugarren mallako jeograpijak.

Jaun-Goikuari eta ongilliai eskerrak».

Euzkadi lurraldian dagozan ikuskixun polite-
nak batu dauz egilliak, zintzo zintzo. Eta baserri-
tarra asten da lutelesti gayak ikasten, bere begi-
aurrian diran gauzetatik.

Irakurgaya be badau azken aldian.

«Sabin Euzkalduna» argitaratu zanian, pozik
txaluak jo geuntsozan, lanik egokija zalako.
Gaurko au ezta makalagua. Ederra baño.

Euzko geyenak negarka gabiltz irakastoletan
erderaz erakusten danielako, baño zer egin
dogu-edo, umetxubak, euki dagijezantzat liburu-
txu argijak euzkeraz idatzita? Ezer edo gitxi.
Erderaz texto deritxoen idaztiñuak eztira geure
artian.

Eta neure baitan sarri oldoztu ixan dot: gaur
etorriko balitz geure artera gixon bat irakastole-
tan elebitza jarri daikenentz edo ez, zer erakutsi-
ko geunskijo? Benetan uste ixango leuke badau-
koguzala liburutxubak umiai erakusteko?

Jaun agurgarri batekin izketan nenguan:

— Biarrekua dogu elebitza, umiai erdereza ta
euzkerea ondo erakusteko.

— Bai, orretan nago. Baña zelan egun batean jarriko geunke elebitza?

— Gauza gatxa eztozu ori.

— Eztala gatxa. Ez arranotan!

— Zegaitik ba?

— Biloxik gagozelako! Non dagoz geure irakastoletako idaztijak? Non irakasle aldrak? Non daukozuz arazo oneitan benetan jakintsubak diranak? Batzuk egija esateko be badaukozuz. Ezaunak dira, baña geyenak ...

— Idaztijak biarrekuak dozuz ala?

— Bai irakastoletan idaztiño barik, lutelesti, elezti, arimetika eta abar biar dozuz. Askok egin dabez, baña bildur dirala argitaratzeko. Bai ba diruba galtzen dozu parra-parra ta.

— Orrei lagundu biar yakoe orduban.

— Bai lanik ederrena uste dot gaurko egunean ixango litzakela idazliai lagundutia batez be umientzako idaztijak egiten dabezenai.

Onela jarraitu genduban. Lenguan neure idazkolera eldu zanian erakutsi neutson Iturriotz jaunaren lutelestija ta pozik be pozik iñuan: Auxe da benetan lan onurakorra. Berebixikua dozu au.

Goitik beragiño astertu eban idaztiñua. Salgai noiz jarriko eben itaundu eustan. Laster ba erantzun nik.

Eta lutelesti ori emen dogula ta gaur otsdagit. Euzkotarra ez zadi geratu Iturriotz jaunaren lutelestija erosi barik. Gauza ederragorik eztago!

Esku artian erabilliko dozu atsegiñez. Euzkadiko edestija, urijak, mendijak, etekiñak eta abar jakin gura badozuz, ingi orreitan asetuko zara.

32-III-15

HINDENBURG

Alemanian aldera guaz. Auteskundiak ixan dira. Ona ementxe bakotzak zenbat autarki jaso dauzan; Hindenburg jaunak, 18.661.736. Bigarren datorren Hitlerrek 11.338.571. Irugarren Thaelmann 4.982.079. Duesterbergekin ezta askorik lortu ixan: 2.557.876. Winterrek, 111.470 eta beste batzuk 8.054. Onexek dira azkenengo auteskundiak bakotzak lortu dauzan autarkiak.

Hindenburg jaunaren gurenda ixan da beste gustijena baño ederragua. Sasi milloietan geyago Hitlerrek baño iritxi dau.

Etzan burrukaldia garrantzi garrantzirikua. Alde batetik bake-tzaliak eta bestetik gastiak, Alemani bertakoentzat baño gura eztabenak. Komunisten eta sozialisten aurka jago dira Hitleren aldekuak.

Auteskunde oneikaz garaille urten dau Brüning jaunak be, ba Hitlerrek nahi urteterakuan ordu bi baño len itxi biarko ebala jarlekua iñuan.

Baña Alemanin orain diran alderdijai begiratu ezkeruan, Hitlerenak dirala buru autortu biarko.

Urte gitxitan alderdi onek lortu dau gastien eta langille askoren maitasuna. Alde batetik guda ostetik Alemaniri etorri yakozan galkuntzak, odola barik daguan gorputza legetxe geratu zan ba. Bestetik komunistak dagijenaren aurka jagiteko, Hitlerrek Alemaniko ikurriña jaso eban.

Kaizarik ez, baña antziñako Alemaniren dedubak eta aintz-txaluak maite dabez oneik. Abertzale ixena darabille. Batez be Francesen aurkako gorrotua bijotzean darabille, Europako gudaritza ostean ba zapalduta geratu ziran doix-tarrak.

Alemaniko yentiak eztabez maite orain bakia ta gentza gura dabezanak. Hindenburg, Bruning eta abar baztertu gura dabez. Hitleren alderdija gastiana baño ezta. Bijarkua ba. Orainguan bestiak garaille urten diranarren, eztabe itxaropenik galdu.

Ernest Junger dabe gaste oneik euren elburu-bakarra, gudea goralduten dabelako, gixonaren

bixitza lain. Alemaniko alderdi barri onek garrantzi andijena dauko.

Europar gudarik ez, eta bakiak irautia nai dabenak, etsai gorri yakoez. Antziñako oitura ta jakintza jagi dira oraingo onein aurka. Batez be luditar edo universal nai ixan daben jakintza onein aurka datorz.

Uskurtza gauzetan be Hitleren alderdikuak okerretik dabiltz. Waumann jaunak orain aldi gitxi idatzi eban oneitzaz. Uskurtza benetakuan ezin bixi daitekez oneik, euren antziñako uskurtzaixunak barrero piztu gura dabazelako.

Alderdi orren muina, basatikerijan dago, baña basatikeri orrek badauko bere gokaya be, bere idealismo be. Eztabe gura laterrik oraingo eran, Dictadore baten azpian baño, baña dictadore ori sortu dadila erriaren aldetik.

Gaurko guda ori ba Hindenburg eta Hitleren artian, benetan da elerti biran arteko gora-beraz. Azkenenguak ixango dira garaille, gastien bijotza jo dabelako.

Baña Europako bakiak eztau ixango unerik. Komunisten aurka, sozialisten aurka ekingo

dabe, baña ez uskurtzaixunaren eta basatijen aurrerapenaren aintzi.

Igandian barriro ekingo dautso Alemanin ba lendakari ixateko bestiak baña autarkitan erdijak geyago atara biar dira. Bigarren ekintaldijan ez, autarki bat geyagoz be urten daike.

Iru alderdi dira, ba, indartsubenak: gixarte-erritzale deritxon aderdija, hitlertarrak eta komunistak. Oneik eztaukoe indarrik, edo ez indar andirik Alemani gustijen ezer ixateko. Komunistak eta hitlertarrak barriz eztira alkarrekin batuko. Eztabe abertzaliak. «Berunezko gin-bail»dunak alkartuko balitzakez be, Hindenburgen aurka ezin al ixango dabe.

32-III-16

IDAZTI BARRIJAK

«Aberri oyuak» deritxoe oraintsu argitaldu diran olerki batzubei. Zubimendi idazle jatorra dozu euren guraso. «El Pueblo Vasco» Donostian agertzen dan izparringijan sarri idatzi dau euzkeraz eta iganderoko euzkel-orri txukun bat bere zainpian darua.

Olerkari zalakorik ez genduban uste, baña azkenengua barik deduz dabillan olerkari bat dala, erakutsi dausku. Ordu onean betor geure euzkel-arlorra. Izkuntzak biar ixana badauko ta. Olerki txorta polita dozu, beti aberrijatzazko gayak azalduten dauzala. Orain arte, aberrijatzazko olerkari bakarrak, Enbeitatarrak ixan doguz. Gaurtik Zubimendi be emen daukogu. Olerkitxu gustijak atsegingarriak dira, irakurteko errezak eta gai berezidunak. Euzkera samurra darabil eta aboko egingo yakoez gustijai. Agirretar Joseba Andoniren aurritza dakarre.

Aldun onek agertzen dauskunez, olerkari ta idazle jatorrak, aberrijaren alde askoz be geyago egingo dabe, Araudijak baño. Mourlane Mitxele-

na idazle jatorrak onetzaz sarri idatzi dau Madri-
deko izparringi baten.

Zubimendiren olerkijak baña beste gai maite-
kor bat be agertzen dauskube. Liburutxu orregaz
irebasten dana, Ugarritzaren aldezkua ixango
da. Euzkotar gustijak ba biartubak dira olerki
orreik erosten.

Olerki baten edo neurtitz baten, sarri oldoz-
kun txukuna, aberrijaren deya edo oyuba
entzungo dozu. Sorotzat askok artzen dauz oler-
karijak, baña euren bete-biarra daukoe emen.
Zubimendiren olerkijak berebixikuak dira geure
barruko aberri-miña piztu ta indartuteko. Elerti-
jak eta aberrijak ontzat artu dabez. Zorijonak ba
idazle argi ta adizkide onari.

«Jesusen Biotzaren illa».

Emen yatorku beste idaztiño eder bat be.
Jaungoiko-Zalaren idazti pillua azkenengo one-
gaz geitu dabe. Oar-Artetatar J. A. jaupari argi ta
euzkeltzale benetakuak idatzi dau Josuren Bijo-
tzatzazko idaztiño au.

Geure artian beti Josuren Bijotzaganerako
maitasun andija ixan da. Orain arte be agertu

dira onetariko idaztihak. Kardaberatz abaren gomuta ez ete daukozu argi?

Mendiburu abearen idazti ederra sarri irakurri ixan dogu, benetan uskurtza ta euzkera erriko-yez josija dalako. «Jesusen Biotzaren debozioa» idazti onenetan be ona dozu. Azkue jaupari argi, jakintsu ta aintzagarriak be idatzi eban idaztiño eder bat. Egun oneitan bazterreratuta dagonarren, idaztiño arek bere onura onak egin euzan geure Euzkadi maitian.

Txukun txukuna dogu oraingo au be. Ara zer idazten daukun onetzaz Lekuonatar Imanol jaun goragarriak:

«Sermolaria degu orren egillea. Ezagun da. Itza errex dario nun naitik. Errex eta ugari. Izketarako errextasunak ordea, ez dio bat ere kalterik egin bear izan argitasunari. Argi darabil, oso bere esagaia. Eta egoki, oso egoki. Ez du idaztiak, bear ez dan gogorkeririk».

Eta esku artian bein artu ezkeruan, amaitu arte eztozu itxiko.

Oar-Arteta jaunaren itzaldihak entzun dauzari, atsegingarri ixango yakoe. Izlari bikaña ta idazle jatorra agertu yaku jaupari auxe.

Tamalez abestitxu batzuk eztauz idazti-amayeran jarri. Obeto ixango zan ba euzkel-abestitxu batzukaz...

Eta amaitutekuan, Eleiz-idaztiñotan asko ikusten doguz, baña zegaitik geure jaupari agurgarriak ez ete dabez «mistica» eta «ascetica» gatzijak idazten? Otoyak ondo dira baña «Axular»-en antzeko idazti batzuk... Badira geure idazle artian jaupari asko orretarako gai diranak. Euzkerek oraingo au ta beste idazti asko sor ixango dautsoez jauparijai ausartzen badira gai onek erabilten. Zorijonak Oar-Arteta agurgarriari.

32-IV-8

GASTETXUBAK

Izlari barri batzuk agertu yakuz. Zarrak naiko eztira gaur egunean, abertzaletasunari yagokon zabalkundia egiteko. Gastetxubak asi yakuz euren aberrijaganako mattasuna toki gustijetan erain gurarik. Umetxu bat izketan ikustia, gauza atsegingarrija dogu. Baña umetxu orrek gixon sentzundunak baño obeto itz-egiten badau, orduban geure bijotzak poztuten dira. Orain urte batzuk, nork uste ixango eban emakumiak aber-tzaletasunean bilduko zirala? Gaur barriz eztira emakumiak eurek bakarrik azi ona zabalduten. Umiak biar dabez.

Begijetan oindikarren tolesgetasuna ager-tzen dabela, gastetxubak igoten dira mai baten ganera. Eta zelako berotasunez itz-dagije gero! Alde gustijetatik entzuten dira txaluak, baño mutikotxu orreik eztabe bildurrik nabaituten. Euren barruban aberri deyak entzuten dabez.

— Aberrija zer dalako uste dozu, gastetxu? bati itaundu neutson.

— Aberrija neure ustez amatxuren mattasuna lakoxia da. Mendi oneik ikusten dodazanian, neure barruban nabaituten dot negar-miña. Euzkeraz entzutian barriz odolak be taupadak egiten daustaz.

— Baña aberrija, izkuntza ta mendijak dirala uste dozu?

— Ez. Orrein gañetik teste gauza ederraguak dagoz. Geure antziñakuak itxi euskubezan lagi-jak eta otturak. Eta batez be areik laga euskuben azkatasun leya, adoria.

— Ondo ulertuten dozu aberrija zer dan...

— Bai, neure barruban daruadaz asabaen illobijak eta euren gomuta. Aberrijaren alde bixitzea emotia, gauza andirik eztala argi ikusten dot.

Lotsatu nintzan gastetxu aren itzak entzutian. Nondik nora dakije umetxu oneik aberri-ganako daukagun bete-biarra? Zelan sartu yakoe bijotz erdijan mattasun eder ori?

Iñork ezin azalduko dau. Odolaren deyak dira-edo... Aberri gustijak, euren azkatasun-bidian duazen orduban, semerik argijenen begi-jetan argi egitten dabe. Eta umiak lakorik ezta-

go. Euren bijotz txikijan eztago bekatxik, eztago ikus-eziñik, ezta be girin txarrik. Egija sartuten yakoe, leyarrak-ziar eguzkija sartzen dan legetxe. Eta bein egija ikusten daben ezkerro, umiak indar gustijagaz jositen yakuz. Berrogei urte igaro dauz abertzaletasunak oraingo alatz oneik ikusteko. Sabin geure Irakasle bakarraren irakatsijak etziran alperrikuak ixan. Loran dagoz aberriko alde gustijak. Igalijak etxian doguz laster...

Eta lora onein artian, umiak. Josu Jaunak esaten eban sarri: Itxi umiai neugana datorzan. Eta Aberriak be bardin-antzo dirausku: Itxi egijozube neure kutunai erdu daitezana neure altzora. Neuk sutuko dodaz mattasunik ederren baten kolokuan.

Lan oni abertzaliak begoz! Umiak biar doguz. Dantzak, abestijak, ikusgarri diran jolasak atsegin yakoez umiai. Ezin jua geintikez eurekana, gogai sakonakaz-edo. Ezin ulertu ixaten da bez itz orreik. Baña aberrijaren ikurrin garbijak, eresijak eta abestijak entzutian, poztuten dira ta mattasuna sortuten yakoe barnian.

Gaur irakasle bijurtuten yakuz umiak. Izlari trebiak sortu dira euren barrutijan. Landaburutar

Peli, Sota eta Mac-Mahondar Erramontxu eta abar. Zorijonekua da aberrija, olako semiak daukozan ordubetan.

Itxaropenik ederrena orreik doguz. Eurekan alatzik gurena jayo da. Bildur barik umiak lo egi-ten dabe aberri amaren ikurrinpian. Ez itzartu umetxu garbi orreik! Ames-dagije ta!. Nork ezautuko dauz ames orreik? Aberrijak gastetxuben barruban diñozan itzak, itzik gozoenak dira, estitsubenak.

32-IV-15

«KIRIKIÑO»

Mañarian iltegi apala datza. Iltegi orren barruban sarri otoi-egin dogu, ez Irakaslia iltta gero, artian be bai. Orain urte asko dira. Udabarriko arratsalde eder bat zan. Gurdibillez juan nintzan eta antxe idoro neban «Kirikiño».

— Nor zattut gastetxu?

— Iñor ez. Euzkeraz ikasten iñardudan bat.

— Polito berba egiten dozu ba? Euzkeldun barri bat zara?

— Ez euzkeldun-barri ez. Txikitan euzkerea itz-egiaña nozu, gero baña aztu yatan.

Eta euzkereatzaz itz-egiten jardun geban. Lenengoz eta azkenez ikusi neban gixon mattagarria. Neure bixitzan beste bat idoro dot aren antzekua. «Amilgain» eta «Kirikiño» euzkel-idazlien arteko mattagarrijanak ixan yataz, bata bixida, bestia il zan. Bixi danari goralbenik egitia ez ei-da egoki, baña bua goralben au, ain aipagarri dan «Amilgain» onari.

EUZKADI izparringitik alde-egin ebanian «Kirikiño» argijak, taupada andija senti neban.

Gixon on a aldendu baño egun bi edo iru len, idazten asi nintzan. Uartxu bat jarri eustan. Jarrai egixu, idazteko gogua daukozulako.

Orain barriz aren itz gozorik ez dot entzungo. Atsegin yatazan aren goralbenak ba!. Onetan gixonik onena zan. Idazle gustijentzat itz on bat eukon. Eta ixan be geure euzkel arloetan orixe beti gorde biar geunke. Alkar iraindu barik, bestiakatik ona esan beti-beti.

Orain euzkel-idazliak aren gomuta ain matte badabe, orrexeri sor yako. Oron bijotzak beraganatuten euzan.

Iñor uxatu barik, bereganatuten euzan eta orrela euzkereaganako amaikatxu idazle ekarri euzan. Euzkeraz berak baño obeto askok idatzi ixan dau, baita idazten dabe be, baña arek aña ontasun ta mattasun batek be eztau erakutsi.

Zigorragaz eztala iñor be bigunduten ondo ekijan.

Kistar zintzua eta abertzale ona. Ezin atzindu dagiket aren aurpegi biribilla neure gomutatik, baten bakarrik ikusi nebanarren.

Urtero Bustintza zanaren illobija ikertatuteko itza egin neban eta urtero nator Mañariko ixilta-

sunera. Arkaitz andijen itzalpian datza. Lur-bal-tza ta loratxu batzuk baño eztira ikusten.

Geure artian iñori etzako illobi dotorerik egin. Sabin Irakasliaren illobija be apala da. Itxas ertzian, Kirikiñorena barriz arkaitz ertzian. Gixon-ik gurenak bake ta ixiltasuna matte ixan dabe euren azken lua lo-egiteko.

Lo-egin! Baña lo ori zaindu dagijala Gurutza deunak bere babesbian. Zerubak euri-ziar negar dagijan ordubetan ames-egin geure aberrijetzaz. Eta udabarri alayan lorak sortuten diranian mendi-magaletan eta itxas-barian uñak dantzan dagijen orduban, azur barruban senti aberrijaren mosu kutunena. ¡Lo-egin! Baña lo orrek itxartze-ra ederrena daukola, dakigun une argijan.

Iltegi apala ta txirua. Orrelan datzaz ondoen gixon gurenak. Arri landu ta gixantzekijak arte-gatuten dabe iltegiko gentza. Illobirik ederrena euzkoen bijotzetan datzala.

«Kirikiño» zanaren illobija geure barruban dago. Gomutarik argijena darabilgu barru barru-ban. Apaltasunak irebasi daun toki au sor dau-tsogu. Eta Mañariko atxetan axiak orru dagin orduban eta eguzkijak irri-edo be eurijak arri

ganiañ ots-egitian, gixon argi orren gomuta euki-ko dogu. Eta bere oinkadaen jarralle ibilliko gara. Orixe bai benetan gomutarik onena. Arein urratzai ekin ... Sabinetzaz itz-egiten danian, orixe burura yator. Sabinen bidietatik ibiltia, uste goralbenak guzur ez, baña garrantzi andikuak eztira, Kistoren mattale danak, Kistoren bidietatik ibiltia, atsegiñen dau. Geuk be orixe bete biar dogu eginkixun oneitan.

Egun onetan barruban sartu biar dogun gogaya «Kirikiño» lako abertzale zintzo ta kistar on ixatia.

Euzkel-idazle asko ta asko etorriko dira gaur illobira otoi-egiten. Otoyak ondo dagoz, baña Bustintza zanak eztau biar geure otoi-rik, zerubetan datzalako. Geuk zer ikasi barriz idoroko dogu illobi orretan. Biderik zuzenena auxe dogu ba gixonak aintzalduteko.

32-IV-17

FRANCE-ZIAR

Aldi onetan Europa-ziar egon-eziña nabattu-ten da. Komunistak bildurra-bide dalako-edo, erriak euren antziñako ixakerea osatu gura dabe. Basatijen eundija yatorkula, oldozlari gure-nak azalduten dauskuben bitartian, laterriak gogor egiten dabe.

Igandian Francen auteskundiak ixan ziran. Deuschet inguruban ixan diran jazokunen ostian Francen zer jazoko egon dira politika arazoetan buru diran gustiak.

Eztabaida askoren-ondoren, azalduko zan prantzitarrak zein aldetara jausten ziran: edo Tardieu eta Marin gixon oneikaz eskuma aldera, edo Herriot eta Blumekin zozialistekana.

Lau buruzagi oneik dira egun onetan France-ko igikuniak agertuten dabezenak. Blumatarrak ittunpen barik alkartuta ixan dira auteskunde onettan, baña ezkertarren batza ezin osatu ixan dabe. Herriot jaunak azaldu eban etzebala zozia-listen laguntasunik ontzat artuko, bein agintari-tzara eltzen bazan. Baña igandeko auteskundie-

tan ezta ezer be erabagi, Francen ba erdijak eta autarki bat geyago euki biar ixaten dira aldun ixateko. Datorren igandian barriz ixanen dira.

Orain arteko izparrak eztauskube argitasun andirik egitten, baña usmau geinke, eskumatar erkaltzaliak gorakada ederra egin dabela. Marin eta Tardieuren jarratzaliak gettuten dira. Aldun-alderdijak lengo antzean dagoz, baña Marin eta Tardieuren alderdi bijak batzen badira, beste eskumatar aldeko batzukin, orain arte izan dan aldun-batzarra ixango da aurrerantzian be.

Euneko ogetamar baño geyago geratu dira autarkirik emon bage, iñoiz baño zaletasun gitxi-jago nabattu ixan da ba auteskundietarako. Komunistak al-andijak egin dabez. Parisen eta Iparreko ikatz miatzetan, baña ezin aukeratu ixan dabe France dan buruzagi yakoen Cachin jauna. Komunisten buruba danarren zapalduba ixan da.

Itxas-gudarostian buruzagija ixan zan Andre Marty be oinperatuba ixan da. Komunistak aurre-atera dabe Dorioten alduntza. Iganderarte ba gauzak lengo legez dagoz, baña oraintxe azaldu geinke, zer jazoko dan. Tardieu garalle urtengo

da, ta onekin batuko diran eskumako erkaldarrak nausi ixango.

Aldun batzarra onatxe eguan lenago:

Iraukitzalliak(conservador): 15

Erritar-erkaltzale-batea: 131

Erritarrak (katolikubak): 17

Ezkertar-erkaltzaliak: 106

Erkaltzale-gorrijak: 5

Franklin Boillon: 55

Erkaltzale-zozialistak: 47

Sozialista-gorrijak (Herriot): 132

Zozialistak (Blum): 101

Paul-Fauretarrak: 3

Komunistak (Cachin): 14

Alderdi onexek ziran aldun-batzarra osatuten ebenak. Eskumatarrak batuta egozan batez be Tardieu jaunaren agintaritzapian. Orain be bardin irango ete dabe? Zozialisten ala bera dua. Blum jaunaren gudarostiak toki gustijetan galzten dabe euren indarra. Midi aldian dago oindikarren euren gaztelu nausija. Herriot jaunaren

agintaritza ortxe da, baña Franceko ipar aldiak katolikubak beti izan dira nausi.

Antziñako otturak eta lagijak matte dabezenak an dagoz, Midi-kuak apur bat nastubaguak diranarren. Auteskunde arazoetan alderdi bi oneik oso ezaunak dira. Loire ibattik onantzakuak, geyenak dira zozialistak eta beste aldekuak erkaltzaliak baña eskumatarrak. Auteskunde oneitan zozialistak galtzen badabe euren agintaritza, oso zapaldubak ixango dira beste laterrijetan be. Ganeraz agintaritzara igongo diranak, arazo garrantzitsubak astertu biar dabez. Guda-nausi ostian ezta ixan gaurko lako ixan garatza jauskerarik laterri orrek. Ganera Hitleren gurendeak arrizku andijak dakartsoz. Igandian jakingo dogu zer jazoten dan. Bitartian itxadon dagigun.

32-V-4

ZALAPARTAK

España zer dan, iñok eztaki, baña españatarrak zer diran, gitxijagok. Orrein ixakerea baxen bijurrik, ezta ludijon. Eundi-ziar, aginttari ixatiari emonak dira, ta beste bat euren buru ixaterik eztabe gura. Baña euren menpian daukoenak, azkatasun pitin bat eskatuten badau, españatarren zalapartak, amaigiak dira.

Catalandarrai Araudija abindu eutsoen lenago. Nork uste ba araudi ori tautik esan barrk emongo yakoela? Aldunak beintzat, ontzat artu eben. Baña ipuñekuak legetxe oneik be egitten dabe. Zein dan ipuin ori?

Jauregira eldu ei-zan, bein, gixon baldar, ipin-gitsu ta zozolelo bat. Astua ikusi eban, jauregi onduan eta diño:

— Asto orri erakutsiko dautsot izketan, amar urte barru.

Au entzutian, ikeratu ziran an ziranak. Juan yakozan Jaunari, lelotzar aren itzak adirazoten. Jaunak be begi-bizkor entzun eban olako itza.

— Amar urtian asto bati, izketan erakutsiko dautsola? Orixe ezta gauza erraza ba. Ekarri egistazube gixon ori.

Otseñak beinguan dei-egin eutsen ba. «Geure ugazabeak ots dagitzu. Etorri zadixala, diño».

Jaunaren aurrian be, gixonkotiak lengo itzak barriz esan euzan. Janarija ta yantzija alogeratzat eskatu euzan. Besterik ez eban nai. Ittunbe au, amai-ostian asi zan astuagaz, geure aguria.

Egunak juan, egunak etorri, astuagaz sarri eguan geure au. Olako baten ittaundu eutson jauregiko otsein batek:

— Baña egija da gero, astuari izketan erakutsiko dautsozuna?

— Ez. Astuari ezin erakutsi legijoke.

— Ai ene bada ta! Ona zagoz orduban. Geure ugazabeak urkatuko zattu.

— Eztaust ardura andirik egitten orrek. Amar urte barru, non egongo garan, batek baki. Zeure abintzaetan luzarorako egin egixuz itzak eta ondo bixi ixango zara.

Amar eta ogei urte barru emongo dozuzan bezuzak, ludija lakuak bediz, etorkixunak eper-dizgorako asko egitten dauz eta.

Orra ipuña. Amar urterako astuari izketan erakutsiko eutson arek. Bost egun barru ixan bazan etzan ausartuko, baña amar barru... Españatarrak be bardin egin date: Iñoiz etzirala etorriko Araudijak emon biarko ziran egunak, uste eben. Orduban abintza andijak. Orain baña araudijak bakotxari emoteko egunak emen dira. Zer egongo?

Zelako zalapartak eta otsak! Laterrijaren batasuna, galduko ei-da, araudijen bitartez. Antziñako edestija barriz ikustekuak gara. Lenago autonomia colonial eskatuten eben, Cuba aldekuak be.

Españako jaurliak ez eutsoen ez emon gura ixan, laterrijaren batasun-aurka ei-ziralako. Gero gerokuak etorri yakoezan.

Gaur (autonomia regional), eskatuten dau-tsoe. Alperrik, begijak itxita dagoz. Ordukua jazoko danetz nago.

Madridko izparringiak dozuz araudijaren aurka suba piztu dabiinak. «El Imparcial» da

gustijen artian gaiztoena. Neure ustez izparringi onek joko ona darabil. Etzan salduten garaurik, eta araudijen aurkako otsakaz, zer dan jakiteko be, batzuk erosten dabe.

Alderdi gustijetako gixonai ittaunduten dau-tsoe, euren eretxija araudijetzaz. Gixon guren orreik, aurka egitten dabe. Baña «Heraldo de Madrid» deritxon izparringiak be ittaunketa bardañak egin dauz eta lengo gixonak, erantzun aldatubak diñoiez.

Gaztelarren agindu-naya baño ezta gauza onetan agertzen. Iñoren kontura bixi gura dabiennak, ogija galduko dabelako azkuria eukiten da sarri. España ta kalabazea bardin yakoez askori, euren bixitza nasaya eztabe galdu nai. Ixan be españatarra beti ixan da alperra, bestiaren kontura bixi ixan dana. Cervantes, Quevedo eta Villarroelek, idazle gustijak, agertzen dauskube gaztelarra, erriz-erri, amaikatxu zozokeriz, lanari ostikeka egitten. Araudijetzazko zalapartak azalduko doguz, jakingarri diralako.

ARAUDI-AITZI

Euzko-araudija, ordurik larrijetan sartuba dogu. Aurrera edo atzera egiteko bidian dabil. Aldundi-ixunak araudi orren zabalkundia euren lepo-gain artu dabe.

Egoki ta onaurki argitaldu dabena. Alderdi gustijai ots-egiñik, zabalkundian lagun dattezan. Alderdijak eta udalak alkartuta zabalkunderik egokijena egin dagikelako egin-be.

Madariaga, Agirre eta Armentia jaunak ixentau dira zabalkunde-batzarrekuak dadixantzatik. Jaun orrein araudijatzazko adoria jakin dakigunok, uste betian gagoz ekingo dabela zintzoro. Baña araudi-aitzi entzuten diran otsak?

Nabarran batez-be, «radical» deritxon alderdikuak araudijaren aitzi asi ira. Azarola jaunaren aitzi-itzak lenago entzunak doguz. Gogorkiro araudi-aitzi jokatuko zala, esan eban.

Aldi andirik ezta, Olazagutia uritxuban euzko-araudijaren aurka itzaldi batzuk egin zirala, Zergattik abelera, erabaki edo ausar au? Uskurtzale dalako? Baña ez-ete dira araudijaren aitzi irauki-

tzaliak (tradicionalistak) uskurtzale-barik uskurtza-ala dalako?

Alderdi bi oner zer ikusirik eztaukoela dirudi. Batzuk ezkertarrak ba-dira, bestiak urberinkatu-ontzijan sartuta dagozenak dira. Arazo oneri sakonera begiratu dagijogun. Bai-batzuk eta bai-bestiak Euzkadiren etsai dira. Arrotzakandik euren goralbenak jaso ixan dabez, arrotzakandik janarija lortuko dabela uste dabe.

Erkijenganako mattasun geyegi erakusten dabe orain, lenago atzez-aurre ziranak. Uskurtzaliak galtzori andijak ikusten dabez araudijaren bidez, baña araudi-barik diran galtzorijak ezta-bez ikusten.

Sekulan geure eskubiden alde eskakixunik egin eztabienak, gaur Fueruen egarriz dagoz. Eta gaxuak eztakije Fueruak osuan emongo baleuskigubez, oso azkiak ixango gintzazala.

Edestija ikasiko balebe, olakorik eleukie esango! Ezkertarrak baña, batez-be Nabarran euren erki ori azpiratuba ixango dalako bildurra darabile. Egija? Euzko-araudijaren bittartez, Euzkadi osatuten dogu, baña erki bakotxak,

lenago laterri ixan zan lurralde bakotxak bere zeingijak daukoez.

Batez-be abertzaliak gara orretan zintzoenak. Ezin jasan geinkena dalako, euzko-erki bakotxak bere zeingijak galtzia. Abertzalien irakaskixunak orixe beti azaldu dabe. Ezkertarrak beste alde batera joten dabe. Araudijaren bittartez, geure erri onek batasuna lortuko dau. Orain arte ardura andija ixan dabe españatarrak euzko-errija bananduteko. «Las Vascongadas y Navarra» beti iñoen.

Garrantzi andija dauko geuretzat araudi orregaz euzko-erkijak. Orain arte banandubak, orregaz apurtxu bat alkartu dagikeguz.

Araudijaren aitzari jarriko ziranak, etsai asko eukiko ebezala, iñuan Beunza jaunak. Osuan eurek Catalandarren araudi-alde jokatuko zirala be azaldu eben. Orain atzera egingo dabe? Gazteizen nora jausi diran eztakigu. Araudijaren aurka egingo dabela, bestiak ostera araudi-alde. Argi-ta-garbi esan biarko dabe. Euzkuak ezin egon dattekez orrean itzai begira.

Azpeitian ixan zan batzarrean, gauza jakingarrija esan eban Chicharro eritxon gaztelar batek:

«Fueruak emongo doguz, baña bakaldunak gura baleuz». Orra erriaren eskubidiak gixon baten eskubetan. Olakorik eztau esaten inditarrak berak be!

Alderdi bi dira, ba, araudi-aitzi. Bestiak osuan jokatuko dabe aldez? Ezin adirazi. Abertzaliak bai. Eta iñor aurka ixatekotan, geuk ixan biar geunke. Baña Salomon bakaldunari jazo yakona geuri be jazoten yaku. Emakume bi arein edesti-ja bidezkoa da. Umia erdibitu biar zala adirazo ebanian, benetako amek ezin jasan olakorik. Eztabaideak eta zalapartak oraintxe agertuko dira gai onetzaz. Egunero azalduko doguz gertaerak.

32-V-18

ARAUDIJETZAZ

Oxin onetan uraska asko dira. Bakerik ikusiko dugu? Bakotxak bere arritxuba jaurti gura dau ta. Uretan baña arriak zer egitten daben, ondo dakigu. Ureskak dira orainguan, baina txarragua ixango lettike ur orri ganezka eragittia.

Gaurkuan bake apurtxu bat be egin da. Azaña jaunaren itzaldijak goguak baretu dauz. Etzan gauza erraza! Españatarrak zaratatsubak dira eurai yagokena zainduteko. Bestienak eztautsoe ardurarik emon. Orain-arte beintzat. Eta bere menpian zan erri batek, azkatasun pitin bat eskatutian, Cadizko gude-eresija joten eutson. Abertzaletasuna zer dan eztakiye.

Baserritar batzuk egitten dabena, eurek be dakije. Gurasuak olantxe itxi eusten solo au, basetxe au,iñok eskurik ezpegi jarri berton. Baña beste alde batera uzta obiak ixango zeunkez, obeto bixi-ixango zintzake, batek edo-batek esaten badautso, eztau ulertuten.

Berreun urte atzeratuta bixi dira espñarrak eta atzeren duazanak, bestiak be eurekin eruan

gura dabez. Baña atzian edo aurrian, gura dabena tokijan buaz euren. Euzkotarrak eztaukogu zetan euren bidez-bide jua biarrik.

Gurasuak emon eutsoen legetxe soluak irautia nai-dabe, ezta? euki begijez, ba. Ezkara juango euzkotarrak euren lua artogatuten.

Baña espāñarrak zer diran, ipuin baten bidez azalduko dautzuben. Sarri ikusi doguz lur-ganian sartuta egur luziak. Egur orreik, koipiagaz labanduten dira ta puntera igoten daunari sari bat emoten yako. Olako egur luze bat eguan Bilbao-ko enparantza baten. Mutiko gastiak pozik ebiltzan sari-billa. Bost ogerleko emoten eutsoezan lenengo igoten zanari.

Toki aretan euzkotarrak ziran gaste geyenak, baña espāñatarrak, prantzetar ta ingelandarrak be ba-ziran. Kai ospatsuba da Bilbao, ta alde gustijetako yentia ikusten dozuz.

Egur-punteragiño igon gura-eban gaste batek. Ederto asi zan, baña koipiak ezeutson itxi luzaruan. Jausten zan bera. Barriz igoten asi zanian, an ziran mutil batzuk parketatik tiraka asi yakozan. Berantza egitten eutson.

— Zegattik dagixube ori, ba? — ittaundu neutsoen.

— Ezin igon ixan-gara? bai? ta beste iñok igoterik be eztoгу gura.

Mutil areik nonguak ziran ittaundutian, españarrak zirala jakin neban. Batzuk Burgoskuak, bestiak Zamorakuak

Laster asi zan egur-goira igoteko asmoz, amasei urte inguruko gaste bat. Ule gorrijak eukozan. Ekin eta ekin ezin igon zan. Bere onduan ziran batzuk barre-egitten eutsoen. Ez berantzarik eta ez gorantzarik. Aren adizkidiak zirala zirudijen areik ez eutsen lagunduten. Españarrak bera-egitten asi yakozanian gogor urten ziran lagunaren aldeз.

Nonguak ziran ittaundutian, ingelandarrak zirala azaldu eusten. Bakeз begiratuten eutsoen adizkidiari.

Geroxelasi tan irugarren bat. Apurka-apurka ebillan, baña gaitz-egitten yakon goraño eltzia. Onetan azpijan ziran batzuk gora jaso eben. Pozez indar-egin eutsen betik eta txaluak jotен eutsezan.

— Nonguak dira gaste oreik? ittaundu neban.

— Oneik Franceko batzuk dira.

Eta arrittu nintzan arein alkartasuna ikustian. Euren lagunari gustijak indar-egin eutsen sarija lortuteko. Gorantza egin eutsen eta ez españarrak legez, berantza. Ezta Englandarrak legez zirkiñik egin-barik arre-egin. Laterrijak be gaste onein antzekuak dira.

Neuk ezin dodana, eztozu egingo zeuk be, batzuk diño. Bestiak ez laguntzarik ez zoztorrik eztabe jarten. Azkenak gora igon gura daunari, gora eragitten dautse. Baña Españako semiak egur-gora igon gura-ixan ebanari egin eutsena, beste gauza gustijetan be egitten dabe.

«Etzara gora igongo. Neu bian nago ta zeu be ementxe lotuko zattut».

Araudi-arazuetan jazo dana, auxe dogu. Batzuk eztabe ziñistuten olakorik, baña egijaren aurpegija auxe da. Gai asko daukogu bijarko be.

32-V-31

ARAUDIJETZAZ

Españarrak zelako gogua dauken, atzoko azalpenean ikusijak gara. Eurekoi edonun ixan dira. Baña oker-ibili dira gixarteko arazuetzaz. Antziñako aldijak euren begijetan erabildden ixan dabez, gaurkuan bixi-barrk.

Españarrai etxakoe abotik jausi, «Reyes Catolicos» eritxoen bakaldun bi arein aldija. Bakaldun bi areik España-batasuna egin ei-eben. Edestijak eztiño olakorik. Nabarra, laterri azkia zan Elixabete bakalemia il zan-ostian be.

Eta eztira konturatu lutelestijak be batasun orren aurka dagilla. Españako luteleistija ezta bardiña. Europa gustijan diran goraberak, España-barruban ikusten doguz.

Eguraldian Apirkako beruak eta zero urdiña dira. Eta an batzen diran igalijak eta notin-arpegijak aldakuntza andijak daukoez galizitarren-gandik. Oneik barriz catalandarren antzik eztaukoe.

Castillaren antza ete-dauko Euzkadik? Alde batzutan mendijak eta oyan euritsubak, bestie-

tan labak eta gari-alorrak. Lutelestijak edo jeografiak aldatuten dauzan lurraldiak, gizaneurketak sakonkiruago aldatuten dauz.

Abenda bakoitxak bere lorratza agertzen dan arpegijan, odolana eta azurretan. Eliak eztira bardiñak. Catalandarrak euren daukoe. Eta ele orretan elerti ederra loratu da. Guimera, Verdaguera, Maragall, Carner, Costa eta Llovera, Lopez Pico eta abar, ele orren zaindaria dira.

Galiciara jo dagigun. Onek be euren izkuntza daukoe. Pondal, Rosalia Castro, Cabanillas, Lamas, Carvajal eta abar ele orretan idazlari punterengo dira. Eta alde gustijetan entzuten dogu gaztelarren elia ezta izkuntza samur bat.

Euzkadi-ziar gabiltzazanian, ele bakana aurkittuten dogu. Noz-ete sortuba? Eztakigu.

España laterri oso bat, gustiz batuba dala diñuenai, Jaun Goikuak berak sortu ta irasi eban gauzak erakutsiko dautsoeguz. Españarren okerra auxa auxa ixan da.

Gixonak batu gura-ixan dabena, Urtzik ezabala batuterik gura, eztabe oldoztu. Onetan katolikutarra izan yakuz txarrenak. Guzurre dirudi! Irasaliak egiña eztabe ontzat artu.

Bakaldunak ziran, España deritxoen laterri-
peko aberrijen arerijo gorrijak. Areik jausi dira,
iraunkorrik eztagolako Goikua-
ezik. Erkala etorri
zan eta bestiak txarto egin ebena,
eurek zuzen-
duteko asmo onak agertu dabez.

Laterri-pian diran aberriyai Goikuak emon
eutsoezan eskubidiak barriro emon
biar-yakoe-
zela, erkaldarrak itzakaz ezpa-
da egiñakaz
diño. Araudijen iturburuba auxe
dogu. Aberri
bakotxaren muetak zapaldu-
barik goratu biar
dira.

Gura dogun gustija orrein bitartez
lortuko-
ete? Ez, baña elbururako bide
ona dogu. Gauza-
rik onena, ikaskintzako
eskubidiak doguz. One-
tzaz jardun biarko. Euzkadi
gaurko egunetan aul-
duta dago. Urte asko igazi
dira etsayak bere
azpijan daukonetik.

Eta urte orrettan indartsu
ekin dautsoe areri-
jo orreik geure muetak
erailtiari. Elia zapalduta
daukogu; irakastoletan
erderaz baño eztabe era-
kusten; ertzañak arrotzak
doguz. Euzko-usain-
barik, loreak zimelduten
yakuz.

Egun baten ezin geinkez
osatu urte askok
egin dauzan zauri oneik.
Aldija biar. Itxas-sako-

nera juateko gauza gustijak gertaubarik dagon ixontzijaren lokijak azkatuten ba-doguz, zer jaso-ko yake ontzi orri? Uñak eruango dabe euren altzuan eta arkatxetan birrinduko dabe.

Bakian itxi egijozube itxastarrai euren ontzija antolatu dagijen. Gero eztabe ekatxen bilddurrik ixango. Zaurijak osatuten diran artian zintzo ekin biar dogu, lotan egon-barik. Baña erdi-ilik dan bati ez egijozube urrunera juateko agindu.

Araudijak kerizpe gozua egingo dausku ibildaldia onetan. Neketuta gagoz, gudu gorrija dagigulako. Kerizpe orretan atsedendu gadixan apurtxu bat. Dabiltzanai atsegin yakoe olako atsedena.

Bide luze onetan gauzarik onena ba-dakit zein ixango litzaken: artu zugatza sustratik eta eurekin eruatia. Eguzkijaren bilddurrik ez geunke ixango. Baña zugatza atera ezin dogun ezke-ro, abartxu batzun itzala eztagigun bastertu.

Gai onetzaz Azaña jaunak abintza andijak egin dauz. Ekingo dautsogu.

ARAUDIJETZAZ

Eusko-Araudijatzazko zabalkundia egitten ibilli dabiltz. Gipuzkoa-ziar lan onurakorra dagije, ez alderdi batekuak, gustijak baño. Aldundi-ordezkuak be apurtxu bat sutarazi yakuz. Etzan gauza erraza orrek geureganatzia, baño errija-ren adoriak bildu dauz.

Atzo Bilbaon agertu zan «Autonomia» deritxon asterokua. Erderaz ta euzkeraz idazlan berexi ta egokijak dakarz. Euzkadiko gixon garbal eta entzutetsubenak gai orretaz idazten dabe.

Naimenak idoro dabe, ba, elburu bakarra, oraingoz alkarrekin bidez-bide juateko. Oraingozkua baño ezta alderdijen ittunpena. Beste alderdi batzuk araudi orren gozotasunaz asetuko bailirake, geuri etxaku asetuten Euzkadiganako miña.

Abertzalian aberrijagazko zaurija, ezta osakai mirmil bategaz sendatutekua, osakairik onenakaz baño. Azkatasun osuaren orde z geure erri-miña salduko dogu. Oraingoz baño Euzkadiko

semiak araudi ori asegarriztat ei-daukoe. Euzka-diko semiak ez, Euzkal-Erriko semiak edo.

Oindiño eztaukogu geure errijau biar dan mallan. Abertzaletasunak eztauz beratu alde askotan diran anditubak. Eta saldarrak kentzeko, elduta ixan-biar dau. Baña matxinoen egon biar geunkenok, apalen gagoz. Abertzale bati ardura-rik eztautso Araudi orrek. Zergattik, oster, osuan gagoz araudi-alde?

Benetan Euzkadi matte dogunok, bere alde-zko eskubiderik pitin eta murrizena artuteko begi-argi gagoz.

Euzko-Araudijaren bitartez osertza zabalak begiratuten yakuz. Gaurkuan barruti txikerran gagozandarren, bijarkuan esi ori andijagotuko yaku. Eta espetxian dagon gaxuari, atsegin-bide yako, bere estuntzak zer-edo-zer lasatutia. Esku-bak gogor lotuta daukozanian baño errazago apurtuko dauz estuntzak erdi-azke danian.

Ertzaintza geureganatuten dogu araudi-bidez. Nok eztuler orren bitartez, bijarkuan gauza arrigarriak egin geinkezana? Esku-utsak doguzala, ezkeinke ezer egin, utsagaz putza baño eztalako egitten. Baña egunari bere etorre-

rea itxaron dagijogun, ekarriko daulako beria. Gaur eztatorrena bijar elduko yaku. Aberrijak eztaukoe larririk...

Ertzaintzak garrantzi andija daukola, itxubak be ikusiko leukie. Baña iraskaltza geureganatzia, ezta auntzaren gaberdiko estula. Zugatza ta umia, gastetan, esaera zarrak. Okerra zuzen lego, gastetan zuzenduba balego.

Umiak kendu dauskubez españarrak, euren eskubetan euki dabezelako ikastolak. Euzkerea ortixek garbitu, erail dabe. Ikastola bakotxa ostuten ixan dauskubengan, euzkerearen arresi bat lurperatuten ixan dabe.

Etxia lurrera datorrenian, tantayakaz-edo zuzenduten dogu. Batta arri barriak imiñi be. Ezin iraungo dau barriztau-barik.

Orainguan euzkerearen etxe edo jauregija lurra jota datza. Barrero iragi biarko dogu. Lanari gagozan. Baña lan ori alperrikua ikastoleak ezpadoguz geureganatuten.

Biarrena dogu orixe.

Araudi-bidez ikastoleak geure eskubetan dagoz. Edo-giltzak geureganatuten doguz. Ameari baña zirkin deragijo beste oldozkun

batek. Semiak urrun juaten diranian, gudaltza egunetan, negarra ugari ixaten da.

Lagi-Zarraren jaube gintzazanian, olakorik ez, gero baño. Zenbat euzkotar eztira jausi atzerriko landaetan?

Beste askok txinditza onak emon dauz gudaltzatik semia azke-atara nairik. Zer esango ama batek bere eskubetan dagola oker orren zuzenbidia jakingo baleu. Pozik eleuke eskuratuko bide ori?

Araudi-aldez lan-dagijanak, semiak gudaltzatik azke aterateko lana dagi. Gudari juango dira gero be, baña eztira urtengo Euzkaditik. Geure aberri-mugak eztabez igaroko. Euzko-Araudijaren onureak elduten diran tokittik at, ezin urtengo dina.

Negar asko legortuten dira gauza onen izparrak jakin-ostian. Gai onetzaz ittaun batzuk dagiz «Argia» asteroko txukun eta punterenguak. Galdera orreik amentxe dozuez bizkayeraz:

Araudi-barik, zelako ikastolak ixango leitikez Euzkadin? Araudi-barik nora dua geure euzke-rea? Nora juango leitikez geure gastiak gudari? Nortzuk ixango leitikez agintari geure Aldundi ta

Udaletxietan? Zelan aldeztu geure kistar-egiñak auzi etxietan? Araudi-barik zenbat eragospen eta zoztor eleizkixunak eta ibildeunak egitteko?

Geure errijaren bijotzeragiño sartuko leitikez irakasle-arrotzak. Eta geure lur-aldera etorriko leitikez gixonik gaiztoenak? Tamalgarrija ixango yaku Araudi ori geureganatu ezitia. Lepalmen andija dauko araudijaren aurka egitten daunak.

32-VI-5

ARAUDIJETZAZ

Askoren otsak iñoren gentza galdu ei-darua. Eta gogo batzuben gentza keskatu da-edo, agozabalen otsak-bide. Gaurkuan eztabe batzuk euren itzetan zentzun andirik jartzen.

Baña itzetan galgia jarri biarrean gagoz. Minpuntera yatorkuna esan ezkeru, baten ezeze birritan kalte-egingo dautsogu irugarren bati. Ganera, garrantzirik daukonan esaten dogunak, itz-labur ibili biar gara.

Entzute andija daukozu? Zeure itzak begoz astun, ez arin. Zeure itzal orrek bestien begijak estalduten dauzalako.

Beti geure adimenetan euki biar geunken arau zuzen au, gaurkuan derrigorrezkua dogu. Araudijatzaz entzunikuak, itz oneik idaztera biartu nabe. Onek au azaldu daruasku, bestiak a. Gitxi, gauza baten jarrita dagoz.

Neure begijakaz ikusija dodana, izparringi baten; arrotzak ezpegija autarkirik emon araudi-aldez, euren galpida ixango yakelako. Orixe, guzurretan guzur biribila! Baña idatzi daunari

ardurarik ez. Españatik etorri diranai etxake ezer jasoko Araudi jaren bidez. Erbesteko semiegazko artu-emonak ondo aldeztu dira, baña obeto euren bixitzak aldeztuta.

Araudija egin dabenak kistartasuna ezeze ludijon gaurkoetan nausi diran gogayak begi-aurrez euki dabez.

Euzko-semiantzat onik etorten ba-da araudijakaz, emen diran erbestetarrentzat be ixango da on ori. Argi irakurri dagikezuna dozu, araudijaren ataletan. Erbestetarrak laster eurekanatu dagikie euzko-ixatia. Biar leitiken baño lenagodedo. Amar urte baño eztauz biar arrotzak euzko-ixakerea lortuteko. Baña lagi-bidez arte bi naiko dauz euzkotar ixateko.

Baña epai-tokijetakuak ezin-ixan dattekez geure lurraldian, euzkerea jakin-ezik. Araudijak arresi gogorra jartzen ei-dautsoe. Baña araudija ondo irakurri daunak orrelakorik ezin esan. Araudijan euzkerea eskatuten dala? Baña euzkeraz itz-egitten dan errijetarako baño ez.

Zoritxarrez toki gitxijegitten euzkerea nausi dogu. Beste errijetan eztabe biar euzkerearik. Baña araudijak onegaz, euzko-semian alde-dagi.

Bertokuari orren bitartezatiak zabalduen yakoz. Euzkerea dagikenari bere errijan latari edo idazkari ixateko bidia zabalduen yako.

Uxela euzkerea jakin-biarrak esi gogorak gustijai jarriko baleuskijoez! Urrek ondoen erakutsiko leuskigu, orain baño barreyagotubago dala geure elia. Araudijaren katiak eztabe iñor lotuko.

Bildur batek joten gauz. Orren bidez ate zabalegija ez-ete dautsoegun iriko arrotzai. Geuretzako onurak eta beste batzuk geyago lortuten dabezelako. Eztago iñundik, ba, kanpotarrenganako gorrotorik.

Burgostar bat idoro neban txaidez-ziar. Aldirik bai-da ezaututen dodana. Gai onetzaz izketan asi gintzala, asarre bixijan jarri zan Bilbaoko izparringi baten aurka. «Araudijaren ala ezin esan dagikegu ezerrtxu», ots-egitten eban. Arri-tu nintzan itz areik entzuterakuan. «Zegattik zagoz araudijaren alde orrelako adoriagaz?» «Gaur Araudi osua irakurri dot eta beratzaz oldoztu dot. Alde gustijetatik onurak baño ezto-daz idoro. Uskurtza aldeztuteko beste biderik eztaukogu. Bakian bixi gura badogu, araudijagaz

ondoan ixango gara. Naikorik dala uste dot katolikubak araudialde egitteko, irakastolak geure ardurapian eukitia. Baña politikia barruban sartuta daruenak eztabe olakorik oldoztuten. Euzkotarra enaz, baña aurrengo ibiliko naz araudijaren alde lan-eta-lan. Neuretzat eta neure semientzat gauza obarik eztot lortuko iñundik».

Arrotzak olako izketak egin daruez, baña euzkotar txarrak eztabe entzun gura tautik.

Agertuko baleuskigubez, araudijaren aurka benetako zegattijak, baña uskurtzaren etsaya dala baño eztiñauskubek. Orain ortik ezin date arririk jaurti. Nora jo eztakije. Geure ogasunen aurkakua ei-da. Eta onetzaz oldoztu biar dau katolikuba danak? Ogasunaen galkuntzarako balitz be, aldeztu biarko geunke geure ziñismenaren, aldezkua litzakelako.

Katoliku dirala dirauskuben izparringijak alde orretatik eleukie aurkarik egin biar, baña, El Debate, ABC, El Nervion, La Constancia eta abar uskurtzaren aldez-barik beste zeozer billa dabiltz-edo.

Gaitz bi diranian, txikijenaren alde egin biar dogula, ondo dakigu. Araudija ezta gura geun-

ken aratza, ezta nai dogun bidezkoa, baña España Lagijen onduan, deunak egiña dirudi. Lagi bijetarik bat euki biarran gagoz. Zeñegaz geratuko gara? Uskurtzaren aurka amorruez egitten daunagaz? Obe ez-ete yaku geure onegaz geratu?

Jaun-Goikuaren alde ezala biar litzaken eran aldeztuten? Baña bestiak legez aurkarik eztagi. Atsipe biderik eztago emen egija baño. Borondate onekuak ikusi dabe egi au. Eta borondate onekuai itz-egin gura-dautsoegu.

32-VI-7

ARAUDIJETZAZ

Araudijak adizkide asko idoroten dauz. Geyenak konturatu dina, bere bittartez onura andijak yatorkuzala ulertu dabe.

Baña arerijo batzuk, ez askorik, euzko-araudijaren aldez jarri dira. Baña gaurko etsai oneik lagaten ete-dabez gaurtik, araudijaren bittartez lortuko doguzan onurak? Auxe ittanduko neuskijoe: Eusko-Araudija lortuten dogunian, aurrera-kuntza gustijai atzia-emongu dautsoezube?

Ezetz erantzun. Baña euren antzekuak bagintzaz, amasarik artzen, be, ezkeunkijoe utziko. Neure ingi-artian daukodaz Euzkadin argittalduten diran izparringiak, bijarko ondo etorriko yatazalako.

Oran amorru bixijan dagozanak, araudijaren aurka, gero etorriko yakuz, katolikubak alkartu biarran dagozala-ta. Eta abertzaliok baño be nausikiruago itz-egingo dabe. Eurena entzun biarko dogu, Jaun-Goikuak bere ordezeko jarri dauzalako ludijon.

Orrein ekintzak, eztira bidezkuak, bijurak baño. Euzko-Araudia aurrera badua, eurek pozik ixango dira, gero buru-ixateko. Baña araudi orrek aurrera urten-barik kok-egitten badau-edo, bada-ezpadan geldi dagoz.

Eskubak garbittuten dabez.... baña Pilatusek be orixe egin eban.

Baña gerokuak utzi dagiguzan, geure esku-betan eztagozanak diralako. Orain zelan jokatu biar dogun, adiraldu dagigun. Emeretzigarren eundijan, laterrija zan gauza gustijen buru. Hegel, doistarrak bere aberriko buruzagijai atsegin-egitteko, jaungoikotu eban laterrija. Gustija yatorke errijai laterrijaren bittartez. Deustch eta Italian ikasbide oneik ontzat artu ebezan.

Baña Europa-Gudu-ostian, barriro aberriak konturatu ziran, laterri-arazuetan ixakijak erakutsi dauskun lagi-bidez iragi-biar dirala laterrijak. Gudu arek erakutsi eban bakerik ezin zaindu dagikegula, erri-artian benetako lagijak ezpadira. Laterri aundijak baño obeto laterri-txikijak arteztuten dabez arazuak. Gixartekiko lagijak ontzat artzen dabez erri gustijen muetak eta ixa-

kereak. Españako lagi-barrijak be ludijan barre-yatu dan erea ontzat artzen dabe.

Bakia nai dabenak, bake orren salneurrija zein dan jakin biar dabe. Beste bat zapalduten dogunian, bakia nai badogu, ezkagoz bide zuzenian. Azpijan danak zarata, ots-egingo dau indarrez. Ots orrek ixilduteko bide bat baño eztaukogu. Edonok daki bide ori zein dan: azpijan dagonari azkatasuna emon.

Ele batek jasarpentak andijak jasan badauz. Beste izkuntza batek zirikadak eta laiduak entzuten badauz, irakastoletatik at jaurtitten badabe, zelan eztau zarata egingo? Ele orrek erijotza matte ezpa-dau, al-daun eran ots-egingo dau.

Zelan lortuko dogu izkuntza orren bakia? Berari yagokozan eskubidiak emon-ostian, artian ez.

Lagirik iñun badago, lagi orreik euren arabak ontzat artzia gura-ixango dabe. Baña beste lagi batzuk etorten bayakoez azpiratu nairik-edo, orduban didar-egingo dabe.

Orixe da orain jazoten dana. Euzkotarren izkuntzeak, eliak, lagijak, otturak eta edestijak beste ele, izkuntza, lagi ta otturen jasarpentak

sentitten dabez. Zauriz jositta dagozan ezkeru,
ezin ixilik egon.

Gai onetzaz euzkotarrak baño geyago oldoz-
tu biar leukie españarrak. Bakerik gura badabe,
onetzaz begoz oldozlari. Euzkotarrak gura-ixan-
arren ezin ixilik egon zauri baten mingotsa senti-
tten dabelako. Eurek ezin egon dattekez abo-ixi-
lik, eliak eta lagijak didar-eragiten dautsoelako.

Baña españarrak bakia gura ei-dabe. Zuzen-
du begije, ba, emen egin daben okerra. Orduban
bai, benetako bakia idoroko dabela. Pozik euren
adizkide ixango gara, baño geuria artu-ostian.

Oldezkun oneik apurren bat sartu-edo dira
españarren burubetan be. Eurek be euzko-arau-
dijaren alde dagoz-eta. Abertzaletasunak ikusi-
bazo dautso arazo au!

Gustien bakerako, araudi au gauza ona dogu.

32-VI-10

EUZKADIKO IPUÑAK URIRA

Soluak eztabe ogirik emoten, kardu ta zalgiaz baño. Txiliñai eragitten dautsoela, an-emenka, muruz-muru begi urdiñak daukezan beyak dabiltz. Bedar-punterik, iñun idoroko, baña bedanak eztago.

Eguzkijak euzko igataya darabil latxin, lan-txar ta zelayetan.

— Euririk ezpa-da, geuriak egin yon —emazte onari esan eutson senarrak. Baña euri tantarik be etzan eldu beste ila bijan eta gosiak jo ebazan baserriko atiak. Gosia zer dan ete daki-xu? Azurotsa darabil beragaz ta begijak okertuta daukoz. Miralde-basetxera erdu, antxe dakuskezu gosia zer dan-eta.

Lau ume-kondo, yantzi zarrakaz, aragi loyak erdi-estaldurik, moltsuan datzaz. Batak ogija eskatuten daun-artian, bestiak mokoz zikindutako ogi-atalari zatija kenduten dautso. Ankan-ganian egon-eziñik, noiz jausiko dabil katu bal-tza, lupetzez uliak eta narruko utsuniak agiri dauzala.

Katubak eztau aspaldijon senti sukaldeko jaki gozoen usañik.

Sutonduan egur bi, oztaz-ozta dagoz, gar apurtxu bat egitten daben-artian, lapiko zarrean egosten diran, gatzik ez urdairik-bako indabeak.

Orijorik eztabe ikusi etxe aretako azeak. Arean be ez! Emakume argalak ugatza damotso altzuan daukon umiari. Oyal-artian estalduta dago umetxuba, ta bere aurpegirik ezta ikusten. Baña legor dira bularrak eta ezin señaak titirik edan.

Beyai jatekuak-billa, goroztijak ekarten juana dabil attea. Mendi-ertzetan be legortiak iruntsi dauz orrijak eta bedarrak. Aberiak baña jan-barik ezin bixi.

— Amea, gose naz —negarrez dirautso ume batek.

— Gose, neure laztana, gose? —baña ameak eztauko zer emonik, gaxo ori!

Altzuan eukon seintxuba, luak artu dau ta siaska txirora darua. Eragin apurtxu bat eta lotan datza. Gero belaunbiko jausten da lurgan-ian eta otoi-dagi emakume aratzak. «Goiko geure Attea, emon egiskuzu eguneroko ogija.

Neuretzako eztautzut eskatuten, neure semientzako baño».

Mutiltxu zarrenak, amearen nekia ezaututen dau, ta gose danarren, ixilik egoteko bestiai eskatuten dautsoe. Ume arein abuak-barik, begi-jak jan-barik eguazala irudijan. Begi arein zorroz-tasuna!

Baña soluak elkor ta agor egozan. Urteroko sarija kobretan erduten dana, an agertu zan. Begi gogorak eukoizan. «Eztaukogu zegaz ordaindu», esan eutsen, baño txindiz bururaño zan arek, basetxetik at urten egijela esan eutso-en. «Ordainduten eztaunik, eztot gura neure etxian».

Egun gitxi-barru etorri zan uriko gixon bat. Senarratzaz ittandu eban. Eta kortan aberiai janarija emoten eguan gixona, etorri zan atadira.

«Ementxe daukozuz epalliaren ingijok. Amar egun-barru etxe onetatik urten biar-zara. Ementxe ixenpetu edo pirmau egixu.» Eta baserritar gaxuak itzik be egin-barik ixenpetu eban. Zertarako zarata-egin? Alperrik ixango zan-eta?

Ildegira daroen txala aren antzean, begi-apalakaz egitten eban bestiak esaten eutsena. Gosiak eta nekiak kokolotu eben.

Egun gustijan negar-egin eban emaztiak. Umiak ixilik egozan zer-edo-zer jatozala igarri ebelako. Eta atteak ez eban bururik jaso. Atadijan, arki baten ganian jezarritta, ordubak-eta-ordubak igaro euzan. Gaba eldu zanian barrura sartu ziran eta negarrez agurtza deuna edo errosarijua errazau eben.

Baserri baten be errosarijo deuna errazau-barik eztira geratuten. Goxian esan eutson senarrak.

— Ene emazte ori, ez-ete dakixu? urijan gustijak irebasten eidabe ogirik asko. Ogittarako ezeze jantzittekko be an irebasten aabe.

— Ume onek gose-barik ikustekotan, ludi onen azkenerarte be juango naz. Mendi-alde onek bere sabela legortuta daukon ezkerre guzuzan emetik

Etxian ziran ollo batzuk zeyan saldu ebezan okelarako. Oiak ezik, beste gauzak zetarako ebezan, ba? Urijan basetxeko tresnarik ezta biar-ta.

Kortia geratu zan abere-barik beyentzat jaurtittako azken bedarrak askan zirala. Marmareak euna non egin eukiko eben, batta gautxorijak be. Goxaldia lora ganetan ebillan intza ixuritten, txorijai lepuan taka-egin eta abijak utsik itxitteko. Sollube-onduan etzan zerurik ikusten, goxa zalako ta lañuak alderdi gustija estalduten ebazan.

Bitxabal-ziar sendi bat etorzan. Burdi-ganian oe bi, arasa bat eta umiak. Yantzi barrijakaz etorzan umiak eta pozik. Ganera goserik ez eukoen. Belate ganera eldu ziranian, azkenez begiratu eutsen euren erritxubari. Senar-emaztiak oso ittun, umiak barreka. Ez eben ulertuten jazokun aren garrantzija.

Mungiako geltokira eldu ziranian, utsitu eben burdija ta oe ta tresnak sartu ebezan bultzijan. Goxegi eldu ziralako an egon ziran begira ordu bi. Egun a lako ederrik ezta agiri iñoz ibarretan! Zeru garbijan odeirik etzan agiri.

Geldiro-geldiro bultzija eldu zan. Urira esniak saltzen datorzenak eta barazkijak dakarzenak bakarrik egozan geltokijan. Zaratak eta txilijuak ziran!

Orduerdi baño ezaban bultzijak an egin. Gero fu-fu-fu-fu urten zan geldiro. Urira etorzan sendikuak ittun. Zer idoroko eben? Iñor ezaban ezaututen, etxerik ezeuko en bixiteko. Senarrak bere eskubengan itxaropen osua eukon.

Bultzija uriratu zanian oleak erakusten eutsoezan euren ke-zulo luziak. Ibai-ertzan egozan landola andijak. Ikatza ta burnija agiri ziran. Ixantzi andijak be antxe egozan. Umiak senti eben poza! Baserrijan alakorik etzan ikusten-eta.

Gero txaide-ziar yentiak eta yentiak. Ara-ona arin ebiltzazan. Alkarri agurrik be ez eutsoen egi-tten. Onexek ikeratu ebazan umiak. Eta uri nau-siko geltokijan, Bilbaon nora jo ezekijela aurkittu ziran...

Baña lan-egin gura daunak idoroten dau biarra. Eta Bilbaon dago orain euzko-sendi bat. Alkarren ganian bixi dira yentiak etxietan batez-be langilliak. Txanikeriz beterik dagozan txaidietan emakume loyak baño ikusten eztiran ertzetan, bixi dira gaxuak.

Gixonak ondo irebasten dau. Goserik eztauko. Ola andi baten lana idoro eban. Basetxietzaz ezta gomutetan askorik. Baña umiak geruago ta

ittunagoz dagoz. Ogija jaten dabe, gura daben bestian, baña eztagoz pozik.

Emakumia be inun dabil. Etxako agiri lenago-ko alattasuna. Mutillak eskolara duaz baña erderarik eztakije ta astotzat daukoez. Gustijak barre-dagije euren lepotik. «Bobo» edonok esaten dautse. Espetxera juango baliran, ikastolara duaz.

Etxe aretan sartukeran baserriko ikastola politta gomutan yakoe. An gustija euzkerez itzegitten eben. Zugatzak egozan ikastola-onduan eta udean sagarrak jaten ebezan. Adizkidetxunak eukezan, orain osterata bez.

Irakasliak be zigortauten dauz erderarik eztakijelako. Etxera duazanian negarrez sartzen dira.

Baña etxian eztago poztasunik. Ogija bai, baña zerurik be ezta ikusten. Tellatu-onduan dago euren bizitokija. Ez landarik eta ez zugatzik.

Areik ittun ikustian, arrea be ittun dabil, baña nekerik geyen egitten dautso seme txikijak. Altzuan umia ebala sarri urteten da eguraztuten, baña umiak eztau barrerik egitten. Gaizkinantzeko gixonak dabiltz txaide-ziar. Eta umetxu-

bak eztau poztasunik. Jostallubak diran leyetara elduten diranian, barre-egitten dau, alai, an diran zalditxubak ikustian. Baserriko bixitzea-edo gomutara yatorko. Zaldijak eta aberiak poztuten dabe umia!

Eta or bixi dira, uri andijan, euzko-sendikuak. Zarrenak aitzu dabe euzkerea. Eztaukoe euzko-umien antzik be. Erderea baño eztabe egitten orain. Ogija jaten dabe, baña galdu dabez goguak. Uri orrek, ba, ogi-ordez goguak gura dauz.

Baña urira juango dira barriro be, baserrijan janaririk eztaukoen-artian. Olaetako kiak etxakoez atsegin, baña biar-ixanak dakarz ke-artera!

32-VI-11

EUZKO-ERRI JAKINTZA

Gai asko darabilguz geure idazlanetan eta gustijak egokijak dira euzkerek buruba jaso dagikentzat, baña geure lanak orraztuten alegindu gadixan. Idazliak uste dabe euren arazua erriizpartxubetan esi daguala. Bildurrak joten dauz beste gai batzuk ikututeko.

Gaurkuan erakutsiko dautsegu zer egin dagikien. Geure euzko-errietan gauza jakingarriak dira. Abestijak, esaereak, ipuñak, edestijak, basatxonuak, mendi-ixenak, baserri-ixenak eta abar. Gatxa-ete yatzube errittarren abestitxu bat EUZKADira bidaldutia? Errijan entzuten diran bertzo batzuk batu ta ingitxu baten zuzendutia ezta neke andirik ba. Baña idazliak ezpegije aldatu ezertxu be. Entzuten diran legetxe, idatzi begijez.

Sari batzuk jarriko doguz iru illabete oneitan gauzarik onentxubak bidalduten dabezenantzat. Euzkerek aurrerakuntza andija artuko leuke euzkel-idazliak batuko balebez euren errietako esaereak, abestijak eta abar.

Bedarraiz zelan deritxoen, txorijai. Gai egokijak benetan! Bestiai ikas-bidia erakusteko, ementxe jarriko dodaz Mungian bildu dodazan baserri gustijen ixenak. Gustijak ezpa dira be, geyenak ementxe daukodaz batuta. Itzorkun gayetan dabiltzanak idoroko dabez ixen polittak. Neure ingitxuban diran eran, ba, jarriko dodaz. Arlo onetzaz zelan lan-egin idatziko dogu.

MUNGIAKO BASETXIAK

AUZOTEGIJA

MORGA

- Basetxia
- Gabatika
- Zubibarra
- Gordia-Auzokoa
- Gordia-Santurren
- Menika-Goikoetxea
- Zabal-Etxebarri
- Golzarri

LARRAURI

- Giñatitxaga
- Irabientxu
- Zumetzaga
- Etxebarri-Aurrekoa
- Erkoreka-Goikoa
- Sardoal-Etxe
- Anielena-Etxe
- Agirretxu
- Ametzaga
- Olalde
- Trobika-Olea
- Landa
- Tobar
- Urikoetxe-Goikoa
- Arestizarra
- Ibarondo
- Ibaizabal-Errota
- Trobika-Etxe
- Madariaga
- Abio
- Barrena
- Errekalde
- Andirengoetxe
- Etxebarri-Aurrekoa

DERIO

- Zubibarria
- Legazua
- Lañe
- Daño-Beko
- Aresti
- Menika-Bekoetxe
- Anbeko-Etxebarri
- Zubiaur
- Goiko-Errota
- Ezkerritzaga-Bekoa
- Loaga-Torre
- Otxaran
- Montorre
- Aburto

EMERANDO

- Elorriaga-Goikoa
- Bidekuruzeta
- Zubitxueta
- Oruetxu
- Agirre
- Iturriaga
- Elorriaga

- Ereñozaga-Goikoa
- Beaskoetxea
- Ugarte-Goikoa
- Mendieta
- Eleizpuru
- Ugalde
- Bidekurtze
- Iturriko-Errota
- Zorrotxena
- Muruaga-Bekoa
- Oarre
- Erdizubi
- Martategi

Derio, Morga, Larruri eta abar Mungiako auzuak dira. Uri-auzuak deritxagube. Emen diran basetxiek Mungiakuak dira. Derio eta Morga erriak diran-arren. Erri gitxi dira Mungiak aña, uriauzo daukonik. Bakotxaren onduan diran mendiak, zeintzuk diran be, azalduko dogu, gero iturriak, zubijak, basatxanuak eta abar. 32-VI-14

EUZKO-ERRI JAKINTZA

Atzoko arluari jarrai, gaur be Mungiaiko base-xien ixenak jarriko doguz. Euzkel-idazliak ikusten dabe lan nekeza eztala emen darabilgun au. Baña alperkerijak-edo atzera eragitten dautsoe. Erriko izpartxubak idaztia errazagua da ixan beta.

Euzkerekak, barriz aurrerakuntza ederra egingo leuke lantxu onegaz. Eta zein ixen polittak idoroten diran basetxien ixenetan. Mendi-iturri-landaetan be berebixiko ixenak dagoz. Gai onetan zale-danak ezin daikez gustijak baña beraganatu. Ezer eztakigunok bilddu dagiguzan bestiak gero lan dagijen. Atzoko erraskadiari beste oneik josi dagijoguzan, ba.

MUNGIAKO BASETXIAK

AUZOTEGIJA

BILLELA

— Izagirre

- Torrontegi
- Landetza
- Billelatorre
- Olabarrieta
- Birle-Goikotxe (1)
- Bidera
- Etxebarrieta
- Labetxetxu
- Zugatzaga
- Errementariñe
- Zugazti
- Elortza
- Gondraondo
- Gondra
- Jauregi
- Ibarra
- Ibarzabal

BASOZABAL

- Goiri
- Aretzagane
- Enderika
- Anielena
- Artetxeta

- Madariaga
- Abadena
- Mariena
- Axena
- Ibarburu
- Atxeko-Etxe
- Urtiñe
- Artekoetxe
- Uriarte
- Aretxaga
- Oletxe

TROBIKA

- Agarre
- Zubieta
- Landaberde
- Sarria
- Makuaga
- Elordui
- Agarre-Goiti
- Larragan
- Santamarina
- Landeta
- Oruetatxu

MAUROLAZ

- Laukaritz
- Ansuena
- Mantulitz
- Maurola-Etxetxueta
- Zabalondo
- Txomin-Errandotxuena
- Maurolagoitia
- Zabal-Beko
- Artebakarra
- Maurola-Galayena

ATXURI (2)

- Etxezar
- Onaindi
- Goitia
- Jondegoyena
- Kortsesena
- Legorburu
- Etxebarri
- Ormaetxe
- Estrata
- Aurrekoetxe

- Lopena
- Giberritzaga
- Matxuena
- Iturburu
- Intxausti
- Ayartza
- Bastiguren
- Bengoa
- Landetxo
- Garaizar

(1) Birle-Goikotxe deritxo Billela uri-auzuan dan basetxe eder bati. Neure sendikuak dira etxe orren ugasabak. Mungiako gustijok Birle esaten dautsegu erderaz Billela aspaldijon deritxoen tokijari. Orain Torre-Billela gustijak dei-egitten dautse Mungiako etxe ederren bati. Baña Billela-Torre basetxiak beste era au baño lenagoko antza dauko. Mungiako txaide zarrenari be Torre-Billela jarri eutsoen, baña, bestera obeto-edo.

(2) Atxuri au ezta Bilbaoko Atxuri gero. Uri-
auzo au bultzijaren geltoki-onduan asi ta Zabalondo deritxagun bide-ertzeragiño eltzen da. Ibar-txukuna. Bertoko lurra oso arritxuba da. Arraskalada arrija dago.

EUZKO-ERRI JAKINTZA

Irugarren sail au, bestiak baxen jakingarrija dogu. Basetxe onein ixenak dirala-ta, beste batzuk be itzartu dina curen lantxubak egin-nai-rik. Erri-jakintzari yagokozan lantxubak artu doguz.

la, ba, gustijak ekitten dautsoen arlo oni

MUNGIAKO BASETXIAK

AUZOTEGIJA

FRUNIZ (1)

- Batiz-Erdikoa
- Etxetxikerra
- Aizpurua
- Errementarietxe
- Solobarrieta
- Endemaño-Andie
- Bekoerrota
- Lomorika
- Andiko-Beiti

ITURRIBALTZAGA

- Manubarrena
- Iturritzar
- Larreatxu
- Matiena
- Garayeta
- Legarda
- Urraga
- Egia
- Bartoena

ATEKA

- Mantzorriz

GAMITZ

- Bolintxu
- Laurika
- Burgozarre
- Gañuri
- Landabeko
- Amonuri
- Ugarte
- Elorrietatxu

- Elorrieta
- Kaperiaga-Andie
- Ziarreta-Atzekoa
- Amutzarri
- Asuburu

LLONA

- Atxutegi
- Astiena
- Ditxena
- Txarranda
- Laretxe
- Masustegi-Albarena
- Axpe
- Bolua

MARKAIDA

- Iturralde
- Andikoetxe
- Izkoa-Bekoa
- Barandika
- Kortazar
- Arro-Ondotxu
- Elexalde

- Izkoa-Goikoa
- Mendibil

MARUTXAGA

- Artamonitz
- Urbietta
- Portume-Goikoa
- Lergundiena
- Marutxaga
- Bengoetxe
- Errota-Barri
- Txatximieta
- Iketza
- Artadi

ELGEZABAL

- Etxatxu-Goikoa
- Errandoena
- Mentxaka
- Bide-Etxebarri
- Abaroeta
- Ametzaga-Beriaga
- Agirre-Mitxelena
- Landesena

- Astobieta
- Landako

Uarra, Fruniz edo Frunitz idazten dogu. Baña zer dikur erriixen onek? Au nondik nora sartu yako, Purunitz-ete? Edo Murunitz? Ezta-
kit. Dakijenak gai onetzaz idatzi begi. Mun-
gia-aldeko mendi-erri-iturri-ixenetan (e) «iz»
edo «itz» azkitza idoroten dogu eurrez. Asi
Urdulitzen eta Laukinitz, Lemonitz, Gorkitz,
Gamitz, Frunitz eta abar aurkittuten doguz
Gernikatik ziar. «Itz» onetzaz edo «iz» etzaz
Garate jaun argijak idatzi eban orain alditxu.
Gauza polita egin dagokie mendigoxaliak
inguru ori aztertuten.

32-VI-16

EUZKO-ERRI JAKINTZA

Mungiako basetxien ixenak iru sail luzetan argitaldu doguz. Gaurko onegaz amattuten dira.

AUZOTEGIJA

ATELA

- Olatxu
- Urrutikoetxe
- Gasanda
- Atekena
- Olabitarte-Torroto
- Loaga-Torre

ARRABAL (1)

- Borda
- Mantxoeta
- Iturri-Barri
- Billabaso
- Amaga (2)

(1) Arrabal deritxon alderdi au, Mungiako bekaldian dago. Torre-Billela sendijaren jau-

regi-onduan. Baña euzkeraz Arnagaz deritxoe.

(2) Arnaga deritxo bide-ertzan datzan base-txe bateri. Nori ixen onek eztautso bururatu-ten, Bidasoaz andik dan Amaga etxia?

Edmund Rostand olerkari ta antzerkigille ospatsubak bere azken egunak Amagan igazi euzan. An sortu zan «Chantecler», L'Aiglon gero, ta azkenez Camboko bere Amagan ilzan Euzkadiri eutson mattasuna olerki txukunetan agerturik. Euzko-illobijai zuzendu eutsoen olerkirik ederren bat .

Mungiako basetxe-ixenak asko dira. Batzuk aitzu yataz-edo. Aleginduko naz okerrak zuzenduten. Osuan ona zenbat auzotegi diran erri onetan:

- Fruniz
- Iturribaltzaga
- Ateka
- Gamitz
- Llona
- Markaida
- Murutxaga
- Elgezabal
- Morga
- Larrauri
- Derio

- Emerando
- Billela
- Basozabal
- Trobika
- Maurolaz
- Atxuri
- Atela
- Arnagaz edo Arrabal

Uri-auzo oneik, onelaxe deritxegu, gaur ezti-
 ra osuan Mungiakuak, erri orretan ixan diran
 udal ganora-bakuak galdu dabezelako Derio,
 Fruniz, Morga eta Marutxaga aldeko basetxe
 batzuk banandu dira. Uri-auzo oneitan euzkera
 bardiña eztarabilgu, aldakuntza polittak daukoz.
 Jakingarrija litzake ziatz aldakuntza gustijok
 batutia! Batzuk Deriotikuak Txori-Erriko euzke-
 rearen oguzkerea darabille, Morgarrak Gernika
 eta Larrabetzuakoena. Emerando eta Larrauri-
 kuak, Bermeoko bitartekotasun txikitxubak dau-
 kez. Marutxaga aldekuak Lemonitz eta Gaminitz-
 ko euzkera itxusijaren eragipenak.

Mungiako uri-auzuak zelan batu ziran erri
 onegaz jakitia, edestijari yagokona da baña ipuin

txukunak entzuten dira batasun orreitzat. Base-txe-talde oneitan basatxono bat edo bi dira. Laukaritz eta Larraurain txadon ederrak.

Santiago de Compostela urira juaten ziran bidaztijak iru basatxono utzitten ei-ebezan euren bide-ertzetan. Sarri entzun dogu Francetik etor-ten tiran bidaztijak Mungiatik igaroten zirala, baña gai oretzaz ezer be eztoz idatzitta ikusi. Neure ibittaldijetan baña bidazti orreik utziten ebezan basatxonoen lorratza idoro dot-edo. Mariñe, Jagoba eta Martin deunai opal dutako basatxonuak ei-ziran. Iru deun oneik, ba, basatxono bat dauke. Elordui ganian, Laukaritzen eta Atxurain. Ete-zan toki orreitatik bidaztijen bidia?

Martin deunaren basatxonuan lapurrak ostenduten ei-ziran eurrez. Mungia, lapur gusti-jen abija, entzun dogu sarri, baña lapurtokija deun orren basatxonua zan.

Ementxe argittalduko dodaz basatxono gusti-jen ixenak. Tamalez Berreagatz-ganian basatxono eder bat izan zan, an dira arri batzuk, be, baña Zamudioko diran basetxe batzuk eta Laukaritzkuak alkarren aurka ekin eutsoen, basatxono orretzaz eta gaur eztago ezertxu be.

Txatximenteko basatxonua oso ezauna da. Orretzaz asko idatzi dabe Etxegarai, Vallado ta beste idazle batzuk. Gauza ederretan ederra dogu. Baña Atela aldeko basatxonua be txukuna ei-zan. Orain eztago toki aretan basatxonorik. Mungiara urak ekartian-edo lurreratu eben. Erriko idaztittegija agiritokija erre ziran, bai? eta lan gogorra gauza andirik aurkitutia. Txadoneko idaztittegija be erre zan. Irureun urtez-gorako gauzak baño ezin idoro geinkez. Torre-Billela etxequak irureun milla edo anei «maravedis», ertxadonari urtero emoten eutsoezala be ikusi dogu. Ganera egunero urrezko ontzi baten ardao zurija ekarten eben ertxadonera jauparijak jaupa esan egijentzat.

Atalka azalduko doguz izpartxu oneik. Gaurko naiko dira.

32-VI-17

J. SAROIHANDY

Olantxe idazten ixan dau bere abixena Saroyandi jaunak. Francekua zala esanen dabe gixon jakintsu au, Francen jayua zalako, baña odolez euzkotarra zan. Orain urte asko dira. Gernikan Euzko-Ikaskuntzaren batzarra egin zanian an ikusi geban. Txikija nintzan eta enintzan arduratu an ziran gixon ospetsubak ezaututen.

Baña oindikarren Saroihandy jaunaren aurpegija zelakua zan begi-aurrian daukot. Ordutik R.I.E.V. aldizkingi ederran irakurten izan dodaz bere lanak. Laterazko adiralketan sartuba zan, baña geroxe euzko-adiralketan asi zan.

Pirineo aldian diran latera-seme diran izkuntzatzaz lan ederrak egiña da. Francen ixan diran gixon ospetsubenatariko bat zan. Bere barririk eztogu jakin, baña «Courrier de Bayona»n izpar baltzau irakurri dogu. H. Herelle euzkeltzale jakintsubak idatzi dau Saroihandi jaunatzaz. Gibeletik gexorik eguan aspaldiz ta Parisko erittegi baten il zan Bagila-24gn.

Gernikan ixan zanian Oihenart edo Oyenart jaunak elitiztijatzaz eukoizan gogayatzaz jardun zan. Gero euzko-aditzatzazko lar sakonak egin ebazan Iberiako itzorkunetan irozota.

Menendez Pidal jaunaren omenez egin ziran idatzi andi ta ederretan be irakurri geinke Saroihandy jaunaren lan bat. Orreaga edo Roncesvallesko aseliatzaz sakonkiro ekin eutson.

Oindiño eztau askok ikutu asele ori Saroihandy jaunak baxen argi ta garbi. College de Francen bere ordeaz jarri-eragin eutson Morel Fatio jaun aipagarriak.

Europako izkuntzazko irakasle artu ebenian College orretan, euzkerea artu eban bere arlotzat. Bost urtetan ekin eutson gai oni. Arrigarrija ludiko ikastetxerik guren baten euzkereatzaz jarduntia.

Pastoraletzaz be idatzi eban. Onetan Herelle ixan da gixonik ospatsubena, baña «Pasion» antzeztu zala amaseigarren eundijan Lesakako errija Saroihandy jaunak ontzat emon eban. Onetzaz Urkixo jaunak idatzi dau arrezkero.

Euzko-errija matte eban gixon onek meresi dau geure oroimena. Gixon apala ta jakintsuba

zan eta latera izkuntzak goralduten ekin eutsokak, euzkerea goralduten ekin eban gero.

Gure Herrian be argittaldu ixan dira iñoz bere lanak. Geure oroimenean bego Saroyandi jaunen oroimena.

Parisen asko egin eban euzkerea goralduten eta bost urtetan College de Franceko aretuan gai onetzaz ekin ebanak, benetan bere antziñakuen izkuntza matte ebala erakutsi eban.

32-VII-3

«JOSUTXU»

Emen daukot idaztiño barri bat. Umientzako otoi-idaztiñua. Eta zelako otoi-idaztiño ederra! Neure agorako ezta olakorik argittaldu Euzkadin. Euzkera erraz ta garbijan Zabala-Arara abeak jarri dausku, Cataluñeraz Ribera abeak idatzi ebana.

Arin erderara be itzuli eben, punterengua dalako. Mamiz osotuba da benetan, etxako uts bat idoroten. Otoyak gura dozuz? Ara zelako otoyak daukozan; Josu, eredu, Miren, eredu, Josuk umiai, Mirenek umiai, goxeko-gabeko otoyak, Autortzeko biar diranak, Jaunartzian esaten doguzan otoyak. Eta jaupea entzuteko eztozu era obarik aurkittuko idaztiño onetan baño.

Irakaskixunak dakarz beste alde baten. Azke-nez abestijak, Josu-Bijotzari, Miren deunari, Iñaki deunaren ereserkija, Sabinan izkijaz. «Angelis» jaupea be bai.

Baña mamiz ondo orniduta ba-dago, azalez be eztago txarto. Ezta erdi be! Irudi polittak daukoz benetan. Otoi gustijak daukoe euren irudi-

txuba onduan. Umiak olakoxe irudijak gura-ixaten dabez.

Bilbaon argittaldu dabe idaztiño au, Euzkeltzale-Bazkuneko jaunak. Erraztitar Joseba Mirena ixan dogu irarkolean zintzo-zintzo ibilli dana, okerrak zuzendu ta izki-dotoriak aukeratu dauzana.

Umien bijotzak Jaun-Goikuagana eruateko bide asko dira. Baña biderik onena eurai atsegin yakoen bidea. Ortik eruan biar dira umiak. Eta ondo dakigu umiak pozik eskuratuten daula irudi ta idantzez kidun gauzea.

Edozelako idaztiñuak-barik, idaztiño dotoriak emon biar yakoez. Emen dozu egilliak diñuana.

«Umiai. Zubei, Josutxuk matte-matte zauzan umioi, opaltzen dautzobet idaztiño au. Artu, ta bertako ikaskixunak aditaldu egikezubez.

Idaztiño onetan irakasten yatzuben gustija betetzen ba-daukezube, orain kistar onak ixango zarae ta gero zoruntzubak beti donokijan.

Josuk argiztu ta jabon zagikezala, ta idazti onen bidez zuben bijotzetan azi ona erre ta gartu daikela opa dautzube EGILIAK».

Asmo ederra dauko, egiz. Olako idaztiñuak idazten diranian elburuba ezta galdu-biar.

Geure batzokijetan, eleiz-gixonak eta sariketa gustijetan beste saririk etxakoe umiai emon biar idaztiño au dan-artian. Emen zerurako bidia ikasiko dabe. Sarri esan daruago euzko-umiai iñok eztautsela zeruko biderik erakutsi nai, baña orainguan jaun onak eta argijak ixan dira umiakana jatsi diranak.

Euzko-Idazkaltza-Burubari zor-yako idaztiño au. Ez aitzu. «Josutxu» ixen politta, ixen mattekorra.

— Baña karuba-ete ixango da? —ittaunduko dozube.

Karuba danik ezin esan duban be gauza obarik ezin artuko zeinkaelako. Laurleko bi ordainduten ba-dozuz or juatzu idaztiño dotore au. Laurleko bi! Olako alatzak abertzaliak egitten dabez. Txindija nondik ataraten daben eztakit.

Euzko-ume bat, abertzalien seme bat ikusten ba-dot ertxadonan «Josutxu» barik entzutekuak entzungo dauz bere atteak. Orain eztago akua-kulurik: euzkeraz eztago otoi-idaztiñorik-eta. Bai dago iñozko ederrena.

Euzkera-zalla? Burutik atera dozu ori. Zabala-Arana abearen euzkerea edonok ulertu dagikena da. Eta zelako euzkera samurra!

Au irakurri-ordukoxe «Josutxu» eskatuko dozu. Beste saririk eztoz gura, zeben umientzat onena dalako.

32-VI-17

BETIKO

Itxasora jaun gintzazan, egun osua ondartzan pasau-nairik. Emazte-gaitzat andereño liraña neukon, Bilbaoko saloki-etxe baten bere ogibidia eukona. Andereño orrek ondo irebazten eban.

Ondartzan jan geban, igeri gintzazan eta egun alaya igazi. Iluntzija zer dan itxas-onduan-ete dakixu? Eguzkija odei-aretan agiri da, urrez zeruba margoztuten daula. Uñak dantzán dabiltz eta ontziñuak ikotika, tanbolin-ostean gastetxubak ibiltén diran legetxe.

Liluraz gengozan. Emazte-gayak itz samurrak esaten eustazan eta neure begijak itxitta eguna, iñoz etzala igarokuan nintzan. Axe ozkirrija zan andereñuaren ulietan jolastuten.

— Oraintxe zattut benetan matte —esan eustan—. Zoruntsubak ixango gara bijok-bijotara. Iñok eztausku kenduko geure bixitza mattekorra.

— Bai olantxe da ixan be. Zeurekin beti-beti bixiko naz pozik. Eztot beinguan idoroko zeu lako bat. Ona zara ta mattekorra.

— Ai, baña bildur naz une oneik, une baño ixaten eztiralako.

Olantxe gengozan eta gaba eldu zan. Gaba ixaten da mattate askoren etsaya. Mendi-goyetan lañuak ikusten ziran eta itxasua baltz eguan. Arin jaso ta geltokira zuzendu gintzazan: Baña a zan zoritxarra! Bultzi edo trenak iges-egin euskun!

— Eta orain zelan juango naz Bilbaora? — andereñuak ittaundu eustan negarreka—. Bijar goxian dendan egon biar naz goxetik eta uri onetan gagozala ezin jua. Zeugattik jaurtiko nabe dendatik.

Itz oneik gogortsu esan eustazan. Mattasuntzak baño gogorrago!

— Neuk eztakit zer egin, ba —erantzun neutsan—. Gurdibillik igaroten dan ikusi dagigun. Bate-edo-batek eruango gauz.

Bide-ertzan geratu gintzazan, gurdibillik igaroten zan ikusteko. Laster bat eldu zan, baña geure kiñubak ikustian, lapurrak gintzala-edo-ta arin aldendu zan.

Orixe beste iruk be egin euskuben. Etzan gauza onik. Erritxu aretan etzan ostera taxi edo koplarik.

Baña neurekin zan andereñua buru-argikua zan eta esan eustan: Estaldu zadi, zeu ikustian lapurrak garala uste dabe geyenak-eta. Neu egongo naz bitxabalan eta lotubazoko dodaz gurdibillak.

Esan orduko bide-ertzan estaldu nintzan. «Potpot oska eldu zan gurdibil bat. Neure emazte-gayaren didarra entzutian geldittu zan.

Ixilika-mixilka itz-egin eben luzaro ta gero andereñuak ots-egin eustan:

— Zu, atera zadi ortik

Urten nintzan neure estaltokittik.

— Ara onexek eruango nau Bilbora, baña neutzako baño tokirik eztauko. Zeu emen geratu zadi.

Eztakit zelan entzun neban aren itza. Gaba otza zan, an etzan etxerik, ez ezer. Gero neure eskuba estutu eban eta gurdibilla eroyanaren onduan, oso onduan jazarri zan.

«Potpot» asi zan gurdibilla ta neure otsak entzun barik Bilbaoratu ziran. Urrunan ikusi

neban neure ezkon-gabak eskubaz sorbaldatik pasau eutsola mutil ari.

Ulertuta-ete ziran?

Gau arttan marranta andijena atrapau neban. Eta geyagotan andereño a ezta neurekin ondartzara etorri. Zer jazo zan? Batek ba-daki! Emakumien artian gauza ikeragarriak jazoten dira-ta!

Orain bakian nago. Bakarrik juaten naz ondartzara ta gabak enau atrapetan ameslari. Bultzijak be eztaust igasik egin!

32-VII-19

OTURUNTZA...

Doikol eta bere emaztia ondo konponduten ziran. Joskillia zan emakumea ta lan berezijk egitten euzan. Baña Doikol alperra zalako, etziran etxian lar zabalegi bixi.

Asarratuten ziran sarri, baña Doikolan itz-labanak, laster kenduten eutsoen bere asarria emaztiari. Olako baten geure gixonak iges-egin eban bost-sei egunerako.

Batek ba-daki nondik-nora ibilli zan. Emaztiari izpar asko eldu yakozan, au, ori ta bestia senarraren aurka. Eztakit nungo urijan ikusi ebela neska lirañakin. Igeretxe baten dantzaketan be ibilli zala.

Amorruz eguan bere emaztia, alako gixon ganora-bakua eukolako. Baña benetan matte eban. Gastetxubak zirala alkar ezautu eben, bai?, eta ordutik beti ixan ziran alkarren adizkide.

Tranpa asko ekijan gixonak, lan-egitten ezpa-ekijan be. Laster asmauten euzan berba-josijk eta bere emaztia geratuten zan naro-naro.

Baña orainguan eneutson azketsiko. Ezta urrik be. Sei egunian etxetik kanpora juan eta edonorgaz ibilli. Negar-egitten eban emakumiak bere gixonaren ganorabakokerijatzaz oldoztutian. Orainguan eztautsot parkatuko, iñuan, baña adizkidiak ba-ekijen azketsiko eutsola.

Onetan idazki bat artu eban eta eguneko izparringiak be eldu yakezan. Izparringijetan irakurri eban auxe: Trebetztar Doikol, sendiko goraberak bide ibaira juan eta bertan itto da.

Konarta-barik jausi eban emakumia, bere gixonaren egitte-txarra jakitian. Bere buruba-itto dau, negarka iñuan. Ai ene bada, neure senar kuttuna zer egin dautzut neuk, ba, ori egitteko? Lotseak eragin dautso. Sei egun etxetik at einarren zer ardura eustan, ba? Eztot neure bixitzan alako senarrik eukiko.

Emaztiaren negarrak etziran txikerrak ixan. Egun bi egin euzan negarrez ta etxe barruban sartu.

Beriala asi ziran ibai gustijetan itto zanaren gorpuba billa, baña ezin idoro ixan eben. Itxasora-edo eruango eban urak. Idazkijak Doikolak berak argi esaten eutsen, lotsaz gorrittuta, alako

emazte ona utzi ebalako, bixitzean egon eziñik, bere buruba ittoten ebala.

Idazkia eun bidar irakurri eban emaztiak. Beti itz bardiñak: zeugattik ibaira jaurtiko dot buruba. Eztautsot neure burubari parkatu zeu olan utzi-ixatia.

Iñundik-iñora etzan agiri gorpuba ta erabaki eben il-eleizkixunak egittia. Eta egin be ederrenak egin eutsoezan. Ara eldu ziran albo-errijeta-ko senidiak, adizkidiak eta abar.

Il-eleizkixunak amattu-ostian, bazkari ederra jateko juan ziran Doikol zanaren alargunaren etxera. Ottura au toki askotan dago. Bazkari galanta prest-euki eutsen gustijai alargunak.

Asi ziran berrogei inguru mayan jarritta. Eta janak eta edanak penak edo nekiak kenduten dauz eta azkenian barre be egiñen eben.

— Bai, zeure senar a etzan makala. Alper galanta. Broma onak egitten eutzuzan.

— Bai amaikatxu broma egin eustazan, baña azkenengo onek eztautso ondo urten. Gauza, enaz beretzaz aitzuko beinguan, negarka iñuan emaztiak.

Eta mayan ziran gustijak ildakuaren alde zer-edozer esaten eben. Gustijak lenengo itza; Ona zan, argija zan, baña gero beriala akatsak topauten eutsoezan.

Bazkari-erdijan ziranian atian ots-egin eben. Neskamiak zabaldu eban eta orra-or nun agertzen dan Doikol, arraña baño bixijago. Egun-on, esan ostian, garratza egin eban:

— Neure paltan bazkari galantak egitten dozubez, ezta?

Ikeraz gustijak asi ziran eta batek erantzun eutson: Itto zarala izparringijak eztabe ekarri ala? Eta zeuk idazkiz eztautsozu idatzi orixe?

— Eta-berak erantzun eutson—, neure emaztiari broma bat ezin emon negikijo ala?

Emaztiak, parkatu ei-eutson azkenengo au be. Besteren bat egingo dau oindikarren.

32-VII-24

OLERKARIJAK, IKASLIAK

Egun beratan batu dira, Ernanin eta Bergaran, geure Olerkarijak eta Ikasliak. Jai onek garrantzi andija daukoe. Gastiak, euren begijetako alattasunaz, batzar ederra egin dabe, euren ikaskixunetan euzko-errijaganako mattasuna erabilli nai dabela erakusteko.

Orain urte batzuk euzko-ikasliak etziran gomutetan euren errijatzaz. Aberrijatzaz eztogu idazten, euren errijatzaz baño. Geyenak atzerriko arazuetan-ziar sartuten ziran.

Amaikatxu idazti, olerlo, lan-eder egin dabez euzko-ikasliak, iñorentzat, eurek erri bat ezpa-leukien.

Baña orain, bide-okerrak itzi-ostian, abendeakiko arazuai dagoz. Euren ikaste gustijetan erabilli nai dabe errijaganako mattasuna. Ezin jakin dagikegu euzko-errija argija dan edo ez, jakintzabidietan dabiltzanak agertzen eztaben artian.

Baserriko semiak ezin dagike erakutsi bere abendearen gurentasuna. Baña ikastetxietan ibi-

Ili danak, idaztijetan begijak neketu dauzanak, onek bai erakutsi dagike noragiñokua dan geure errijonen edertasuna.

Eta azkura onek jo dauz, bijotza ikutu dau-tsoe. Orain Euzko-Ikaskle-Batza eratu dabe ta elburu bakarra eztabe galtzen. «Eurek euzko-semiak dirala ta bete-biarra daukoela».

Igandeko batzarrak auxe darakus. Eztakigu zenbat notin batu zan, baña ardurarik bere ez. Azaleko gauzai begira ezkagozanok, ara ixan zan ixatiari, goguari begira gagoz.

Ikaslien lenengo batzarran, bide baten lorra-tza ikusi dogu. Ezta ardurarik asko edo gitxi batu, ikaslien barruban ikusten dan jakin-miñak poztuten gauz.

Egun beratan be, batu dira Ernanin euzko-olerkarijak. Olerkari-ixena entzun ordukoxe, barre-egitten dabe geyenak. Lotsatuten gara ixen ori entzun-ezkero. Baña geure olerkarijak aurrera duaz. Irugarrenez batzar zoragarri ori egin da.

Lenengo ta bigarren batzarretan saritubak ixan diranak, idaztiño bana argittaldu dabez.

Aurten sarituba ixan danak beste orren beste egingo daula uste dogu.

Ganera «EUSKALT'ZALEAK» urtero olerki idaztiño bat argittaldu daroe. Orain Iturriagaren ipuñak. Gaur euzko-semiak begirakunez begiratzten dautsoe olerkarijai. Eurek dira izkuntzearen seme-kutunak.

Olerkarijak abeslari ta ikasliak euzko-bidiak-barna ibildeko asmoz. Egun ederra euzkotarrentzat. Bijarko olerkarijak Bergaran ziran. Ortik agertuko yakuz geure elian edertasuna azalduko dauzkubenak. Beste laterrijetako elertijak jakinostian, geurera joko dina.

Benetako Pizkundia oraintxe sortzen asi yakula, uste dot. Gastian buru-bijotzetan olerkijak egaizka, gogai gurenak.

An-emen agertzen izan dira orain arte idazliak. Berez erneten ixan dira. Baña aurten ziar eurrez urtengo dira ikastetxietatik. Bijotzean gogai bat sortuten danian, gogai orren jarralle ibilli biar. Ezin aldendu ixaten gara.

Jakintza-zaliak eta erriko semiak, ikastetxe-kuak eta basetxe-kuak, gustiak alkartuten dira. Laterri baten garca sortuten yakula, dirudi.

Gauza bakarra biarren dogu: orain arte elia alboratuten ixan date geyenak. Iñor etzan konturaturaten geure otturak zer balijo eben. Gitxi ziran euzko-edestija aintzakotzat artzen ebienak. Baña gaur euzko-zale barik etsai edo arerijo danari begi-txarrez begiratzen yako.

Zer jazo ete-dan? Bittartian gogai bat sortu dala. Abertzaletasunak bere inddarra senti-eragin dautsoe gustijai, ta len lotsatuten ziranak, gaur dedutzat artzen dabe.

Ikasliak geureganatu ba-dira, olerkarijak agertzen ba-dira, idazliak eurrez ba-doguz, abertzaletasunari zor yako. Beste batzuk be, egija esan biarko, lan asko egin dabe, baña bestiak egin dabenak eztautso kentzen edertasunik ez garrantzirik abertzaletasunak egin daunari. Orixe ixan da euzko-errijaren igitzalia, besterik iñor ez.

«EUSKO-OLERKIAK»

Emen dira igazko olerki-sariketea aintzakotzat artu ziran olerkijak. Idaztiño txukun-egin dabe. «Aitzol» jaunak aurritza jarri dautsoe, olerkari bakotxaren irebazijak goraldurik.

«Lizarditar Jabier» ixan zan sarittuba. Barniz irakurri doguz bere «Unte-giroak ene begian». Eta lenago sarija berari emon bageuntson, barriz be emongo geunskijo. Jakakortajarena jaunarenak onak dina, «Lizardi»ren olerkijen onduan jartekuak. Ixan be, bi onein artian zan sarija.

Epai-maiko ixan nintzan. «Orixe», Mourlane Mitxelena eta ni gintzan. Bestieren abua jakinbarik, bakotxak bere epaya emon geban. Neure ustez onenak ziran «Lizardi»renak eta Jakakortajarenak. Baña lenengo mallan zan «Lizardi»nena. Au uste ixan eban Mourlane Mitxelena jaunak be. «Orixe»k ostera Jakakortajarenanari bere bayetza egin eutson.

Beste olerkari batzuk asarre ixateko ete-da geure epaya? Eztot este. Jauregi jaunarenak ederrak dira, baña «romantico» edo geyegi.

Tapia-Perurena be olerkari ospatsuba dogu. Sarri orri onettan esan dot geure egunetako olerkari-jetan punterengo bat dogula Tapia jauna. Neurekiko Musset jaunaren «Orrilla-gaba»ren antz larregi dau bere olerkijak.

Bi onein antzekua dogu Agirretar Toma jauna be. Gogai txukunak dauz, baña itzetan yakuako lar. Neurrira ekarri biar dau joritasuna. Olerkijetan laburtasuna atsegiñen. Lamartine edo Zorri-llaren antzekuak doguz bi oneik. Euzkerazko olerkijetan «romantico» ixan-arren, bere erara ixan biar.

Mamiña bego azalak gitxijenez. Otzik al ixan-etzkeru, utzik azaldu biar geunkez goguak.

Lekuona jaunarenak be eztira atzenak. Ez bein. Lekuona jaunak erderaz «gusto» esan daruena dauko. Olerkija ondo txukunduten dau ta pitxi larregiz barik, bere edertasunez jantzi darua.

Zubimendi jaunak olerkarijen alkijan egoteko irebazijak egin dauz. «Aberri-oyuak» argittaldu ebazan eta antxe-ikusit geban olerkari ona zala. Errijari atsegin ixango yakoz jaun onen olerkijak. Idaztiño onetan dagona ederra dogu. Epalla nin-

tzala esan neutson oso txukuna zala. Muxika jaunarena erriko ta argija. Pozik irakurten dira olako olerki samur ta barrenetikuak.

Arrese jaunaren olerkijak eztira goraldubiar, eurak goraldubiar daruelako euren buruba. Olerkari ospetsubenetako bat dogu. Amaikatxu lan eder egiña da, geure ele onen alde. Gaurkuak ontzartzen dabe bere egiña.

Azkenez Bedoña jaunarena. Bizkai-semia zalakuan, jaun askori ittaundu neutsoen nor etezan «Arrantzalien arrate-otoitza» egin ebana. Ederra irudittu yatan. Eta aurtenguan lenengo sarija irebazi dau jaun orrek. Zorijonak. Zorrilla zanaren antz-larregi dauko. «El ruido con...» eta olako ots asko. Olerkijak itz gitxijago ta barrutiko sentimentu geyago biar dau.

Aurtenguan jo dau orra.

Emen doguz, ba idaztiñua osatuten dabenak. Urtero agertzen dan idaztiño au, geure olerkijen biltokija ixango da. Nork uste orrelako olerkarijak zirala geure aberri onetan?

Urtero agertzen yakuz barrijak. Neure ustez oraintxe da euzko olerkijen urrezko eundija. Gero olakorik ezta ixango. Azalez landubak eta

mamiñez sakonak. Beste ele batzutan be eztira ixango olako olerkari asko.

Zorrotzat eukiko dabez olerkarijak, euzkotarrak eztabez goralduten biar litzeken eran, baña olerkarijaren sari onena, bere barruko edertasunak atzaldutia da. Olerki bat baxen seme ederrik eztago.

Gaur olerkarijen idaztiñuak, bijar irakurgai laburrenak egin biarko doguz, beti euzkerea goralduzko aberrijaren elia dalako.

32-VIII-14

UDARUA

Nai baño len, amaya. Bide ori, ludi onetako gauzak daroe. Geyenez bere, abuan kutsu tiztilla geratzen yaku, besterik ezerez. Zetan aleginduko gara oldarrak lotuten? Duazala, baña bakotxari al-ixana dogun ezija eta gozua atera ostian.

Itxasuak, urdin bai-zan, ganezkatu daustaz begi-sakonak. Baña geure arrantzialientzat ezta esku-zabala ixan. Elkor agertu yakoe. Arrañak uts-egin dautsoe. Udagoyenari aterako ete-dautsoe zerbait? Zidarrezko litsak daruaz urtaro onek. Bake ixilla, mendiko ganetan. Illuntzi oberik eztago.

Baña itxasuak bakarrik, neure nayak eztauz asetu. Itxas-ertzan ezeze, legorreko erri-duazala, baña bakotxari al-ixan dogun ezija eta gozua atera ostian.

Zer oldozkunik? Asko, bai. Erririk geyenetan euzko-gogua garan edo loran daguala, ikusi battot. Batez-bere umiak, gaurko umiak euzkotar umiak dirala senti dot. Bitxabal-ertzen, base-rrijaren onduan, ondartzan bertan, edonun

euzko-aberrijaganako mattasuna ikusten ixan dot. Orainguan gaizkatu dogu, Euzkadi. Urte batzuk igaro, urte batzuk atzeratu, geure naya osatuko yaku. Lenago euzkotarrak nortzuk ziran bere iakitten ezeben errijetan, gaur jori dakusgu geure gogaya. Alatza edo milagrúa? Ez, ba. Lanaren urrengua baño eztogu. Urte askotako zeregin eta lanak, orain argi dagoz.

Baña udaro onetan, gauza batek begijan jo nau. Euzkerek zerbait galdu daulakuan nago. Egija ez? Obe, pozkarrijago baiyat. Izketa askoren baño erderearen otsak belarrijari min-eragin dautsoe.

Andereñuak lenengo, erdereari jositta dabiltz. Euzko-ikurrintxu asko papar ganetan eta euzkera gitxi abuetan.

Mendigoxale batek esaten eutson lenguan bere lagunari: Si eres nacionalista vasco, euzkera egik, asto.

Auxe entzun neutson eta buruban sartu. Gaste aren esana, egija. Oraingo abertzaliak gauza on bat erakusten dauskube: euren idea edo gogaya zabaldu nairik dabiltz. Lotsarik eztaukoe, euren gogua erakusteko.

Aurrerakuntza andija egin dogu, orain okerrak zuzendutera ekin biarko. Okerrak ludiko gauza gustijetan baitagoz.

Beste zerbait bere, begijetan sartu yat. Unte onetan askorik eztabe jango geure baserritarak. Asijeran arrantzalietzaz esana, amayeran basarriko notiñentzaz esan biar. Artuak lurrari josita dagoz, artaburu andi-barik. Indabarik ezta ikusten.

Sagarrak edo madarijak kokotuta ezpadira, ustelduta dagoz. Geyenak lurrera jausten dira.

Udako egun onetan ainbat gauza ikusi ta entzun doguz. Abertzaletasunatzaz pozik ba gana, beste arazo batzubetzaz ez. Or bitxabalertzetan bere makiña bat langille aurkittu doguz, baña tamalez emekorik ez. Edo ziranak bere gitxi ta euzkotar txarrak.

Udagoyeneko arratsalde eder onettan atzalduko doguz. Matsak batzen dabiltzanak legetxe, geuk bere uztea batu dogu. Orain atera biar barruko muña.

Eta urterako egittaraba bere asmau biarko. Ikaskixunak legez, astian iru egunetan-edo euzkeratzazko gayak erabiliko doguz. Ondo idatzi ta

irakurteko uarrak. Astian egun baten-edo euzko-
abestijak bere argitalduko doguz, gaurkuan
abestijak diralako abertzaletasunaren zabaldu-
derako biderik onenak.

«Temas vascos» bere inddartuko dogu.

Eta arazo gustijen ganetik geure aberrijaga-
nako mattasuna. Gauza gustijetan ikusi dagigun
geure elburubaren argittasuna. Nai baño len,
amaya. Udaruaren amaya arin etorri da, baña
goguak inddar barrija dakar, lanari eutsita ego-
teko adoria. Geure soluan lan egin biarra dago,
alperrentzat lekurik ez, ostera. Jei-argija aurretik
dogula aurrera.

32-X-4

AZKARIJAK...

Oskin edo zapatari bi, geure itxas-ertzeko uritu ederren baten ziran. Anayak ziran, bai?, eta anayai yagoken eran alkarren adizkidetasun ononean bixi ziran.

Baña oskijak egitten txinndi geyegirik ezeben irebazten-edo. Onek lagundu, arek zerbait emon, aurrera egin eben. Zartxubak ziran eta barriкета luziak egitten ebezan bijak bijetara.

— Eta, ikusi dozu «Praka-zar»ek ekarri dauzan oski barrijak?

— Bai, oski dotoriak dira, baña emen atondu neutsozanak eztauz ordaindu oindiño.

— Laster egin biarko dauz! Txarri barrabas orrek daruan bixitzea ta geu barriz gosez ilda.

Olakoxe barriketeak aidija kenduten eutsoen eta oskirik ezeben atonduten. Gero gosia, ba. Orregattik ez eben gogaro edo umore onik galduten. Leyo zar batetik sartuten zan argi apurtxu bat eta euren arkitxu txiker eta baltzetan jezarri-ta egoten ziran.

Amantal loyak eukezan, narruzko amantalak Kerbazirenak ogetamar zulo eukiko euzan, Martolonak ostera amantal antzik bere ez.

Gastetan tripeari beria emoten ikasijak ziran geure oskiñak eta orain aldatz-gora egitten yakoen gosez egotia. Zer egin? Laster asmau eben. Arratsaldeko bostak eta erdijak ziranianedo Kerbazik esaten eutson bere anayari:

— I, azkalduko juaguk? Ordurik onena auxe dok, ba.

— Euk gura badok azkalduko juaguk.

— Baña zer jango juaguk? Lukainka bana?

— Lukainka bana, ogi piñagaz.

— Ardaua onena bere ekarriko juaguk, ezta?

Eta anai bijak benetan egingo baleben, suba ixotuteko plantak egitten ebezan. Buruz zan gustija baña eurek benetan zala, uste eben. Gero lukainkak txirtxikatuten balegozan, txir-txir abuez egitten eben.

— Au dok usaña! Oraintxe jateko eran jagok lukainka au —Martolok esaten eutson bere anayari.

— Bai, ta ementxe jagok ogi piña bere. Autso zati ederrena!

Kerbazik ogija artuten ebalako planteia egin eta lukainkea ipinten eban. Arein barriak eta pozak!

Gero ardua ateraten eben utsik euzan bonbil batetik eta eskubari gorantza egiñik. Au gozua!, esan eta eskuturraz musturrak garbittuten ebezan.

Egunero olantxe azkalduten ziran. Egizko azkarijak etziran ixango, baña eurek pozik egozan. Urrenguan alkarri iñotsen.

— Gaur zer jango juaguk?

— Gaur txarrijaren gibela.

— Postretxu, apur bat bere biar juaguk, ba, lan asko egin juaguk-eta.

— Bai orixe, ekarri egixak madari umuak euk dakikan salokitik.

Eta guzurrezko azkari-ostian lan sendo egi-tten eben. Untziak arin sartuten ziran ugel zarretan. Areik ziran zorijontsubak!

Baña azkari lar ziran, buruzko azkarijak ixanarren. Jan tropia egunero eginezkero zer jazoten dan, ondo dakigu. Martolo txarto geratu zan egun baten. Osagilliarri ots-egin eutsen, ba.

Eldu zan osagillia euren etxera ta ittaun batzuk egin eutsozan gexuari.

— Asko jaten dozu-edo?

— Bai, arratsaldeko, azkari ederra egitten dogu.

— Orixe dozu gexuaren asijeria. Zubek eza-goze urte orreikaz jan tropiak egitteko.

— Ara, ba, jauna —Gerbazik erantzun eutson—, azkari orreik zelan gatz egingo dauskube baña?

— Zuben sabelak ezin dabelako ontzat-artu jan gogorrik. Itxi betiko azkarijak eta lukainkak, gibelak eta abar, ez ikusi bere egin.

— Baña, ene jaun ori, geure azkarijak txan-txetakuak ba dira. Buruzko azkarijak dira!

— Buruzkuak ixango dira, baña oni txarto egin dautsoe. Atrakauta dauko urdalla! Ez geyagotan buruz bere azkaldu!

Eta anai gaxuai, atsegin axe bere kenduera-gin eutsen osagille gaiztuak.

BASETZIA

Egun batzuk onantz, basetxietzaz ekitten dauskube. Garrantzi andiko ardurea dogu. Lanik eztagolako, geure baserrietara juan dira, len andik aldendu ziran gastiak. Baña basetxiak ezin dauz gustijak alikatu. Lurralde txikerrak daukez ta sendi bat baño geyagorentzat eztau janik

Eta zer egingo dabe lan-bakuak, ba? Baserri-ra juan ez? Olakorik eztiñogu! Txaide-ertzetan gozez ildda baño obeto dagoz basetxian indaba batzuk jan-eta. Baña lan-urrittasunari bide zuzenak aurkittu gurean gabiltzan ezkerro, basetxeko arazuai bere euren artezpidia emon biarko.

Biar diran legez garbi ete-dagoz besetxiak? Ete-darabillez lugintzarako gai diran tramankuluak? Aberiak, barazkijak edo beste zerbaitek, irebazterik geyen emoten daun, erakutsi biar yakoe. Baserrittarrak eztau bere buruz olakorik oldoztu gura.

Bizkaiko Aurrezkikutxetan edo «Cajas de Ahorro» deritxon txindditegijetan unei edo milloi asko daukez geure baserrittarrak. Txindiririk

geyena, ezta olaetako langilliak edo txaidiakuk emona, basetxetik ekarrija baño. Ori egi galanta!

Euzkadiko basetxe-erri batzuk unei asko daukoez. Eta txindi orrein irebazterik elduten yake baserritarrai? Zertan eralgi edo gastetan dira euneko gustijen emonak?

Gaur arte, beintzat, urijetako langilliai etxiak iragitten, langillemiari edo emakumiai «Monte Pío» edo olako etxiak zabalduen. Irakastolai lagunduten ba dautse, urikuak ixango dira irakastolok.

Baserritik datorren txindijaz, urikuari lagunduten yako. Eta basetxe kuari zer? Ezerez. Orain arte, ezerez.

Irakastola bat iragi gura dabenian, laguntza eskatuko dautse aldundijari edo aurrezki-kutxa bati, baño itz labanetan geyena amattuten da. Basetxe barrija iragi gura daunari, ta landarak lurrean sartu, bedartzak jarri, orri etxako lagunduten.

Geure antziñako lagijetan erabagi auxe zan: erriko mendijak edo erribasuak, errilurrak. Onerariko asko dira geure errijetan. Zugatzak eukittekko edo beste gauza baterako ezpaziran erri-

baso orreik, ezkonduen ziran gasteai emoten eutsoezan. Eurek landu, etxia eta beste zeregiñak osotu ostian Jaubetuten ziran.

Onetara, amaikatxu basetxe eder egin zan erribasuetan. Gaur baña lur orrein jaube laterrija da, ta alperrik dagoz ainbat lur eder ta jori. Lagi-Zarra zetarako dozu, ba? esaten daben askoren-tzat, itz oreik dira.

Barriro lagi arein araba barriztu biarko dogu. Jeltzale Alderdijak geyago bere, eskatuten dau. Oraintsu aldundijari idazki bat zuzendu dau-tso. Basetxietzazko gora-berak darabiltz. Aldun-diko «presupuestoetan» beti ataltxu batzuk ixa-ten dira, langilliai lagunduteko, irakasliai ordain-txe apur bat emoteko eta abar. Baña orain base-txietan obarijak egin dauzanari, len basolarra ziran tokijak bedartzat edertu dauzanari, abere gixonak azi dauzanari lagunduteko eskatuten doguz. Baserritar asko, euren etxien jaube ezti-ra. Euneko irurogetak baserri jaube ezтира. Baña jaubetu gura ba dabe, nok lagunduko dautsoe? Nondik diruba lortuko dabe? Laureun eskari ei-dagoz Bizkaiko aldundijan, euren etxien jaube

egin gurarik, laguntza eske etorritta. Itz onakaz orain bere uxatuko doguz baserritarrak?

Euzkadi-basetxietan ezta biar dan legez uzta-rik batuten. Lurrak eztau al daunik emoten. Osasunari yagokon eran eztira bixi. Gortiak zikiñak, etxonduak loyak, sukaldiak bere illun eta baltzak. Osasun-kaltezkuak dira. Zelan gura dozu gauza orreik atondutia, dirurik ezpadau emoten soluak edo zelayak obari asko egitteko, Eztagon tokittik ezin atera!

Ikusiko dogu zelako erantzuna emoten dautson Aldundikuak, Jeltzale Alderdijak zuzendu dautson idazkijari.

Orain bikain biar nork lagunduten dautson basetxequari. Sozialisten asmo bijurrijak atzalduko doguz, atzipetuta bira eztadixantzat. Base-rikuak bere kaltezko gauza bat dauko: urikuak legez didarrik, ez zemairik eztau egitten. Artua baño jango ezpadau bere, ixilik dago. Orain alde batera itxi biar dira ixiltasunak eta ots-egin, zarata-egin.

Itz labanakaz eztalako ezertxu arteztuten.

ASMO EDERRA

Izparringiak irakurten ba doguz, emen atzalduko dautzudan izparra jakingo dozu. Beste ludi-ko izparra bere, ezta, ludiko onetakua baño. Sozialisten artian jazo yatzuna.

— Eta gixon orrein artian jazoten diran gauzak, ardurarik emon biar dauskube-ete? Bakian laga egijozube orrei, bai?, eta zabiltz zintzo-zintzo geure aberri-barruban jazoten diranak atzalduten.

— Noizpein bestaldekuaren gauzak bere, jakin gura ixaten dira. Ganera garrantzi tiztiltxuba eukiko dau esango dautzudanak. Geure itzaldijetan eta idazkijetan arrotzen aurka, ta euzko-tarren alde gabiltzazalako, asarratuten zarienak, ikusiko dozube geure esakunen zegattija.

— Abintza andijakaz zatorz. Mendijen erditzia lakua ixango ete-yaku zeure izpar ori

— Irakurri nagixu azkenerarte, bai?, eta gero nai dozuna esango dozu. Madriden batzar nago-sija egin dagije sozialistek. Ija-ija anei gixon dira batzar orretan. Eztabaida andijak euki dabezela,

zetan esan biar bere-ez. Prietok, Saborit jaunari, onek Largo Caballerori, ta gustijak alkarri esatekuak esan dautsoez.

Lotsabakotik gorakuak, itzak ixan dira. Baña euren artian ixan diran ezkeror iñor eztabe espetxeratu. Geuk esan ba genduzan sozialisten aurka olako berbak, espetxe baten sartubak gengokez.

— Eta orreik alkarri esan dautsezanak, buruko miñak emoten dautzube?

— Ez, barre-egin dot. Larunbatean jazo zana-tzaz, zerbait idatziko dautzut. Izparringi bat argittalduten dabe alderdi orretakuak. «El Socialista» deritxo.

Izparringi ori Irakurri baño nayago neuke lo-egin gura eztaun umetxu bati siaskan eragittia. Logureak joten daustaz begijak orren izkijak ikustian.

— Txinddirik ezpadauke izparringi obia ateratako, zer egin, ba. Izparringi txarra daukela, atzaldutera zatorz?

— Ez! Eztakixu zenbat bidar Euzkadin, emen geure aberrijon sozialistek esaten daben gauza-txu bat? «Es libre la sindicacion» edo euzkeraz:

bakotxak nai daun bazkUNETAN edo alderdijetan bazkideTUTIA gauza azkia dala. Norberak gura dauna egin dagikela bazkideTUTIAZAZ.

— Eta orretan errasoya dauke. Bakotxa azke itxi biar yako.

— Bai ezta? Baña azkatasun ori abertzalien izparringijetan dagozan sosolistuak jaurti gura doguzanian eta, ixaten da. Geure alderdikuak eztiralako sosolisto bat at jaurtiteko asmorik daukagunian, asten yatzuz didarka: «Es libre la sindicacion». Eta emen diran papau-argijak bayetz erantzuten dautsoe. Ezkara sosolisto orrein aurka ezertxu bere egitten, ausartuko.

— Eta orregaz zer diñostazu,ba?

— Zer diñotzudan? Madriden sozialisten batzar nagosijan, an ziran bederatzireun gixonak auxe esan dabela: «El Socialista» izparringijan zelan alderdiketu-barik dago gixon edo idazle bat? Ori ezin jasan ei-dagike euren alderdijak, «El Socialista» izparringiko idazliak euren alderdikuak ixan biar dabelako.

— Egija diñozu?

— Ez guzurra diñot! Irakurri egixuz euren izparringiak eta ezkertarrenak, bai? eta antxe jakingo dozu, diñodan gustija, egi utsa dala.

— Lotsarik eztauke orreik. Emen diñuenaren aurka, an egin daroe.

— Emeko leluak ziñistu dagijen. Emen gagoz abertzaliak, geure landoletan geure alderdikuak eztiran batzuk alikatuteñ. Oneik jaurti gura doguzanian, eup-egitten dauskube sosolistuak.

Eta eurek «El Socialista»n eztabe iñortxu bere euki nai. Alderdikuak ixan biar.

— Begijak zabaldu-eragin daustazuz.

— Sarri zabaldu-eragitten dautzudaz, baña eztozu ikusi gura. Gaurko au eztozu alperrik galduko. Aterako dogu geure itzaldijetan. Atzalduko dautzudaz beste gauzatxu batzuk bere, sosolistuak eztiralako konturatuten, euren esanak batuten doguzala.

GORALBENAK

Aspaldijon gorasarre asko egitten dautsoez gixon batzuri. Ibaira bere buruba jaurtitten dau-nari bere, goralbenezko oturuntza emongo dautse. Baña oturuntzak eta txaluak, batez-bere lenago erregetar ixan ziran askorentzat dira. Gaurko erkaldarrak len erregetar ixan ziranai labankerijak egin gura dautsoez, eurek baña erkaldar obiak ixan diralako.

Guzurra idazten dodala? Eztot uste. Orain goralbenik andijenak yatzuz Españaiko erkal edo errepublikea sortu baño lenago erregiaren atzian ibilli ziranentzat edo jorralla-aurrian ixan ziran auteskunde edo botaziñoetan erregetarren kandidaturan curen ixenak sarri euzanentzat.

Meresi dabez olako oturuntzak eta goralbenak, iñoren bildurbarik aldatu diralako. Eguzkija nora, zapijak ara! Onetarikoen ixen bat? Bermeoko Santiago Diaz. Gixon onen ixena ikusi geban errepublikea etorri baño lenago, erregetarrakaz batuta. Bermeon Diaz jaunaren kandida-

turea errege-aldekuena zan. Ori mutikonduak bere ondo dakije!

Erregetarra ixan bazan, geuk eztaukogu errurik. Pekatu edo oben ezta erregetar ixatia. Baña Diaz orrek arin jakia aldatu eban. Orain eztaukozu gixon ori lako erkaldarrik. Demokrata zintzua dozu!

Igandian ikeragarritzko oturuntza emon dautsoe, bere bixitza gustijan erkaldar amorratuba ixan dalako. Eta gustijak pozik! Baña gexo au, gaurkua ezta. Antziñako gexotasuna da. Lenengo jazoten zana, orain bere ikusten dogu, ezkadixan ikeratu orregattik. Gixon batzuk alde gustijetan zorijona daukoe.

Alderdi batekuak dira nagosi? Gixon orreik, ba, areikaz ibilliko dira ta ez atzerengo mallan, lenenguak baño. Gero beste alderdi batekuak, datorz. Orrexek nagosi ixango dira.

Bijar barrabasan alderdijak sortuko balitz eta agintari ixan bere kidekuak, laster erri batzuta-kuak batuko litzakez alderdi orregaz ta eurek buru-ixango litzakez.

Olako alatz edo milagruak zelan egin dagikiezan? Orain arte gauza asko ikasi dodazan-arren,

ezin ikasi ixan dot alatz orreik egitten. Aurpegi gogorra biar da orretarako.

Eta olako goralbenak «txaketeruai» egitten dautsezan bittartian, gixon zintzuak, euren idea edo gogai zintzoro aldeztu dabenak, espetxeraturen dabez. Oturuntza edo banketerik eztago, zigorra baño.

Sarri zalantzen edo dudan egoten naz, ludi-jan zuzentasunik edo justizirik eztagola-ta. Eske-rrak neure buruba itxaropen bat yatortena. Emeko gauzak laster amattuten dira ta errijak gaur ezpada bijar, igarten dabe nortzuk diran zintzuak eta nortzuk diran malmutzak

Guzurraren laguntzaz gora igon diranak, laster jausten dira, ta jausi bere zarata galantakaz. Lotsagorrija geratuten dira.

Goralbenak ondo dagoz gixonarentzat. Alderdi gustijetan ixaten dira gixon onak eta txarrak, baña urtero alderdi batetik bestera aldatuten diranak, errija buru-ixan gurarik edozein bidetik jokatuten dabenak, orreik oturuntzak eztabez meresi.

Oraingo gorrotuak aztuko diranian, urte batzuk igaroko diranian, zelako barriak egingo

doguzan gaurko oturuntzak dirala-ta. Zoruak ete-gintzazan, alkarri ittaunduko dautsogu.

Lenguan batek esan eustan: oturuntza bat emon gura dautzugu, aspaldiko itzaldijak dirala-ta. Barre zantso¹⁵¹ bat egin eta erantzun neutson: Oturuntzarik ederrena eta goralbenik onena urkoen bijotzetan geurekanago mattasuna lortutia yaku. Sari ona ixango yaku, bestiak ontzat-artzen ba abez geure lanak.

Bidetik urten gara, emen esan gura nebana auxe zalako: Españako erkala elduko zan aurreko auteskundietan erregetarren kandidaturan sartuta egon zan gixona baña erkaldar oberik eztagola Bermeon. Erkaldarren eta demokraten eredu argijena, gixon ori dala. Poztuten gara ori jakitiaz. Eutsikai onak daukoz, uri orretan, Españako erkalak.

32-X-12

EUZKO-IKASTOLEAK

Gai onetzazko itzaldija entzungo dogu. Euzko-Ikastola-Batzak ardura andija darabil Euzkadi osuan euzko-ikastoleak sortarazi nairik. Eskubetan daukogu lenengo mallako «Zenbakiz-tija», «Nabarriztarra» argijak atonduta. Beste idaztiño batzuk onen ari-arian dagoz.

Orain baño len be, konturatu gintzazan euzko-ikastoleak dauken garrantzijatza, baña geure gurariak ezin betetu gebazan. Ikastoleak kurutza kendu dabenian artegatu gara eta arin-ka euzko-ikastoleak eratu nai doguz.

Kistartasunari etxako emoten bererik ikaske-tan: Españako lagijak —lagi orrein azpian gagoz, gura eztozun-arren—, kistartasuna kendu nai dabe umien bijotzetatik.

Basurdiak eztabe kistartasunik ikusi nai. Bixean neurri ona dalako. Ija kurutzaz batera erakutsi onak be kendu dabez. Ludija biribilia dala erakatsiko dautse. Edo itxas barruban arra-ñak dabilzala. Zelan edurra egitten dan? Baña

gauza orreikaz umiak eztabez euren jakingarri-
jak osotuten.

Bixitza onetako gora-bereak jakin-arren, bes-
tekuak be, jakin biar. Españako laterrijan diran
ikastoletan etxakie besterik erakatsiko. Au bide
yakula, geure ikastoleak eratu nai doguz.

Kistartasunak eskatuten dauna ta ludiko bixi-
biarrak, nai dauna. Gustija erakutsiko yake.
Baña kistar-ikastoleak lenengo mallan ixango
dira. Ori ezin aldendu dagikelako.

Umiaren bijotzean eratten dana, landara
biurtuten da. Eta azi txarra erein-ezkeruan lan-
dara txarrak baño eztira.

Euzkadin jayo danak, kistar-ikastoleaz baña
eztauko biar daunik. Geyago biar dau. Gauza
gustijen ganetik kistarrak gara, baña euzkota-
rrak garala be, ezin aztu.

Batzuk auxe aztu darue. Euzkotarrak diranik
etxakue bururatuten. Euzko-ikastoleak ixango
dira, ha

Geure ixatiari zer yagokon erakutsiko yake.
Orain arteko ikastoletan aldija galdu dogu, geye-
nok beintzat. Erderaz erakutsi euskuben dana ta
ezer ulertu-barik aldendu gintzan ikastolatik.

Gero Españako edestija, laterri orren aintzeak eta gora-berak ikasi gebazan, baña euzko-aberririk iñoz ixan danik bere ez. Boskarren Karla edo bigarren Pilipa nortzuk ziran, noren semiak eta zelako gudaketeak egin ebezan. «Guerra de la Independencia» ostera buruz-buru. Zaragozako Augustine nor zan oraintxe, be edestuko neuskixu Ikastolean erakutsi eusten, ba-ta. Baña Bizkaiko Jaunak zer egin eben eta nortzuk ixan ziran, Gipuzkoako batzarrak non egitten ziran eta euzkotarrak noz lurralde eder onen jaube egin ziran. Olakorik entzun bere ez.

Geyenean bere, Bizkaiko erririk andijenak zeintzuk ziran eta Nabarran ardaua artuten dala, Araban ostera berekatzak eta kipulak.

Eta gusti au, ezetarako balijo ezaban gusti au, erderaz. Gomutan daukot erritxu baten jazo zana. Ikastaro amaya zan eta umiai zer ekijan ittanduteko asmoz, juan zan jaun bat. Erderaz ittaunak egitten yakezan umetxu gaxo arei.

Mai ederrean jezarririk geure bigotedunak ittaunduten eutsen. Au zer da? Ume batzuk erantzuten eutsen, beste batzuk ez. Onetan mutiko polit bat eldu zan. Baserriko umetxu ederra.

«Don Bigotes» en ondora eldu zanian, onek arpegi baltzaz ittandu eutson:

— «¿Qué es estiercol?» Umiak begijak zabaldu euzan, baña ezin erantzun, ba, ezekijan «estiercol» zer zan-eta. «Burro» ta beste itz asko esan eutsozan «Bigotes»ek.

Baña aren onduan euzkeraz ekijan zaldun on bat eguan eta umiai esan eutson ixilka: «Sats txotxo, satsa dok estiercol». Eta badakixube zer erantzun eban umiak?

— «Ori esan ba eustan, erantzungo neutson, amaikatxu sats badago neure etxian-eta.

Orra zelan ikasiko eban ederto, baña sekulan entzun bako itzak zer esan gura daun, ezin jakin, ba.

Euzko-ikastoleak arteztuko dabez oker gustijok. Kistartasunari beria ta euzkotartasunari bere zor yakona. Orixe betetuko dabe geure ikastola oneik.

Gurasuak konturatuko ete-yakuz ikastola onein garrantzijatza? Argiro atzalduko doguz emen zertzalada gustijak.

URTERO...

Euzkadin argittalduten diran izparringiyak, urtero geure lagijen galtziaz, zerbait idatzi darue. Lerrotxu batzuk betetuko dabez, asarre gorrija erakutsi gura dabelakuan. Eta gero urte osuan zer dagije lagi orreik barriz lortuteko? 1839gko. urrilla-25 kna. gogoratutia, ezta okerezko gauzea, baña izparringijetan barriztutiaz, gauzarik eztagigu.

Urte orretan geure bixitzen galdu gebala, alderdi gustijetakuak ontzat artu darue. Ia eun urte onetan, Lagi-barik, gagozala, uste dabe. Baña egunero-egunero zer egitten dabe lagi arein alde? Edo zer dagije lagi areik euki euzan erri onen alde?

Ordu bateko edo biko lana, baño etxat urrilla-25karrenoko Españako agintarijen erabakijatzaz idaztia. Baña lagi arek ekarri euskuzan kaltiak kendu ta errijari bere bidiak erakustia, zallagua yat. Gixaldi bat iñoren azpijan daruagu ta lagi arein edertasunak nai dauzelakuan, idazten dabenak, eztira konturaten kendu euskuzan erri-

jaz batuta gagozala, beste edertasun geyako bere galtzen doguzala.

Lagijak kendu euskubezan baña lagi barriak egin geinkez. Lagijak eztausku ardura larrik emon biar. Baña lagijak kendu ta orren bidez geure gogua, be, kenduten dauskube. Orixe tamalena! Onetzaz, barriz iñok eztau idatziko.

Lagijak laster egin geinkez, gogo barri bat, euzko-gogo bat, ezin.

Geure irakaslia ixan zan Arana-Goiritar Sabinak sakonetik ezagutu eban lagi arein galtziak, zer atzalduten euskun. Beste iñok bere ez. Urteroko negarrak zer balijo eben ba? Izparringijetan arra baltzak jarri ta lerro luziak.

Argi ezagutu eban lagi areik Españako agintarijak ezeuskubezala kendu. Nok, ba? Geuk geurez galdu gebazan.

Iñoren bat ikeratuko da, orain diñodan one-gaz, baña egi utsa da. Euzkuak ezeuken abertzaletasunik, euren goguak zer balijo eben, ezekijen. Eta lenengo etorri zan lapurrak kendu eutsen bixitzea. Baña konturatu be, etziran.

Ordukuak, gaur be, jarratzallerik asko dauke. Negar batzuk lagijak dirala-ta jaurtiko dabez ta

gero españatarrakaz bat-batuta ibilliko dira. Bijo-tzean min andija emongo baleuskije urrilla25ko. erabakijak, laster aldenduko litzakez españata-rrengandik.

Beste batzun lelokerija, barriz, andijagua yaku. Lagi-Zarrak edo fuerubak zer ziran bere eztakijela, ostetasuna erakutsiko dabe. Españak emoniko lagijak badira, kendu euskuzanian eze-ban gauza txarrik egin. Emon euskuzan, berak kendu.

Eztira konturatuten zer atzaldu nai daben lagijak, geure lagi-zarrak. Abertzaliak, bai oneik argi dakije lagi areik euzkotarrok egiñiko lagijak dirala ez iñok emonak. Erri azke baten erabaki-jak dirala.

Eta lagi arein artian, antziñako euzko-gogua ikusten dabe, laterri azke baten gogua. Orregat-tik negarrak eta idazti luziak itzi alde batera ta zuzen-zuzen lan egitten dabe gogo ori barriz erne dedin azalera atera dedin. Barriz urrilla-25kna. baña lenago ixan zan eran Euzkadi jarte-ko? Ez, ordurako lagijak ez, baña gogua galduta geunken. Sustraira joten dogu, ez azalera.

Geure zeregiñak urtian bein barik urtian irureun eta berrogeta bost egunetan dira. Urrilla-25kna. ezgeunke ezertxu bere idatzi biar. Ori bego bestientzat, ezer urtian egin barik dagozenantzat.

32-X-25

UNAMUNOGAZ AUTUBA

Argijak diran gixonai itz-egin gura dautsezuan adiguritsu juan zayakez eta janaren egospena ebai etxakientzat, arte onena autetsi egixu. Idazlari baten egospena ebai-egittia lango ezpiarrik eztago!

Oldozkun ederren-billa bere buruba dabillan unian, idaztirik gurena iroldu-eragin zeuskijoke. Eulija sur-ganian jarten yakonian baño jarduntsubagua autuka datorrenaren ikerpena ixaten yako.

Unamunogaz autu bat biribildduteko unia noz autetsiko neban ibilli naz, baño aldiari itxadoten dakiiunoi arte onena eskuratu yaku. Egospenik eztautsot lapaztuko!

«El Otro» ezaupidetzat daukan antzerkija erdittu dau. Laster ugutzau gura ei-dabe.

Une onetan Unamuno non aurkuttiko neuke?, kolkorako diñot. Akettetxe batera sartu naz, Madriden akettetxiak izpar ta loikeri gustijen «etxekoperubak» diralako.

— «Teatro Español»en daukozu —erantzun dauste. Araxe nuan. Antzokijetan ixaten diran «gixon berdiak» —emakume lodikotiai jarlekuba erakusteko—, aurrera juatia laketu dauste.

Eragozpen gustijen labangarri diran laurlekuai euren laguntza eskatu-ostian antzokijan sartu naz. Borrás, Rivas Cherif eta Xirgu (Margaritte) bere inguruban daukozala, Unamuno ikusten dot.

Mirotzaren pikua ezeze moxolluarena aren surra irudi yat. Urrezko betaurrekuak daukoz eta bixerrak ondo biribilduta. Goringorik ez ei-yako bixarretan geldittuten arrautzak jaten dauzania!

Soñanzki urdiñaz ber soin lerdena estaldu darua. Gixon zur-antzekua agertzeko aznaya dauko, baña Euzkadiko mutilkote baten itxuran bere gorputza egitten dausku. Txaleko ganorabakoz, oski motzez eta kapel borobillez edertuko ezpalitz, Unamuno jakintza barna dabillenic iñori eleikijoke bururatuko.

Ludiko izparringijetan agertuteko asmoz baña argazki dotore bat egiña dozu. Eskatu biar dautsot eskatu!

Aditzaren lenengoa iñok baño obeto ikasija dozu: neu naz. «Zeu zara, bera da» esaten dogunok, oker gabiltz. «Neu naz» baño eztago.

Agurrak eta labankerijak alkarri egin ostian, autuka asi gara.

— Nor zattut, ene gaste? —ittandu daust. Neure ixenik iñoz entzun eztaun ezkeru, ziero aldeko gustijak atzalduten dautsodaz. Bere begi zorrotzak enabe largetan.

— Euzko-izparringi bateko autukarija nozu. Zerbait azkenengo zeure antzerkijetzaz idatzi nai, neuke.

— Gaste errukagarrija! Zeure etorkixuna erraustu dozu. Euzkerea beyak eta ardiak jabeteko baño gauz ezta. Lantxarretan aberiak larratuten dabillenak euzkerea naiko dau, baña Europako jakintza barna gabiltzanok ele orregaz ezertxu be ezin dagikegu. Txorijak erailteko «espingarda» bat dozu.

— Baña —eragotzi neutson—, aldi baten euzkerea matte zeban. Katedra bat jardetsi gurarik larri ibilli ei-zintzan.

— Orretzaz enaz gomutetan.

— Neu bere ez.

— Euzkerearen il-otoyak laster entzungo doguz. Ezetarako gauz ezta! Zelan izkuntza orretan atzalduko zeunkez neure olerki oneik?

«Tierra de soledad, guarda en tu seno
mi soledad, hermanas soledades,
que almas son las dos;
tierra de soledad, campo sereno».

Bertso oneik begijak zerurantz bijurturik oguzi eustazan. Eta neure battan nenguan unetxuban, bere begi zorrotzakaz barreka-barreka adittuten eustan.

Unamunoren argalkerija zein dan aspaldijon dakit: olerkari ixatia eder yako, zerubak baña ezeutson duairik emon. Zerubari laido-egin gurarik bixitza osua ostera bertsuak egitten iraundau. Zigor askoren artian txarrena ludijarentzat olerkari-aldrea ixan da. Olerkari txarren aldrea!

Olerkijetzazko autuba darabilgu, ba. Unamunok elertijak sakonkiro ezagututen dauzala erakusteko, diraust:

— Euskadin «Gernikako» sortu zanetik besterik jayo da?

Ezetz erantzun dautsot. «Gernikako» egin ostian euzkotarren artian olerkijetarako duairik etzan geratu. Urtiak jua urtiak etorri oraintxe bigarrena ludijan agertu yaku.

Bigarren au Unamuno dala, gustijok dakixube! «Bertso zarrak» deritxoen batzuk erakutsi daustaz. Ederrena olantxe: «Milla zortzireun ogeta bijan...

Unamuno langorik eztago!

Baña arittik urten garan ezkeru, autura jo dagigun. Antzerki barrijetzaz zerbait jakin gura neukela atzaldu baño len jardetsi daust:

— «El otro» Kain goralduteko egiña da. Belaunik-belaun iraindu daben gixon ori begiko yat. Abel ostera naskarrija dirudit. Neure ustia auxe da, bai?, eta antzerkijan orixe atzalduten dot.

— Baña asmo orrek aldezlari zelan zaukoz?

— Eberen idaztijak?

— Bai. Ebek idazti asko itxi euskuzan baña geyenak galdu dira. Neuk daukodaz batzuk.

— Euzkerez idatzijak?

— Ez; euzkerazkuak Larramendik jarauntsi ebazan. Eladeraz idaztijak neuk daukodazanak

dira. Platonak laster izkuntza orretan jarriko dauz neure idazti batzuk.

— «La Difunta» bat ixango da-edo.

— Zelan jakin dozu idazti ori egin nebala? Jakintsutxuba zara...

— «Andrenio»k antzerki ori aztertu ta zigortau eban. Irolan sartzeko antzerkija zala, esan eban.

— Bekatxa! Oraingo onetan baña neure asmuak argi atzalduten dodaz. Bestiak bide batetik ba-duaz, bestetik juatia atsegin yat. Oker-egin gustija. Gixon ospetsuba ixango bazara, auxe begijetan sartu: Urez barik, urez-gorazuaz. Emakume bat liraña dala esaten dabenian, itxusija dala jardetsi. Ori txarto egiña da, entzuten dozunian, ezetz erantzun.

Eskubak alkarri estutu ostian, banandu gintzan. Rivas Cherif jaunak barre-egin eban. Eta bein eguratsa ikusi nebanian neurekiko oldoztuten asi nintzan.

Gixon au aipagarrija ei-da. Irakurgai on bat oindiño eztau idatzi. Olerki-idazti ederrik eztauko. Berekottasuna, arrokerija ta lelokerijak baño eztira irakurten bere lanetan.

Erderea biar zan olako gixon bati miesa emoteko! Atzagarriak. Autu, conversacion, Lapaztu esnia esaten da, cortar baña egospen edo digestiñua be, esan dagikegu. Erdittu, parir, Etxeko-peru. Itz au zer dan iñok eztaki iñok oriñela esateko artu eban baña. Aznai, prurito. Argazki fotografia. Ziero edo minuciosamente. Larratu, apa-centar. Belaunik-belaun, de generacion en generacion. Jarauntsi, heredar. Irola, retrete.

1) «La Difunta» antzerkija antziñatxu Unamunok idatzi eban. Txistuka ikusliak egin eutsen. Gero «Andrenio» eritxon idazlari argijak emonemonak egin eutsozan.

2) Unamunori olerkari dala entzutiak atsegin emoten dautsola, sarri entzun dogu. Salaberria jaunak «Retratos» idaztijan ara ze dirauskun»... diríamos que Unamuno cambiaría sin vacilar toda su obra de prosista por el solo título de poeta». Idazti eder orren 160gn. orrijaldian ara zer irakurri dogun: Efectivamente, Unamuno, como poeta, es la negacion de la gracia; la no gracia; la gracia al revés». Eurija dok, etxera mutikuak!

3) «El Otro» ixenpuru daun antzerkija idatzi dau. Entzun dogunez lelokeri bat geyago askoren artian.

4) Unamunok Bizkaiko Aldundijan euzkerea erakusteko zan ikastolean jarlekutxu bat gura eban. Arana-Goirik onetzaz zerbait idatzi eban EUZKADI aldizkingijan.

5) Unamunok euzkeraz noizpait idatzi eban. Gernikako zugatzaren goralbenak.

Uarra.- Olako autubak argittalduko doguz. Izparringijetan oraingo dira idazti tankera oneik. «Mussolinigaz autuka», urrengua ixango da.

32-X-29

MUSSOLINIGAZ AUTUKA

Esku bat gora jasota, ukabillaz bere itzai indarra emoten dautsen bittartian, berein gaste aurrian daukoz. Arkondara baltzaz jantzitta dago. Aizkora baten kask-kask gogorrez Duce onen aurpegija laukittu dabe.

Orianik atzaldu euskun erara, «rivolta ideale» bere barruban darua. Mokoz-moko edo begiz-begi ixan, gixon onen aurrian txapela erantzi biar dogu. Zabalgunde gustijetan «chi ha del ferro ha del pane» usaña darijo. Gari ta burni bere itzak dira.

Capitolium-ganian batzar egitten dan ezkerro, araxe zuzenduten gara. Aintzindari orren begijak ikusi gura doguz. Galotarrak gudarakuan ziran orduban oyu-egin eben artzarrak, orainguan be mendi-goï orretan dabiltz. Euren diadarra Mussolinik entzun darua.

Non jayo dan eztautsogu ittanduko, Predapion sorterrija daukolako. Romaña inguruban. Euzko-basetxe antzeko etxiak antxe dira. Gasta-

ruan burnijak gorittu edo ezttuten ibillija da, attearen ogibidia orixe batta.

Baña burnijak alde batera jaurti-ostian Italia-ko gogo edo arimak galdatu ta sendotuten diñardu.

— Fascitarrak zein sorpuru ixan eben?

Mussolinik tinko adittuten daust. Ludwigegaz balego be!

— Italiarren ixatia il-zorijan zan eta bixitza gurari batek, ludijan iraun nai elgor batek sortarazi eutson. Alderdi onek beste ixaterik eztauko. Neure ikurritza 1910gn. urtetik auxe: «guda-egin iragi-bidez».

Sarri «Il Popolo d'Italia» izparringijan atzaldu neban: aberrija dongetsi barik lortu daigun. Lan naskorraren bittartez lan iraunkorra egin nai dogu. Roman sartu nintzarian auxe esan neban: Guda orduba eldu yaku. Jaun-Goikuari dei ta Europako gudean il diran eun milla italiarrei. Oneikaz Italiaren gurentasuna barriztuko dogu.

— Zeure lenengo asmo oneik zelakuak ziran italiarrak igarri eben?

— Alde gustijetatik arerijuak urten yataz. Curzio Malaparteren idaztijan neure arerijoen kasa

aurkittuko dozu. Aldi aretan Italia iñoren men-
pian eguan. France jaubie zan. Baña aberrijaren
tankerarik be, etzan ikusten. Orokerizaliak,
socialistek eta masoyak arrizkurik-arrizku era-
billen.

Neure agerkundaz gusti onek etsai bijurtu
yatazan baña erriak arerijoen lanakaz sendotu-
ten dira. Arerijorik eztaukon errija, erri galduba.

Mussoliniren itzan barrenean sartuten yataz.
Geure aberri onetzazkuak dira. Erara yatorkoz.

— Eta zer onik zeure agintzaltza onek Italiari
ekarri dautso?

— Italia atalduta, zatittuta eguan bere gogua-
ren oroi-barrk. Abertzaletasunik etzan. Gaur gas-
tedi osuak Italia baño buruban eta bijotzean
eztauko. Antziñako Imperium, ludiko buru ixatiak
jo gauz. Erromatarren semiak garala ikasi dogun
ezkero, areik egin ebezan lan aintzagarriak
barriz ludijan barreyatu gura doguz. Aginddute-
ko abots bakar bat baño Italian ixan dagoke,
beste gustijak abots orren esanak betetuko.
Laterri baten oindiño eztoigu ikusi emen ikusi
doguna: gastedi osuak atsedeen eta jolasak itxi
dauz Italia Barrija sendotuteko.

— Baña Imperium gogai orreik guda diadarrak dira, bakiaren aurkako zarateak?

Duceren ezpanetan barre-irri ankerra agertzen da. Eskuba luzetuten dau ta ikabilia biribildu-ostian erantzuten daust:

— Gastedi argi ta sendua euki gura badozu, euren begi-aurretik ezegixu guda baten itxala kendu. Urbil gudea eztakustenak galduta dagoz.

Ganera Italiak oska ta didarka gudea nai daula zabalduen dau. Baña ixilpian Europako laterriak ixotuten dabe. Gastien obena geure obena: Barruko gustija agertu darue. Erri gaste bat sendotu gura dogu, ba-ta...

— Aintza-zaletasun orregaz bere eginbiarrak alderdi orrek osatu dauz?

— Ez. Gomutaratu egixuz Italiako 1920 eta 22gn. urtiak. Lurrak eta oleak langillien eskubetan jausi ziran, eguneroko matxinadeak eta oporketeak. Agintaririk etzan edo ziranai iñok jaramonik ezeutsen egitten. Agintarirki biar yaken itxala gaurkuak ikasi dabe. Bide barriak, bultzijak, aberastasunak gettu doguz. Italia osuan bakia baño eztago. Orain artekua matxi-

nadea baño ezta ixan: lengo etxe zarrak lurrertu.

Abiak sitsak janik egozan ormak karraskatuta. Lurra-joeragin, bai?, eta barriz iragiko doguz.

— Egitarau gurena daukazun ezkerro, esango zeuskit norantz joko daben Italiaren indarrak urte onettan?

— Amar urte biar doguz. Italiak ludijaren jaube ixan biar dau. Gudaroste-otsak, izkillu-dir-dirak eta gurenda-diadarrak entzuteko Romaganera jausi gintzan eran beste ludiko urijen ganera be jausiko gara.

Kaxer bat begi-aurrian daukola iruditten yat; Augustus etzan Mussolini baxen arrua.

— Edestijaren txirrijak igittuteko odola langorik eztago. Italiarrak antziñako ixatiaren sustrayak aurkittu biar dabez bide barriak zaborrak barik itxitteko. Roma zutunik jarten danian, barriz ludi osua be, zutunik barri dedilla.

Turuta-otsak eragin dautse gastiai. Millaka dagoz. Arkondara baltzak eta galtsu-txortakaz Duceren aurretik igaroten dira. Eskubak jasoten dabez. Italia odol beroz barriztuta datorrela irudititu yat. Eta neure aberri onetan Mussolinik sen-

dotu daun gastedi baten antzekua piztu nairik, eskuba jasoten dot.

«Rasci di combattimento», «revolte ideale»!
Gixon ori Euzkadin sortu ba-zan! Eta Capitolium-tontoretik jatsitten nazan bittartian, Sorelek idatzi ebana bururatu yat: «Geure Mussolini edo- zelako sozialistea ezta. Ziñistu egistazube. Gudaroste baten aintzindari ikusiko dozu, bere ezpataz Italiako ikurriñari agurra zinkatuten. XVkn. eundiko italiarra da, condottiero bat. Oin-diño iñok eztaki: baña Jaurларijan biguntasunak sendotuteko gixona auxe dogu.» Franceko idaz-lari baten itzak dira. Sorel nor dan edonok daki. Lenin eta Trotskyk be, 1922gn. urtian euren alderdikuai atzaldu eutsen: Gixonik andijena galdu dozube. Gurendara eldu-eragingo eutson geure alderdijari, baña azkenengo jokua beragaz batera galdu dozube.

Eta Mussoliniren abotsa entzuten dot! Irraso-yak be, itzaldi gurenak belarriratu daustez. Ludi-jak dardar-dagi gixon orren itzak entzun ostian. Italia aurrera dua! Etsai edo arerijuak daukoz ta ludiko aintzindari ixango da.

Gastedi sendua, euki gura badozu, begi-aurrian guda bat jarri egijozu. Gari ta burni-itzak Mussoliniren itzak. Entzun gura neukez entzun geure aberri onetan!

Atzalgarridak.- Berein, muchos. Añibarrok: Berein il ixango dira. Laukittu, lauki, cuadro, lau-kittu, encuadrar. Mokoz-moko, frente a frente. Aintzindari, jefe. Eztittu, dulcificar. Ikurritza, lema. Barreyatu, difundir. Gorai, idea. Abe, viga. Agurra zinkatu, saludar.

32-XI-1

OLDOZTUTEN

Il ziranak betiko bixitzan dagoz.

Erijotzaren bittartez baño bixitzarik ezin geinke jaretsi. Erijotzaren itxalak zeure begijak estalduko dauzanean ludiko argirik eztozu ikusiko, baño argirik ederrena zeure barru-barruban aurkittuko dozu.

Erijotza matte ez. Orain egitzat daukazun guzurak erakutsiko ba dauskuz.

Geure battan bixitza dala uste doguna erijotzarako bidia baño ezta.

Orain egunak eta gabak doguz, baño Egun Osua gero ikusiko dogu.

Sendiko bat ildden yakunian gorputzaren erijotza baño eztala ixan eztogu oldoztuten.

Geroko bixitzarik ezpaleko alperrikuak litxakez geure lanak.

Espetxeko ormak apurtutia baño erijotza ezta.

Il diranai negarrik ez, betiko atsedena lortu dabelako.

Sendiko bat ildden yakunian poztu gadixan:
geu ilgo garaneko aldezlari bat daukagu.

Illobijetan erijotzaren irudirik ezkeunke irarri
biar bixitzearena baño.

Erijotza onik ez txarrik eztago: bixitza onak
edo txarrak bai baño. Erijotza zelakua ixango
dan, geuregan daukagu.

Orain ustelkorra ta erijotza eretten dauzanak
bixitzarik eztau gero batuko.

Bixi zadiz ilddeko eran eta bixitteko letz ilgo
zara.

Ziñismen barik erijotza bilddurgarrija bada,
ziñismenaz pozkarrija.

Gurutzak betiko bixitzako atiak zabalduten
dauz baño batzuk txerrenaren burruntxijaz
zabaldu gura dabez.

Bixitzako bidiak era bitakuak: loraz beterik
batzuk, baño azkenian negarra. Arantzaz beterik
diranak bestiak, baño amayeran Kisto geure
Jauna.

Txerrenak betiko erijotza opalduten dausku,
Kistok betiko Bixitzea, zalantza-barik Kistogana
juan biar gintzakez.

«Otoi bat eta gero arte» ilddegi baten datza.
Erijotzaren arerijo andijena itxaropena dogu.

Gixonaren jayotza siaskan eta erijotza gurutzan ixaten dira, baña azkenengua benetako jayotza.

32-XI-2

ELERTIJAK

LABERTHONNIERE

Oraintsu, lekaidia ta idazlia zan au il da. Iru-rogeta bigarren urte-ziar ebillan. Juilly ikastetxian luzaro egon-ostian «Annales de Philosophie chrétienne» deritxon aldizkingija argittaldu eban baña Doibatzak, ziñismenaren mokoz-moko zan zerbait bertan aurkittu ebalako, dongetsi eban.

Aldizkingi au Laberthonniere abea aldendu zaneko itto zan. Bere alegiñak beste bide batera zuzendu ziran. Gastiai azijera ona emoten arazopetu zan ezkerro, gai onetzaz idatzi batzuk birbilddu ebazan. «Théorie de l'éducation» goren-gotzat autetsi dabe.

Lekaidia zan-arren, Franceko izparringi geyenak gixon au goraldtu dabe.

IVAN VAZOV

Bulgarian zanik olerkari argijen onen erijotza aberri osuaren negarra ixan zan. Laterri onetako elertijak gixaldirik eztauko. Barrija be, barrija da.

1840gn. urtia baño len, ogetamaika idazti etziran bertan aurkittuten. Otoi-idaztiñuak eta ikastolaetako zerbait: besterik ezerez. Turketarrak eta errusittarrak gudean sartu ziranian zortzi-reun baño geyago ziran Bulgariako idaztijak. Ordutik ona olerkarijak, idazliak eta izparringiak gettu dira.

Bessonowek erriko olerkijak batu euzan. Geroxe Miladinowek.

Euzko-elertijak eta Bulgariako orrek alkarren antza darijoe. Elitxake lan txarra gai onetzaz idaztia.

Ivan Vazov olerkarijak lanik gitxijen aberriko elertija goralduteko ezaban egin. Amaika urte il zala dira. Sofia urijan jai andijak bere oroimenez eratu dabez.

NOBEI-SARIJA

Jakingo ete-dogu jakin nori erantsi dautsen! Estokolmon jayo zan aberats batek itxi euzan dirubetatik sari ori osotu zan. Elertijetzazkua bakarrik ez, jakintza, akilan, eletiztija, bakia be

sari orren kolkuan diralako. Elertijatza zuek zere-giñik geyenak emoten dau, barriz. Arrosko dirala lumadunak?

Eztakigu, ba. Orain arte abixen bi entzuten ziran sari orren oñorde, baña Franceko idazliak euren aberrira etorri biar daulako zurrumurruba darabille. Paul Valery olerkarijari emongo dautse-edo. Ludiko olerkarijetan gorengo auxe dago. Onegaz batera Stefan George doistarrari, be, erantsi gura dautse. Liliencron eta Mehmel ilostian, doistarrak olerkari oberik eztabe euki Stefan George baño.

Valery eta George, bijok olerkari ulerkatxak dira. Errijak eztau orrein neurtitz bat ulertuko. Nobei-sarija eurekananduko-ete? Zaparrada andijak entzuten dira.

Sari ori lortu daben batzun ixen-abixenak ona: Carducci, Sienkiewiez, R. Rolland, Rabindranath Tagore, Heyse, Rudyard Kipling, Maeterlinck, Etxegarai, Mistral (onei batera).

Urte batzutan sari ori etxako iñori emon. 1914gn. Gai onetzazko gora-berak atzalduko doguz.

ARRIKADEA

Elertilarijak alkarri ibilli dabiltz. Orainguan Breslauko idazle batek margolari ospetsutzat geunkan Rembrandteri arrikada andijena jaurti dautso.

Hauthner idazliak irizketazko idazti bat erditu dau. Eta ingoski osuak gauza bakarra aldeztuten dabe. Rembrandt etzala margolarija ixan, iñoren antzekijak atzemon eta bere ixenpia jaritzeko baño.

Orain arte margolari gorengotzat geukana lurra jota ikusiko dogu-edo. Belgique aldian burruka andijak sortubazo dauz.

GABRIELE D'ANNUNZIO

Italiako idazlari onen bixitzea argittalduten asi dira: «Curriculum vitae di Gabriele D'Annunzio». Antona Traversi idazlia egillia dogu. Idazti bat ezeze lau-bost ixango dira. Lenenguan D'An-

nunzioren 1863-1910gn. urteragiñoko gora-berak atzalduten dauz.

Olerkari ta idazle askoren Irakaslia D'Annunzio ixan da. Ludijan beste bi etziran au beste irakurrijak ixango. Gaur D'Annunzioren idazkerea orainguan eztago. Gabiko baten legetxe itzak sendotuten euzan. Wilderen antzekua ixan da. Portugalen D'Annunzio lakoxe bat izan tan: De Castro. Idazle oneik erromatarren emakumiak eruaten ebezan soñanzki zabalakaz letz euren gogayak estalduten ixan dabez. Gaur, barriz, ostez-oste orreikaz idazliak dagoz.

«ZENBAKIZTIJA»

Idazti onegaz jazo yatana badaezpadakua ezta. Apal-ostia neure esku-artian jaso neban. Apal-ostia lango ordurik idaztijak irakurteko eztago.

Leyua zabalik ba-daukazu, argira aneika mitxileta etorriko yatzuz. Baña gabeko irakurrijak beste onura bat daukoe: urrengo goxian bixi-bixi gomutan dagoz.

Bart, ba, «Zenbakiztija», Euzko-Ikastola-Batzak argittaldu daun zenbakizti barrija jaso neban. Olako idaztijak aldija igarotekuak barik zentzunez arakatutekuak dira. Burubak lan egin biar dau! Edonok nekegarri dirala idazti orreik esango leuke.

Lenengo ingoskijan asi nintzan. «Arana-Goiritar Sabinen gomutez», neure begijak aurkittu eben. Idazti baten aurrian jarteko itzal txarra ezta, itzal ori. Arana-Goiriren babespian ondo dago.

Euzko-elertijak beste nori bere lorakuntza zor dautso? Ganera geure Irakasle arek umiak begi-

jetan erabilli euzan. Gomutan: «Umiaren Lenengo aizkidija» Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko. Buru-argija zan eta umiak ikaspidez aztia zer zan ondo ekijan. Euzko-Ikastola-Batza ixango ete-zan Sabin ludijon agertu ezpazan? Neure ustez, ez. Euzko-Ikastola-Batzarik etzan sortuko Sabin jayo ezpa-zan. Nori opaldu idaztiño au, ba?

Apal-ostian, «Zenbakiztija» irakurten asi nintzalarik gogai onexek erne yatazan. Mai-ganian idazti barrijau zabalik neukan. Sabinen gomutea neure ametsetan nerabillan.

Bigarren ingoskira juan nintzan. Ara zer aurkittu neban: «Zenbakiztija, Lenengo mallea. «Nabarriztarra'k atondu ta Euzko-Ikastola-Batzak argittalduta. Bilbao, Verdes-Atxirikatar E-ren Irarkolea. Correo-9 eta Cruz-5».

Nok atondu, nok argittaldu ta non irarri daben, gustija jakin dot. Eta nor da «Nabarriztarra» ori, ba? Bere etxian ezaguna? Ez, geure euzkera onetan sakonkiro diñardun idazle argijene-tariko bat «Nabarriztarra» dogu. Ointsu «Josutxu» otoi-idaztiñua argittaldu dau. Lenago barriz «Aste Gurena». Gipuzkeraz «Gramatica Vasca» eta beste sei-saspi idazti geyago. «Amaika gabe-

tako ipuñak» bere, idazle onek euzkeralduten dauz.

Orren besteko langillerik euzkerek eztauko. Euzkeraz ondo idazten ezeze, euzkerea sakone-tik arakatuten be, ondo ikasija dogu. Zenbakizti-jau artu ta irakurten asi nintzanean amarrak ziran. Lenengo igoskijak argi-argijak ziran, bai?, eta irakurtiari emonik aurrera ekin neban. Begi-jetan lauso bat egitten yatan. Zer ordu ete-zan? Ikeratu be ikeratu nintzan. Gabeko ordubatak! Zenbakiztija gotti-beraño arakatuta neukan. Zer atzalduten dodan onegaz? Irakurgai edo nobela baten antzekua, idazti au dala. Atsegiñez irakur-ten dogula. Eta auxe bai gauza zalla akilan idaz-tijetan. Jakintza-gauzak nekegarri yakuz, idazliak sikuegi atzalduten dauzalako. Ezin ulertu ixaten doguz.

«Zenbakiztija» au egin dabenak ederto zuzendu dabe okerra. Aranoa jaunari iruditxu batzuk egin-eragin dautsez. Umetan gura ixaten gebazan «santuak» daukoz. Gero asmakixunak, eragokunak eta abar edonok ulertuteko eran idatzi dabez.

Olako erraztasunak eta euzkera begiko-begikua aurkittu neban ezkeru, iru ordu luze igazi yatazan. Eta konturatu barik...

Eta itz-barririk etzeban aurkittu? bato-batek, ittanduko daust. Bai, gixona, ainbat aurkittu be. Baña itz-barri orreik ondo-eratubak dira ta beriala ulertuten nebazan.

Lenengo orrijan «akilan» ikusi nebanian «cultura» adiralduten eustala, ondo igarri neban. Zatiki, zenbakettu, zenbakendu ta abar erraz ulertuten dira. Ortxe «meritua».

Itz orreik Arriandiaga abeak egiñak dira edo. Asko bayetz uste dot, aren tankerea dakae-ta. Baña itzok ulertuten eztabezenentzat ingitxu bat argittaldu dabe. Erderaz ta euzkeraz itzak antxe dagoz.

Kalterik baña umiai egingo ete-dautse itz barridak? Ezetz uste dogu. Umiai bardin yako itz barridak ikasi edo zarrak adiraldu. «Suma» zer dan eztaki. Zenbakettu zer dan bere ez. Atzapen asko egin-arren suma zer dan ulertuko dau? Eztakit. Baña zenbaketturen itxorkuna erakutsi ezkeru, betiko buruban sartuko yako. Orain arte onen antzeko zenbakiztirik ezkeunkon. Euzko-

Ikastola-Batzari eskerrak ikaspidietan soñutsik ezkagoz. Laster beste idazti txukun bi argittalduko dauskubez.

Euzko-abendearen egunetan egin eztana, gaur egitten dogu. Aurtengo urtia geure edestijan irarri dagigun; umiak euzkaldunduten asi garalako. Beste biderik eztago!

Euzkera galtzen duala, esan darue. Egija da. Zelan oker au zuzendu? Ikastoletan sartu zadi, andixek lan gurena egingo dozuta. Euzko-Ikastola-Batzaren asmuak goralgarrijak dira.

Geure zorijonik sutsubenak idaztiño au atondu, argittaldu ta irarri dabenai. Lenengua gauza ederra ixan yaku. Bigarrenaren zai gagoz.

32-XI-5

IXENDEGIJA

Gixon batzuk zoritxarrekuak dira. Eurek egin daruenak bestiai min-emoten dautse. Eta gixon orrein ezpiarrak txaide-ziar barik gela baten sartuta bixi diralako ixaten dira.

Ludi osua geure idazkolea baño eztala uste dogunian gauza onik eztogu egitten. Gixon orreik gurenak ixango dina-edo. Ezetzik eztiñogu, baño buru-argijak diranarren eurek nai dabena ezin dagikie.

Olakuak batzar baten aintzindari diranian, barriz, eurena entzun-eragin gura dabe. Bestiak ixilik begoz!

Eta gustijen iritxija entzutia gauza atsegingarrija ezeze biarrezkua da. Entzun ez egiñezkero, ondorenguak on-onak eztira ixaten.

Euzkeltzaindiak «Ixendegi» barrija eratuteko asmua artu dau? Ala batzar orretan alde dan batek asmo ori osotu dau? Euzkeltzandian diran batzuk gaur olako txotxolekerijakaz zeira etorteko baño buru argijagua dauke.

Euzkeltzaindikuak erabaki ori eztabe artu. Ixendegi barri bat egitterik eztabe erabaki. Zegattik? Aspaldijon egiña dalako. Urte askotxu ezeze oñaz geyegi lepuan eruan dauz ixendegi orrek.

Euzkeltzaindia jayo barik zanian euzkotarren Ixendegija bixibixirik ebillan. Agur onik ezeutsen egin jauparijak eta gotzañak, baña orreik gora-bera amaikatxu umetxuk euzkei-ixenak daruez.

Bati bururatu yakolako oster, ixen orreik aldatu biar doguz. Eta nor da berori? Euzkel-ixenik entzun be entzun gura ezebana.

Burlezar ixen orreik artuten ixan dauz. Orain baña Euzkadin, gelan sartuta dagozanak gura ez-arren, euzkel-ixenak barreyatuten diran ezke-ro, jaun argi orrek beria ezarri gura dau.

Ikurriñagaz jazo dana orain be jazoko dala-kuan gagoz. Euzko-ikurriña Arana-Goirik asmau ebana da. Euzkei-ixenakaz be, bardin jazoko yaku.

Oker batzuk eukiko dauzala? Jaun-Goikua etzan!. Erakutsi okerrak eta zuzendu, baña beste Ixendegi bat egitteko asmorik ez atzald.

Ixen orreik geyegi kostau yakoz abertzaletasunari gaur edonok otzarara jaurti dagijazan.

Au eztala Euzkeltzaindiaren asmua? Badakit, baña izparringijetan euren ustia eztanik, ez argittaldu. Intentziñuak ezin jakin dagikeguz. Batzuk eztirala Ixendegi orretan? Orain artekuan diran arau-bidez barriak be, eratu.

Erri baten aurka asmo ori aurreratu gura badabe, oker dabiltz. Gauza zalla-ixaten da abenda baten bide-ostez ibilttia. Ixendegi orrein asmatzalliarri orixe j azoten yako.

Euzkerea berak baño bestek ezpaleki, pozik bixiko litzake. Len Arana-Goirenen aurka egitteko Eleizalderen laguntza gura-ixaten eben. Orain baña Eleizalderen uarrak eta Arriandiagarenak Sabinenakaz adizkide dira.

Arana-Goirik baña lateraz, gerkeraz, doitxeraz, pantzeraz eta beste iñundiko elietzaz ezer txu be ezekijan! Orain sortu diran buru-argijak dana dakije.

Zoritxarrez baña biarren dan gauzarik eztakije: euren aberrija matte-ixaten. Tamal andija Euzkeltzandian diran gixon on eta abertzale zin-

tzuak ezagutu ta baten asmuak ontzat-artuten ikustia.

«Euskal-Erria», «Euskeria» ta koplak darabillez. Laster Euzkadi. Baña artian al-daben kaltia egingo dautse Euzkadiri. Erriyak matte daunaren aurka duazala jakingo dabenian Aranarena dala-ko, Euzkadi, eurek EUZKADI.

Gelan sartu barik urten kanpora. Erriyak nor matte daun eta nori jarrattuten dautson ikusiko dozube-ta. Euzkeltzaindian asko dira ori ikusten dabenak. Eta euren artian eztabaida onek Euzkeltzaindia zatittuko dau. Aldija ziñaldari bedi.

Eta Eleizalde zanaren gomuta bixija askoren artian dan ezkerro, arek idatzi ebazan itz batzuk ementxe jarriko doguz. Euzkeltzaindiak euki dauzan gixonetan azkenengua a etzala, uste dogu.

«Aurkeztu dizkitzudan adi-bidiak, ene irakurlea, adirazoko zitzuten orain ezkerro zelako «ajolaz ta jakitez» egin izan duan Arana-Goiritar Sabinak izenen euzkeralbena. Ixendegi onen «kaltez», ekite biderik ezdago iñundik ere. Gaurgeroz, bai-du Euzkerak, teste ele orok bezela, bere Ixendegiya, sorkunetarik artuta, jakite

zurraz eralduba, gure elearentzat ezin egokiya-
goa».

Besterik ezin esan dagikegu. Eleizalde Euz-
keltzaindikua zan eta aren itzak oraingo oneik
oldoztu begijez.

Zeozetan oker Sabin ixan zala?Atzaldtu zetan,
bai?, eta gero ontzat-artuko dogu. Baña osuan
beste Ixendegi barri bat egittia erabaki. Ori etxa-
ko bururatuko zentzunik daukonari.

Eta abertzaliakaz ezer gura eztaun ezker
«idea gurena» bururatu yakonak, karlatar edo
tradizionalistai, zarrontzaliai, aginddu begije. Ia
arein artian Mari, Txomin, Peru ta olako ixen txu-
kunak «modako» egitten ba dira. Baña abertza-
liai gaur olako erabakijakaz? Bai zera!

Bidezkoa erabaki bakarra ixango zan: len-
guak ontzat-artu ta arian uts ba da eratu.

Abertzaliak au, ori, ta bestia: astuak,
papauak, ezer eztakijenak ixango dira orre
ustez, baña Euzkadi euzkotuten dabe. Eskerrak
abertzaletasunari urtero-urtero ainbat idazti
argittalduten yakuz. Eskerrak abertzaletasunari
euzkel-ixenak gettuten dira. Euzko-Ikastoleak
sortu dira. Eta bestiak egin dabenari uarrak jarri

gura dautsozanak ezpegi itzik egin. Euren aurka badago gitxijago.

Onean onegijak txarrean erantzuten jakingo dogu. Pozik ei-dago norbait orain sortu dan eztabaida au dala-ta. Euzkeltzaindia ez ostera. Bat edo bi bakarrik. Baskongaduak baño ez, euzko-tarrak ixendegi barrijak egitteko asmorik eztauke!

32-XI-9

BIDE ONEZ

(Un señor diputado: La patria es España.
El señor Agirre: Mi patria es Euzkadi.
Izparringijetatik)

Gogo-artegetzat gaste batzun goguak autetsi daruezanak, au, olan egin biar dogu, bestia onetara, ibildden dira. Zentzun-bidez gauzak egin biar dirala, ba!

Zentzuna sarri askotan, ostera, alde batera itzi, bai? eta odolak erakusten dauzan bidiai jarraitzea onena ixaten da. Gastedijak geyentan apara-egitten dau (azertetan dau). Bijotzaren lenengo zirkiñai jarraitzen dautsenak, damutu biarrik eztau ixango.

Catalunyako aldunai ogen bat erantsitten dautsoe: Zeben barnean sentitten dozubena aldun-batzarretan erakusteko lain etzarie. Eta egija eztanik ezin esan. Oindiño Catalunyako Ezquerra alderdikuak zer diran, eztakigu. Aberztaliak? Catalunyazaliak? Erki-zaliak?

Naste andijetan dakusguz. Barcelona-aldian gauza bat esan darua Ventura Gassol jaunak, Madriden aldatuten dauz bere itzak.

— Baña eskerrak olakoxe atzipen-bidiai euren Araudija lortu dabe.

Ezetzik eztiñogu. Lortu dabe ta poztuten gara. Baña euzkotarrak olan Araudija lortuko balebe, lotsaren lotsaz aurpegija gorrittuko litxakegu. Zeruba irebazte-arren, be, nor bere gogai edo idean aurka ezin ibilli datteke. Bijotzak gauza bat eta abuak beste bat darabilenian, aberiak baño berago gagoz.

Zer garan ondo erakutsi-ostian emon gura ba-dauskubere artuko dogu. Labankerijetan araudija lortzia ete-dago? Erri baten eskubide ta deretxueta ez ete-dago?

Guzurrez erri orren eskubidiak ezin eskutau geinkez?

Ludija gaizkatuteko guxurtxu bat ezin esan dagikegula, sarri entzun dogu. Batzuk olakorik ezin ulertu dagikie.

Araudi bategattik eusko-erriak daukozan eskubidiak eskutauko doguz, ba? Ezta ludi osua geuretzat ixango balitz, be! Catalandarrak zer-

bait lortu dabe. Ikusten dogu baña aldijak bako-
txari bere epaya erantsiko dautso. Orduban
jakingo dogu nortzuk onduen geratuko diran.
Orain-arte euzkotarren eta catalandarren artian
ziran aldaketeak atzaldu doguz, orainguan
argiargi Agirre jaunak jarri dauskuz, ostera.

Aldun-batzarrak zabaldu ziranian, Agirre jau-
nak itzaldi sakona oguzi eban. Zer zan eta zeren
billa etorran agertu eban. Onetan gixon argi
onek koipekeririk eztau ixan.

Geure aldunak, katolikuak eta euzkotarrak
dirala esanagattik Araudi bat eztaukogu. Eztago
ardurarik! Eskerrak egitten dautseguz, euren
gixontasuna dala-ta. iGixon agertu yakuz!

Azkenian garbijen jokaturen dabenak irabaz-
ten dabe. Royo Villanovaren itzak jakingarriak
dira. Gomutan eztoguz? Agirre jaunari beste
aldun batek ittaundu dautsonian bere aberrija
zein dana, aldun gaste onek erantzun dautso:
Euzkadi da neure aberrija.

Asarratuko zala Royo Villanova uste dozu?
Bai zera. Bere itzak onexek dira:

— Muy bien. Asi se habla.

Zintzotasunaren deya entzun dau. Agirre jaunak labankerijakaz eta koplakaz erantzun baeutson, zer aurreratuko eban? Ezerez edo aldunen aurrian agertuko zan atzipelan baten antzean. Euzko-ixatiari olakorik etxagoko. Amaikatxu itzaldi ederrian euzkotarrai atzaldu dautsena, aldun-batzarretan be, atzaldu dau. An besterik esan baeban, ona etorriko zanian agurrik ezkentson egingo, bere aberrija salduko ebalako.

Eta aberrija ezin saldu geinke araudi bat gora-bera. Au oldoztu begije. Araudija matte dogu, gura geunke, baña geure eskubidiak beti tinko ta lerden ixango dira amai-rarte.

Euzkadin gauza bat eta Madriden beste bat esaten ixan dogula aurpegira jaurti dauskube. Erantzuna laster eldu yake. Orain Amilibiak, ez bestek olakorik ezin esan dagikie.

Sabinek besterik ezeban erantzungo. Arek, be Euzkadi euzkotarren aberrija zala esan euskun.

Agirreren itzak-bide zigorkadeak etorriko yakuzala edo araudija betiko ondatu dala? Eztago ardurarik! Etorriko dana lepuan eruateko indarrik asko daukagu. Aberrijak sendotuten gauz.

Aldun gaste baten itzak orreik ixan dira. Zar batek, biarba, beste erantzun bat jaurtiko eutsen. Onenak aña zintzotasuna ezaban eukiko.

Euzko-Alderdi Jeltzaliak bere bidiak zeintzuk diran antziñatik daki. Poztuten gara bere alderdi-kiak guzurtauten eztabezelako bide oneik.

Gastiak zarren bidez duaz. Gogo bat eta bijotza bat, elburuba be bakarra dogu-ta. Bijotzean sartuko doguz itzok: «La patria es España». El señor Agirre: «Mi patria es Euzkadi».

Ludijaren aurrian itzok entzun dira!

Abertzaletasuna bide onez dúa. Okertuko eztala ziñistuten dogu. Olako gudarijak daukozan aberrija zorijontsuba da.!

32-XI-11

NOBEL-SARIJA GALSWORTHY

Uste gitxijen eukanari, Nobel-sarija emon dautse. Olerkari bi sari orren begira egozan, baña Valery ta Georgesengandik igesegin dau, England-iñotsura.

Eztabai itzelak erabilli dabez. Franceko irizlarijak euren laterri-barrutijan sari ori gura eben. Epaikarijen abua beste bat izan da, ostera. Ori zelan ixan dan zelan, jakin gura geunke jakin, baña epaikarijak euren etsija beste iñoren etsibilla jua-barik erantsi dabe.

Sari orregaz bere buruba aintzaldu daunaren idazti batzuk irakurrija naz. Arittik kanpora ezkenbiltzazke gai au atzaldutian, geure ele onetan edozetariko gayak kulunkatu dagikeguz-ta.

John Glasworthy urtetsuba dogu. Irurogeyan gottik dabil. Coombe Surrey urijan attonan seme jayo zan. Latari bidiak barna bixitzea irabazteko asmuan, latari argija egin zan, baña bakotxaren azkureak gixonak darabiltz.

Non geure atsedena? Ezin lenenguetan aurkitu! Urtiak erakutsiko dauskube. Berrogei urte-

tan ebillan Galsworthy, idazkortzeri bere gogayak atzalduteko laguntza eskatu eutsonian. Zer egingo eban? Ludijari birak egiña ezeze Englandeko aundikijen kerri gustijak ekijazan.

Otsuak otsuaren ekandubak onduen ezagututen dauz. Goikuenak goyan dabillenak jakin daruaz. Bekuak jakin gura leukez jakin baña gauza zalla ixan oi-da. Latari bati yagokon idazkolean jezarritta egottia naskagarri yakon ezkerro, ingijak jaurti bazterrera, bai?, eta Americara bere urratzak zuzendu euzan. England noragiño-ko laterrija zan, aztertu eban. Eta laterri orren ogenak zeintzuk ziran, be, igarri eban. Zigorra eskubetan ekarran ogen orreik lepalduteko.

Irakurgayak ala antzerkijak idatziko euzan? Bijai eskuba luzatu eutsen, baña antzerkijetan bere aintza loratuko zan.

Bere aberriko aundikijen otturak, esaereak, lotsabakokerijak zigortauteko idazkortza atzemon eban oni, jaramonik ezeutsien egitten asikeran. Lenengo idaztijak oyartzunik ezeben aurkittu. Idazlia, omenak eta aintzeak egin darue. Iñoz ixan danik onena agertuten ba da, be, aintzakotzat eztabe artuko. Irizlarijak onena dala,

argijena dala esaten dabenian, irakurliak bera-
ganatuten yakoz.

Garai ona etzan Galsworthy agertu zanakua. Beste idazle bi ziran nagosi. England osua Arein babespian eguan. Bemard Shaw eta Barrie. Bemard Shaw ixan da Englandeko doipuruba. Bere ganorabakokerijak —ulertuten eztaunaren-tzat ganorabakokerijak—, aintzakotzat artuten ixan dabez. Nobel-sarija antziña erantsi eutsen. Barrie geratuten da, ba sari-barik.

Olerkarijena, barriz, Barrie da.

Galsworthyren idazlanetan elburu bakarra ikusi dagikegu: goikuen ogenak atzaldur ta zigor-bittartez zuzendu. Mueta biteko idazliak dira: batzuk idazkolean sartuta euren ametsak buruban darabillezanak. Oneik eztira ludiko goraberatan alde-ixaten. Bestiak, oster, idaztijak egin ez-eze gixarteko arazuetan alde-dira. Oneik sutu ta senduak geyenetan, bestiak emiak-edo.

Gixarteko goraberatan alde-diranen batzarreko idazlia Galsworthy dogu. Uriko zarateak edo laterriko diadarrak idaztijetarako gaya emoten badautse, bere idazkortza-ziar gai orreik urtengo dina.

Xilipian idazten ebanak, 1908gn. «The silver box» argittaldu eban. Orduban ziran otsak eta txilijuak! Abixen onen izparra alde gustijetaragiño zabaldu tan, Ordutik ona urtero idazti bat edo bi argittaldu daruaz. Antzekijak be urtero antzestu daruaz. Gazteleraz ainbat irakurri dagikeguz. «La huelga», «La casa de campo», «Andrajos», «El propietario» eta beste batzuk.

Idazle danez gorengua bada, moral-bidez ezin goraldtu dagikegu lar. Zuzentasun billa amorruz dabiltzan batzuri jazotzen yakena oni be, jazo yako. Neurrijen barik neurrittik at ibilli-dabil. Beti ez baña sarrittan bai.

Zuzentasun edo justizi gauzetan auxe jazoten yaku: geure buruban dagan zuzentasuna baño eztogu ikusten, bestianik ez. Eta geurian daguena estubegija edo lasuegija litzake. Bestia-renakaz neurtu ostian egija agertuten yako-edo.

Idazle onek lbsenen bidia jarrattuten dautse. Eta idazle onen antzerkijetan gauza, oker askotxu aurkittu daruaguz. Nobei-sarija lortu dauna, auxe dogu. Englandekuak laugarenez euren berriratu dabe sari ori.

Euzkadira noz eldukodan zai gagoz! Orduban geure aberri onen entzutia ludi osuan zabalduko yaku. Indiatzaz Tagoreri sarija emon eutsenian, ludiko izparringijak idatzi eben.

32-XI-16

SENDO!

Iñoz baño senduago gaur jokatu biarrian gagoz. Euzko-semiak iñundiko arrizkubak ikusten dabez. Euzko-semiak; ez lurralde onetan jayo-aren, seme-ordiak diranak. Geure artian seme-orde askotxu dira, eurek olakorik uste eztaben-aren.

Baña ama ezagutu dabenak, euzko-seme onak diranak, oneik sendo jokatu badabe, gaur senduago ekin biarko dabe. Eta ez zalantzetan eta ara-onaka. Sarri esana dogu: elburuba argi ta garbi atzalduten daben alderdijak baño errijarren bijotza eztabe lortuten eta beratuten.

Lenago erdiz-erdizko alderdijak ixango ziran. Iñok etzekijan zer aldeztuten eben. Eta auteskunde egunak etorten ziranian, edonogaz batuten tiran. Politika arazuetan barna ebiltzan. Orain oste ra sakonkiro erakutsi nai geunke euzko-semiak, abertzaliak diranian, politika arazuetan barna eztabiltzala.

Ardurarik eztauskube aldundijak eta udalak. Politikarubentzat begoz. Orrei, aldakuntzak eta

ara-onak eskatu geuskijoez. Abertzalia iez oste-
ra! Euzko-abertzaliak sendo-sendo, bide batez
baño ezin jokatu dagikie, bijurkerijak eta lañuak
alde batera jaurti biar.

Geure bide bakarra: Sabinak erakutsija. One-
tan, erderaz «intransigentes» esan daruenak,
ixango gara. Ezin dagikegu lokirik lasa. Bide
bakarra yakun ezkeru, iñorantza ezin okertu
geintikez.

Beti sendo ta zintzo ibilli bagara, orain sen-
duago. Aberrijaren mugeak eta ixatia la-ia ikusi
dogunian, zintzoen jokatuko gara. Arana eta
Gorittar Sabin Irakasliaren bidiak geure bidetzat
artuten doguz, beste iñorenak bere ez. Gixon
argijena bedere! Abandotik Sukarrietara geure
bidia daukagu. Gixon arek aberrija erakutsi eus-
kun eta orain datorzenak, aren gogaya atzaldu
baño ez dagikie. Iturburuban edatia atseginago
yaku, ba, odiñak ziar etorri dana edatia baño.

Sabin il zan egun onetan zin-dagigu. Zin a
iñoz egin doguna baño gogorragua ta zintzuagua
bedi. Besterik eztogu ezagututen! Euzkadin iras-
le bakarra ixan zan eta aren ikaskixunak osuan
ontzat-artuten doguz.

Geyegikerizaletzat autetsiko gabezala? Geyegikerijak azkatuten dabez aberrijak! Lurreko zentzun lar daukenak, arrizku-ordubetan etxian geratuten dira. Zentzuna galdu eztagijen bilddur dira! Eta Kistok esana dogu: Bere gogua galduten daunak, idoroko dau. Neugattik arima galduten daunak, aurkittuko dau.

Aberrijagattik geure zentzuna galduten bado-gu, zentzunik argijena aurkittuko dogu. Geure zentzuna aberri bakar onena dogu! Lenago nora jo ezean gengoan. Zentzunari entzun gura-edo! Baña zentzundunak zer egitten daben ikusi dogu. Astiro-astiro oldoztu dogu zentzundunak zer egin daben Euzkadiren onerako.

Euren zeregiñak, bestiaren zeregiñak dongetsitian edo txartzat-autetsitian juan yakez. Orain baña beste zentzun bategaz gatorz. Gastien zentzuna. Oneik Sabinen jarrallerik onenak ixango dira.

Alde batera jaurti dabez zentzunaren didarrak. Makillak eskubetan eta bijotz-ganian euzko-ikurriña daroyezala, aurrera duaz. Baña Suka-rrietara baño ez, beste bidiak geuriak eztiralako.

España-zalien alderdijakaz, ezkertarrakaz edo eskumatarrakaz alkar-egittiak eta auteskundi-
dian batuta jokatutiak, jaurtitten dabez, don-
getsitten dabez. Abintzarik onenak egitten
badauskubez be, geure aberri onen kaltez danik
ezin dagikegu. Eta kalte andijena geure eskubi-
diak estaldutia. Españazaliakaz zeozer lortuteko
geure elburuba estaldu biar dogu ta olakorik ez
aurrerantzian.

Itz gitxi ta egitte geyago. Zentzunbakuena
gurendea ixango da! Baña zentzunbakuak aza-
lez bakarrik diranena. Barruz zentzuik asko dau-
kelako.

32-XI-25

ZORI ONA

Gauza gitxigaz poztuten garala, edonok daki. Esku bat apurtuten yakunian geurekiko diñogu: eskerrak bijak ixan eztiranean. Baña esku bijak apurtuten yakuzanian, onexegaz poztuten gara: Iztarrak apurtu bayatazan oraingo txartuago nengoke.

Eta iztarrak apurtu dauzana, buruba apurtu eztaula-ta, poztuten da. Ludi onetan zorijontsu eztana, bere erruz ezta!

Edozegaz alattu gentikez. Baserrijan jayotako emakume gaste bategandik adibide au ondoen ikasi neban.

Bere amek errekadu batzuk egitten bidaldu eban. Baña errekadu batzuk egittera zuazanian, bestaldekuak be, beste batzuk agindduko dautzuz.

— Urira zuaz? Mesedez ekarriko daustazu makallo bat?

— Zeregin andirik eztaukat eta makallo ori ekarriko dautzut.

— Ara, ba, farol bat, argontzi bat biar neuke.

— Norenian erosiko dautzut?

— Martolaneko dendea non dan eztakixu?

Antxe erosi egixu, neure adizkide onak diralako.

Geure neskatil gastia juan zan urira ta poztu zan ango gauza ederrak ikusi ebazanian. Salokijak zelako ederrak ziran...!

Jakin gura eban jakin uri osuaren barri, bai?, eta txaidez-txaide, gora-bera iru ordu igaro euzan. Etxeko errekadubak eta bestaldekuarenak egin ostian bultziratu zan.

Saretxu bat bultzijetan ixaten da. Zetarako dan? Aterkiñak edo dakarzan gauzatxubak antxe iminteko. Sare orrettan maleta andijak ezin jarri zeinkez, andijak zerbait ordaindu biar dabelako.

Geure neskatilla gastiak sarian imiñi euzan. Baña laguna onduan eukittiak dakargun zoritxarra.

Txitxi-putxu izketan etorzan bidian. Etziran konturatu eurek jatsi biar eben geltokija atzian itxi ebela. Olako baten leyotik kanpora begiratu ebenian,urrun bere urruntxu zirala konturatu tiran. Arein larriajak!

Saretxuban ziran gauzak artu eskubetan eta geure baserriko neskeak bultzittik salto egin

eban. Abijada andijak bultzijak eroyan eta ikera-garrizko mallatuba artu eban.

Ori ikusi ebenak zarataka asi tiran eta bultzi ori geratu tan. Jatsi tiran gustijak eta arin-arinka neskia eguan tokira juan ziran.

— Arrasa-barik datza!

— Il ete-da!

Olakoxe itzak esaten ebezan. Gixon batzuk jaso eban eta neskea bururatu zanian bere ondorra adi-adi jarri zan.

— Zegattik ori egin dozu? —batak ittanduten eutson.

— Burutik zagoz edo? —bestiak.

Ezer jazo ete-yakon, aztertu-ostian esku bat apurtuta eukola igarri eben.

— Ara, eskuba apurtu dozu.

— Orain lanak zelan egingo dozuz? Eta buruba apurtu bazeban. Il bazintzae! An ziran atsuak batez-bere agiraka egitten eutsen. Euren alabea bazan, be zarata andijaguak ezeutsezan egingo.

— Alabatxu, zoratu egin yatzu, zoratu? Trenetan ardura andija euki biar ixaten da. Zeure ameak baleki egin dozuna, egin!

Ango zarateak ixilddu ziranian, neskato gas-
tiak erantzun eutsen:

— Zegattik olako diadarrak eta txilijuak?

— Zegattik diñozu, zegattik, mamala orrek?

Zeugattik, zeulako gangarrakattik.

— Gauza andirik etxat jazo-ta...

— Ez, geyago jazo etxatzunian!

— Neu beintzat pozik nago, bestaldeko Ber-
nardaren farola apurtu eztanian. Axe farola apur-
tu bayatan tamal andijena artuko neban.

An ziranak ezeben ulertu neskiaren izketea.
Baña zentzunez oldoztuten badogu, erraso-
i sakona esan ebalakuan gengokez. Bestaldekua-
ren farola apurtutia txarragua ixango yakon,
bere azurrak apurtutia baño.

Atsegin ona zer zan baekijan zori ona zein
zan bere bai!

MINGOTSA

Aspaldijon iritxijak emetik eta iritxijak andik, idazlien lumeak geldi eztagoz. Zantzu ona. Erle-otsak eztija dikur. Erlauntz-onduan ixilla danian, erlien erijotza aurkittuten dogu. Baña geure euzkei-erlauntzeko erle oneik zurrumurru ta zarataka zantzu onena agertzen dauskube.

Eztenkada batzuk be, ixan diralako izparra? Eztendun gadixan beti, eztizkuak bagara, eulijak jango gattubez-eta...

Neure lanetan mingotsa bestiak aurkittuten badabe, enaz ikeratuten. Batzuk mingotsa ixilpian ixuri nai dabe, neuk agirijan. Eta mingotsa bada, zer egin?

Azkurea sentitten danian zer egin biar dan edonok daki. Azkureatzazko idazti bat irakurrija nozu. Belarri-onduan azkurea sentitten dozuanian, erraz-erraz azkatuten zara. Iñori etxako arrigarri, gauza bakana eztalako.

Baña azkurea besopian sentitten danian? Orduban okulutxu baten sartuten gara. Eta okulu aretantxe azkatuten gara.

Lepuan be, noxian bein azkurea senti daruagu. Zer egingo? Asko, itzaliki orma baten edo tantai baten ondura juaten dira ta antxe, ormarren aitzia azkatuten dira. Lepuari gora-bera eragiñik, euren azkure ori kenduten dabe.

Belarrijan, besopian edo lepuan ez-eze beste toki baten bere, azkurea sentitten dogu, ostera. Non? Jezarteko egiñak diran soin-alderdijetan. Onetan sentitten dan azkurea, azkure larrija ixaten da!

Notin-aurrian zagozarian zer egin? Iñoren aurrian azkatutia gauza lotsagarria dalako, bako txak al daun ariñen etxera joten dau. Etxian gura dozun bestian azkatuko zara! Deskantsu ona!

Idazlanak, sarri, azkurea egitten dauskube. Iñoren aurrian azkatuten gara, baña alderdiren baten azkurea sortubazoten dauskubengan, onena etxera juatia yaku. Antxe mingots ori ta azkure ori kenduten doguz.

Aulku auxe ago-onez diñot. Mingotsak badira idaztijok, azkurea ateraten badabe, zer egin edo-nok daki.

— Aurritz lar dakazu, norbaitek erantzungo daust.

Alantxe ixan be, ixan da. Aurritzak baztertu biar geunkez, ezetarako balijo eztabelako. Aurritzak eta literatuta deritxoguna baztertu biar geunkez, erriyak astotuteko baño eztiralako.

Zenbat eta literatura geyago irakurri, erriyak astuago bijurtuten dirala, uste dot. Orregattik literatuai gorroto bixija artu dautset. Lelokeriyak idazteko baño eztabe balijo!

Txerrena nazala entzutia nayago neuke, literato-gaya nazala entzutia baño. Utikan itz zikin ori!

Baña zoritxarrez geure artian literato geyegi dira. Egijak argi ta garbi esan biarrian, edozelako gauzetan literaturea e ittera datorz. Amaikatu labankeri, txitxi-putxu, zizka-mizka ta koplabbarritsu atzalduten dauskubez, euren gogaya agertu baño lenago.

Guda gorrija olakuai! Ozpiñari ozpiña ta guzurri guzurra dettu dagijogua. Guzurra urrezko txol edo kopatxu baten saldu gura dauskubenak, espetxeratu daiguzan.

Eztena? Ezta urrik be!

Lau izkirimiri-artian eztenkada galantak sartu daruez oraingo idazle batzuk. Sosuak abesti poli-

tta daukola esan biar dabe, azkenian porrusaldea gabetan ona dala atzalduteko. Zer ikusirik etedauke, ba, sosuak eta porrusaldeak?

Bayetz batobatek erantzungo dautzu. Ixan be, edozein gauzari zer ikusija ta alkarreganako leya idoroko geunskijoe: Abesti bat gomutan? «Arroskoletxea» atsegin yatzula badakit, atepetik ladrillo bat sartuko dautzut».

Arroskoletxeak eta ladrilluak zer ikusirik eztaukela? Erriyak bayetz diño, egunero abesti ori abesu darualako.

Beste batzuk eguraldi ona dala atzalduteko, Adamen aldittik asiko yatzuz. Eta gusti ori literatura ustela baño ezta. Utikan eta gudea olako lelokerijai!

Zu asto bat zara, esan biar yakonian adizkide bati, astua zara, argi ta garbi esan egijozu. Euzkel-ixenak onak dira edo txarrak dira esateko, argi ta garbi geure iritxija atzaldu daigun. Eta oraintxe arira eldu gara, baña bijarko gogai oneik begoz...

MINGOTSA

Idazle baten itzak: euzkera-barik abertzaletasunik eztagoke. Guzurrea! Baña, au esateko beste era bat eztaukozu? Literaturearen areyo gorrijena naz!

Euzkerea parra-parra dakijen askotxu ezagutu daruaguz. Abertzaliak ete-dira? Bai zera! Abertzaletasunaren etsai amorratuagorik ezta. Erderea baño ezta kijen asko, ostera, abertzalerik punterenguenak dira.

Geyagorik esango dogu: euzko-abertzaletasuna erderea, (gaztelera nai badozu), baño ezta kien adimenetan sortu zan. Abertzaletasun onen aldatzallerik onenak, lanik geyen egin dabenak, euzkerarik ezekijenak ziran.

Norbait ikeratuko da. Egijak ikeratuten dauna, koldarra da-edo. Poztuten garala, diñoguna bide? Ez orixe! Geuretzako atsegingarrijago ixango tan euzkerearen bittartez euzko-abertzaletasuna zabaldu bazan.

Aberri baten ezaugarri ederrena, bere izkuntzea da. Euzkuak euzkerea abuetan erabilli ebe-

nian, aberririk be, eukijela etziran konturatu. Alperriko pitxija euren euzkerea zan!

Jakintsu batzuk aldijak igaroteko baño etzan. Beste zeregiñik ezeukijen gixon batzuk euzke-rearen sorkundea, joskerea, aditza ta abar ikasten ebiltzan. Eurentzat jostallu bat baño etzan!

Or museoetan ikusten diran antziñako gauza zarrak legetxe. Zetarako euzkerea dabe, aber-tzaliak eztiranak? Ezetarako bere ez, euren burubak agertzeko baño.

Orduban elia baño zerbait lenagoko mallan dago?, Bai bein! Aberrijaganako mattasuna, aberrijaren ezaupidia lenago dago. American ziran abendeak euren eliak galdu ebezan, baña ori gora-bera, aberri azkatubak dozuz.

Inkatarren elia eztakijena, abertzale txarra ete-da? France, España, Rumania ta beste late-ra-bitartez il ziran izkuntzaen aberriak, zegattik euren antziñako eliak eztabez berpiztuten?

Erantzuna entzun gura dogu entzun. Gai one-tzaz Sabinak atzaldu euskuna agertuko dogu. Gaur geure argiz jarrai dagigun.

Euzkadin gauzarik sano eztago. Ondatuta gagoz! Aberri bat gintzalako ustia aztuta geun-

kan. Zer egin? Euzkerea baztertuta aurkittuten dogu. Lenengo euzkereari bixitzea emon eta aberrijaganako mattasuna sortubazo?

Etxia ixan dedintzat, arroñak biarren, ez talletuba. Talletubak edertu darua, baña biarrezkua ezta. Gaurko egunetan talletu bako etxe asko dira, tellazea bide.

Arroñak jarri biar doguz. Euzkadiren arroñak zeintzuk dira? Geure ixate oni zelan iraunazoko dautsogu? Aberri baten gogaya, erri baten asmua erakutsiko dautsogunian.

Euzkerea eztoгу aberrija, aberrijaren pitxi ederrena bada bere. Ura eukitteko edontzija edo txola biarren dogu. Euzkerea tankera bat edo antz bat baño ezta, aberrija ostera antz orren eutsikaya, eukijatan.

Oindiño euzkerea itz-egitten dan tokijetan inddarrez ta adorez zaindu dagigun. Tamalgarri-jena galtzia litzakelako, baña euzkerarik etzan tokijetan asi gadixan abertzaletasunetik. Larrosak udabarrijan nai badoguz, larrosoduak landatu daiguzan neguban. Baña gusti au literaturrea baño ezta!

Euzkotarrak benetako abertzaliak balitz, Euzkadin diran gixaseme gustijak abertzaliak balitzaz, pozik emongo neuke euzkerea. Benetako abertzaletasuna bada euzkerea gero sortuko da. Au ondo ikusi daruagu uri batzutan. Erdeldunak ixan diran askotxuk joranez ekitten dautse euzkerea ikastiari.

Baña aberrija ezagutu ezpaleben, euzkerea ikasiko eben? Bai zera. Euzkerearen alde zelako lanak egin daruez abertzale eztiranak? Abertzalien erditik? Euraen batzokijetan euzkerea irakasten da? Euzko-abertzalia eztanak, len-bai-len erail biar leuke euzkerea. Bere aberrijaren izkuntzea eztalako. Onexeri erantzun begije geure literato ponpoxak. Abertzalia eztanarentzat Euzkadi bere aberrija ezta. Aberrijaren elia euzkerea ezin ixan datteke, beraz.

Baña abertzale danak, ulertu darua bere elia euzkerea dala. Eta zegattik eztau ikasten? Euzkerea ta aberrija, bijak galduta aurkittu dauzan ezkerro, lenengo mallan daguana, lenengo berpiztu biar daulako.

Gaurko geure lanik sakonena aberrija iragi al ixatia. Txola egin daigun eta gero ura batuko dogu.

Erderaz zein euzkeraz, edozein izkuntzetan geure aberrija jaso daigun. Bijar pantzeraz, biarba, abertzaletasuna zabalduko dogu. Euzkadiko seme gustijak euzkerea jakin baeben, erderaz abertzaletasuna zabalduen astia, gauza lotsagarrija ixango zan. Abertzajlien lana etzan ixango, baña orainguan bixi gadixan, ez ametsartian.

Ameslari geyegi doguz. Olerkari antzekuak eta olerkarijai bizten be etxako itxi biar laterrijetan, errijen kalterako baño eztdralako. Egin dodazan olerkijak atzindu al baneuz, oraintxe baztertuko neukez. Kezka andijagorik eztot, olerkijak egiña baño!

Zetarako olerkijak? Irizlari batzuk txor-txor ekin dagijen eta gaste zoro batzuk aldiya galdu dagijentzat.

Azkurerik iñun senti dozu? iAzkatu zadi ta baldan! Geyagorik esango dogu...!

EUZKO ANTZERKIJAK

Euzko-Gastedijak oraintsu egin daun antzerki-jayari biar yakon goralbena egin dagijogun. «Iru Gudari» eta «Aizteak» antzeztu dabez. Antzokija notiñez beterik egon zala esatia, eze-rez esatia da. Geure jayetan eta antzezkixunetan beredin notin ixaten dira. Baña orainguan notiñetzaz barik antzerki orreitzaz idatzi dagi-gun. Orain arte baserritar batzuk kili-kolo antze-ra agertuten ixan doguz.

Baña beti baserriko gauzetan ezin egon geintikez. Noiz-edo-noiz beste gauza batzutzaz bere idatzi biar dogu. «Iru Gudari»ren egillia edonok ezagutu darua. Sota-Aburtotar Imanol geure elertiko gixon argi ta jayua dogu.

Euzko-antzerkijak zor andijak dautsoz anak ederto edesten dauz, baña Sota jaunaren antzerkijak aberrijaren bijotzean sortutako antzerkijak dira. Gixon argija ta ludiko elerti geyenak irakurrija dogu. Eta euzko-elerti gaxo onetara Coc-teau edo Shaw jaunen kiñubak ekarri dakarz.

«Iru Gudari» karlatarren gudaldiko antzezki bat da. Orain arte beste batzuk, be karlatar gudaldiko jazoerak antzerkijan esi dabez. Baña Sota jaunak abertzaletasuna erein darua antzerki orregaz.

Baroja jaunak karlatar gudaldiño notiñak ederto edesten dauz, baña Sota jaunaren lana ezta atzean geratuen. Barkaiztegi buruzagijaren ixatia, punterengua dogu.

Antzerki-bidez ondo baño obeto darabiltz notiñak, Sotak ba, berak nai daun-legetxe antzeznotiñak igittuten dauz. Campos Eliseosen ixan ziranak txalotu eban bai txalotu Sotaren lana.

Negar begijatik jarijoten yaken askori. Errusitarren antzerkijak geure elerti onetan erre dirala, dirudit.

Bigarren antzeztalde zana, «Aizteak» dogu. Uruñuela gaste argija oindiño batzuk eztabe ezagututen. «Itxas-txori urdiña» lenago Bilbaon ikusi gebanok, zer dan jaun au baekigun. Orain aberrijatzazko gai bat dakar.

«Aizteak» sei aizteak, Euzkadiren sei alabeak. Neurtitzetan bere gaya zabaldu darua.

Gaztelu eder baten jaubia dan gixonak sei aizteak menpian daukoz. Berak gura dauna egittia nai dau.

Jaun orregaz jakitun gaizto bat bixi da. Onek aizteak beretzat gura dauz, aiztean mattasuna txastau nai leuke.

Baña gaztelu zarrera Bidazti bat eldu da. Nor dan iñok eztaki, baña bere abotik egizko itzak urteten dira. Eta gustijon erdijan abestalde bi dagoz. Grezitarra euren antzerkijetan abestalde bat edo koru bat eukitten eben.

Uruñuela jaunak, begi zoliz geure euzko-antzerkira antziñako ayen erea ekarri dau. Abestalde bi oneik itz-dagije. Batzuk jauntxubaren aldatzaliak dira, bestiak aiztaen lagunak.

Bidaztijaren bidez aizteak erailteko asmuetan egon ziranak menperatubak ixango dira. Bidaztiak bere pitxizko jantzizak kenduko dauzarian, bijotz eder bat jantzi-ganian daukon gudarija dala erakutsiko dau. Gudari onek gaizkatuten dauz aizteak.

Antzerki onetan España eta France agertuten dira ta Euzkadiren sei alabeak. Oindiño olako antzerki-polittik sarri-sarri eztogu ikusi.

Eta zelako jantzijakaz agertuten dina sei aizteak antzokian. Bata baño bestia-dotoriago.

Geure antzerkijak olakoxe gayak biar dauz. Aberrijari ta elertijari dagokijozanak.

Gurenda andija lortu dau Uruñuela jaunak oraingo antzerki onegaz. Beste bat laster antzeztuko dabe. «Ama» deritxo. Geure antzerkigilliak aurrera duaz.

Euzko-Gastedijak, Bilbaoko gastedi begiko onek lan ederrak egin daruaz geure antzerkijakaz.

Sota eta Uruñuela jaunai txaluak jotzen dautseguz emetixek. Garate eta Urrengoetxea jaunak be, euren eresi txukunakaz lan begibegikua egin dabe. Eta antzezlarijak ondo baño obeto! Ikeragarritzko antzezlanjak doguz, eta agur argijena zinkatuten dautsegu.

32-XII-10

UME-JOKUAK

Ludiko umiak jolastuten dira. Umetasuna jolasen arua ixaten dan ezkerro, ume gustijak euren egun-sentiko egunak jolas-artian igaro daroetz. Eurentzako jostallubak baño eztagoz.

Neskatiltxu bat bada, eskubetan andrakittea artuta mattero urrumakatzen dau. Emakume zar baten antzera bere zeregiñak betetuten dauz. Mutikuak ostera, batzutan gudarijak dirala, beste batzutan zaldi-ganian duazala, zarren ametsetan dabiltz.

Eta gauza jakingarrija: ludi gustiko umian abestijak eta jolasak bardin antxeukuak dira. Aldakuntza andirik eztauke. Doistarrak darabillean abestijak, Italiako umiak erabiliko dabez.

Azkoren ikereak barre-daragisku: Ene, abestitxu au Francen entzun dot! Eta Euzkadin alako abestijak umien abuetan entzuten dauzalako, ikeratuta dago. Ez orren besterik! Ipuñakaz jazoten dana, abesti ta jolasakaz jazo oi-da.

Indian eta European ipuñak alkarren kidekuak dira. Erri batetik bestera duaz. Ume-jokuakaz bardin jazoten da.

Zetan aldakuntza idoro geinke, ba? Lan auxe egin nairik gabiltz. Euzko-umien jolasak eta gaztelar umianak bardiñak ixango dira, baña batzuk euzkeraz ta bestiak erderaz edo gazteleraz jolas-tu dadixan, gura dogu.

Ume jolasetan geyenean abestijak eta izki txukunak ixaten dira. Doistarrak euren elian eta pantzetarrak beste orren beste. Orain arte ardu-ra andirik eztautsegu ixan umien jolasai, baña orainguan konturatu gara euzkerea jasoteko biderik onenatariko bat auxe dogula.

Gauza atsegingarrija ixango litzake, ume gustijak euren jolasatan euzkerazko izkijak abestuko balebez.

Bilbao edo Donostian zelayetan dabiltzan umiak euzkerazko jolasak erabiliko balebez, zelako aurrerakadea egingo leuken geure eliak.

Euzko-Ikastola-Batza konturatu yaku. Urduri lan egin nairik asi dira ta laster euzko-umiak amaikatxu jolas eder eukiko dabez. Baserrijetan baztertuten diran abestijak, ume-jokuak barriz-

tau dagiguzan, oraingo jantziz jantzi daiguzan. Nok soka-jokua eztau ikusi? Neskatzuak jolas orretan dabiltzan bittartian ara curen euzkeltzaletasuna zelan agertu dagikien.

«Jolastu gattezen soka-jokuan, soka-jokuan, soka-jokuan, aurtxo euzkotarrai dagokijon eran, dagokijon eran euzko-utsean. Bikuak ugari egiñaz alai gabiltzan, alai gabiltzan, alai gabiltzan, euzkera entzunaz beti jolas gustittan, jolas gustittan une danean». Olantxe abestijak darrai.

Sarri «Ambo ato, matarile-rile» entzun dogu. Erderazkua. Zegattik euzkeraz olakoxe abestitxu bat umiai egin ez? «Monja zurijena» deritxon izkitxu zoragarrija Lekuona jaunak egin dautse.

Elerti-zaletasuna, gogo-maitasuna olantxe erakutsi geunskijoke ta euzkeraganako mattasun berua.

Edozein tokittan euzko-jolas bat aurkittu daruanak, bidaldu begisku. Ezerez dan gauzatxu bategaz, oidalako lana dagikegu. Geure arlo onetan gauza txikirik eztago.

Euzko-lkastoletan dabiltzan umiak, Bilbaoko txaidetan abestuten dabez euren jolasak. Elertilari bati entzun neutson: Antzerkijak egitteko

zelako gauza txukunak diran. Eta ikeratuta legetxe notiñak geratuten dira ume arein abestijak entzunaz.

Orra uste ezkeban bidetik geure euzkerea goralduteko asmua. Laterri askotako ikastoletan umiai jolasak erakusteko eginbiarrak irakasliak euki darua. Ordu erdi ta ordu bateko lana, jolasak erakustiari emon biar dautse. Ezta alperriko lana. Umiak pozik ikastolara juaten dira ta euren elian, jolastu ta dantzatuten ikasten dabe.

Garrantzi andiko lan oni biar yakona emongo dautsogu. Gai onetzaz Franceko irakasleme batek esan dauzanak ementxe argittalduko doguz. Geuk esaten dogunari batzuk jaramonik eztautse egitten, erbestekuaren esanai erantzungo dautse-edo.

32-II-11

GABONETAKO ATEA

Kepa deunagaz ta Judaren onduan, Josu, Ujard urittik Piotrkowragiño joyan. Antziña-antziña ixan zan, gaur lurrak ikusten diran tokijetan urak baño eztiran orduban eta orain baratzak diran lekubetan oyanak ziran. Lurralde au basamortu baten antzekua zan, basetxe bat aurkittuarite oinkada asko emon biar ixetan ziran eta gaztelurik azirako be etzan.

Josu otz-zan eta minkarrija berari begiratzia. Arrijak eurak, be, ixotzez gogortuta egozan; Gabon-gaba zan. Irurak gose andija ziran eta ez txabolarik, ez ostaturik eta ez arimarik etzan ikusten. Noxian bein atsedeen egitteko asmoz geldittuten ziran: baño beriala jatsitten ziran otxuak eta pisti basatijak ziralako inguru aretan. Zelako orrubak eta otsak egitten ebezan, ikeraz ikeratuteko bestian.

Kepa deunak zigortxu bat ekarran eta Judan arrijak artu ebezan. Jaunak esan eutsen:

— Bilddur ezadixe, ene semetxu semiok. Zubekin naz!

Kepa deunak eta Judak bilddurrik ezeben ixan; baña basabere bat beti basabere bat ixaten da eta, biar ba, gauzarik onenan tantai on bategaz ibiltia eskiyerrena ixaten yaku.

Gaztelu batera gabaz eldu ziran. Antxe atsenden egin eta otza kentzia uste eben. Baña doistarrena Gaztelu a zan eta atiaz mokoz-moko egin eutsen. Kepa deuna amorruz amorraturik joyan eta bere tantai ederra doistar baten buruban ausi-ausi gura eban. Juda, be, mormor etorran.

— Sutan nago, Jauna, sutan nago! Sasi-gane aretan dagon ollarrari samea kenduko neuskijo, ia baretuten nazan.

Baña Jaunak esan eutson:

— Artez zagoz. Gixonak burubakuak dira; orrexegatik gaiztuak dira. Tximiñi-artian azkeixaten da batak bestiari gauzatxubak estutia, baña gixonak gixonari lagundu biar dautso. Ludi-ja olakoxia ixango da luzaruan...

Eta aurrera joyan izketan, bere ikasliak, barriz, ostez yatorkozan. Otzaren-otsak gosia ekarran.

Azkenez ostatu bat idoro eben.

— Sartu gadixan —Josuk esan eban—; oindiño gixon onik bada ludijon.

— Irakaslia —erantzun eutson Kepa deunak—, lauziriko bat eztarogu baña... Irakasliak sakelak zabaldu eragin eutsozan, baña txakur txikirik be, ezeukan, eta bere bijotza saminddu zan.

— Neuk bere eztaukot —esan eban—. Ik, Juda, ordañez emon egiskuk.

— Polskako txinditxu bat daukat —erantzun eutsen.

Bi eukazan, baña gauza gatxa bijak emotia ixan yakon.

Jaunak ondo ekijan Judak guzurra esan ebalá. Judak atera ebazan sakeletik ogeta zortzi «gros» edo «sos» eta gustija txindditxu txikerretan.

— Beste sos bi ixan biar dira-edo, baña okuluren baten yatzaz —esan eban idoro nayez.

Eta berekiko iñuan: «Olantxe geyago aurreratu-tuko dot». Jaunak artu ebazan txinddijok eta sartu ziran ostatuban.

— Josukisto onetsija bedi!

— Gixaldiz-gixaldi! Ondo etorrijak zadiz, ononok. Nora zarua Goikuak dan eguraldi onetan?

— Ludiz, emakume on ori, ludiz. Zeozer jan dagigun ete dozu? Arnasarik be artu eziñik gatorz.

— Bai; ogija emon egiskuzu beriala —Kepa deunak jardetsi eutsen.

— Ogirik eztogu.

— Ondo dago: gaztai atxaltu batzuk edo lukainka...

— Olakorik be, eztaukat!

— Orduban, ene emakume ene ori, lapiko bete azeak edo errabunak..

— Ezerez!; bein eta birritan eztaukadala ezer dirautzuket. Zubek baño lenago beste jaun batzuk etorri dira ta gustijak iruntzi date.

— Eta, pattarrik eztaukazu?

— Pattara bai, baño txarra dala dirautzuket. Oena eruan dabe, len.

— Edontzikada bana artuko ete dozube? Jau-nak ittaundu eutsen.

Judak txistuba jaurti eban goruntz eta Kepa deunak iñuan:

— Tira, eztausku txarrik egingo. Edozer ondo etorriko yakula uste dot, bijotza, ba, abuan daukagu.

— Baña sardiña-zarrik eztago? Biar, ba? — ittaundu eban Judak, gorrizka a arrain-zalia zan, ba.

— Zardiña-zarrik eztago.

— Zer egingo dot zeben alde, ene lagun onok? — ittaundu eban Josuk tamalez.

— Ene, ordaindu gura badozube, ata bat idoroko geunke — erantzun eutsen ostalari-emiak.

— Geu berbazko gixonak gara, ordainduko yatzu — erantzun eutsan Josuk. Emon egiskuzu aberetxu ori ta laster erosiko yatzu.

Emakumia juan zan eta aren billa eta Judak eskubetan artu ebanian, ikeragarritzko goraberak egin eutsozan. Saleroslia baizan-eta. Lenengo aztatu eban, gero lumai putz-egin eutsen aragija ikusteko eran.

— Argal argaltxu dago. Autz pillo bat baño ezta. Neuretzat bakarrik balitz, tira gosia kenduko neuke, baña irurontzat asteko be ezta.

Kepa deunak burubari zirkin-eragin eutsan, berak bakarrik, be, jango ebalako aberea.

— Egosi egixu — Josuk agindu eutsan. Gero ikasliakana zuzendurik:

— Gauza gitxitxu dala irurontzat ezteritxazu, Kepa?

— Gitxi da bai, jauna. Onduan baleukaz aza batzuk eta ogi zati bat.

Josuk oldoztu eban zeozer eta esan eban:

— Gauza bat egin dagigun: lo apurtxu bat egin daigun eta gosia baretuko yaku. Bittartian atea egosiko da eta ametsik ederrena egin dau-nak jan begi atea.

Irurak etzun ziran berokiñaren onduan eta lo-egiten. Ordu bat geroxe Josu iratxartu zan.

— Gora... Kepa, ametsik egin dozu?

— Jauna, zeure ordezkua nintzala amets-egin dot eta zeure ogasunen giltza neukala. Txabola bat neuretzat neukan eta zintzoro otsein-egitten neutzun.

— Ondo dago, adizkide mattia, neure ordezkua zara —Irakasliak esan eutsan esku zoragarriko artian Keparen buruba—. Eta neuk... neuk zerubetan nintzala amets-egin dot. Lurrean txirorik, ez gaiztorik, ez maltzurrik etzalakuan, zerubetan nintzala; baserritar bakotxak lur ederrak eukazala ta ludi osua pozik bixi zala.

— Zeuretzat atea ixan bedi, ene Jaun orrek emetik ederrena egin dozu-ta —Kepak esan eutsan, gosiak tripetan aginka egitten eutsan-arren.

— Eta zeuk Juda, zer amets-egin dozu? —mattekiro ittaundu eutsan, begijak igortzitten eguan gorrizka ari begira.

— Nik Jauna? Neuk amets-egin dot... amets-egin dot atea jaten nebala —ixilka esan eban, bere begijakaz goyak zulatuten euzan artian.

— Tira, ametsik txarrena ixan dozu. Emakume orrek ekarri egixu ata ori!

Arinka eldu zan emakumia eta esan eutson Josuri gorrizka arek jan ebala eta osua, txakur-rrentzat azurrik bere itxi barik.

Josuk errukiz begiratu eutsan Judari.

— Orduban egiz amets-egin dozu atea jaten zendubala? Ametsik onena ixan dala, eztakixu?

— Bai, amets on bat —bestiak erantzun eutson, begiratu-barik eta bere bixar loyari tira-egitten eutsen.

— Bai, ezta? Juda, amets ori egin dozu, ezta? Tira, ba, geratu zadi berton ateak jaten eta azeakaz etaogijaz jan egixuz. Neu ta Kepa beste toki

batera juango gara, iñor atzipetuten eztaben lekura. Eta bijak juan ziran.

Ona zegattik gaur Polskakuak baraubak gordetan dabezan.

32-XII-24, Lauaxetak euzkeralduba